

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena **2021**

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena





URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena

2021

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



Vitoria-Gasteiz 2022

Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean ere bai: Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena 2021 (ISSN 2255-484X)

Gaztelaniazko edizioa: [Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia 2021](#) (ISSN-e 2255-4947)

Honekin batera argitaratua: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2021](#) (ISSN-e 2255-4939)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2021. Laburpena](#) (ISSN-e 2255-4912)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

– [web](#) gunean

– [posta elektronikoz](#) eskatuz

– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)


ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa eta inprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 2255-4947

Aurkibidea



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	11
-------------------------	----

I. KAPITULUA

Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala	13
-----------------------------------------------------------	----

1. Nazioarteko eremua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak.....	15
2. Europa: estrategia berria.....	16
3. Estatu eta autonomia erkidego eremua.....	17

II. KAPITULUA

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak	19
-----------------------------------------------------------------------------------	----

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatzeko kuantitatiboa.....	21
2. Arriskuan dauden eskubideak.....	22
2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea.....	22
2.2. Hezkuntzarako eskubidea.....	25
2.3. Abandonu, tratatu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea.....	29
2.4. Familia babeslea izateko eskubidea.....	38
2.5. Osasunerako eskubidea.....	40
2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarekin dituzten harremanetan.....	42
2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea.....	44
2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea.....	44

III. KAPITULUA

Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua	47
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----

IV. KAPITULUA

Haurren eskubideak sustatzea: gizartearekiko harremanak eta erakundeen lankidetzak	51
-------------------------------------------------------------------------------------------------	----

1. Nazioarteko sareetan parte hartzea.....	53
2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan.....	54
3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak.....	55
4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak.....	55
5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren onarpenera ospatzea.....	56

V. KAPITULUA

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren 2021eko jarduketaren laburpena	57
-------------------------------------------------------------------------------	----

Aurkezpena

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2021. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorazi nahi dugu, aurtan ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzararentzako egin duen 2021. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek neska-mutilen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago. Lehenengoan, haur eta nerabeen eskubideen gaineko gizarte- eta arau-tesuingurua azaltzen da, horretan jarduten baitu bulegoak.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak erreparatzeko dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluan agirian barrena azaldutakoaren laburpena egiten da, elementu garrantzitsuenak azpimarratuz eta, zenbaitetan, gertatutakoarekin lotura duten joerak eta gogoetak adieraziz.





I.

kapitulua

Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

I. kapitulua

ARAUZKO TESTUINGURUA ETA TESTUINGURU SOZIALA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu ohi da, gizarte- eta arau-testuinguru jakin batean. Testuinguru horri erantzuten ahalegintzen da eta, aldi berean, testuinguru horrexek mugatzen eta baldintzatzen du hori egiteko modu zehatza. Ildo horretan, kapitulu honek helburu hau du: haur eta nerabeen eskubideei dagokienez, nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legerian 2021. urtean gertatu diren berri nagusiak ezagutaraztea.

1. Nazioarteko eremua: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa eta horren garapenak

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

Neska-mutilen eskubideei dagozkien eta horiek bermatzen dituzten nazioarteko hainbat tresna berretsi ditu, horietan aipatzen diren herritarren zati bat direnez (eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, emakumeen eskubideak, desgaituen eskubideak...). Hala ere, haur eta nerabeen eskubideetarako erreferente nagusia [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa \(aurrerantzean, HEK\)](#) da. Hori aho batez onartu zuen [Nazio Batuen Erakundearen \(NBE\)](#) Batzarrak, 1989ko azaroaren 20an, eta Espainiak 1990eko abenduan berretsi zuen. HEK modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da eta, aldi berean, estatuek errespetatzeko, bermatzeko eta betearazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen ditu.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzeko; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika

neurrigabeak jasan behar ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardua partekatua.

Aukerakoak (hautazkoak) baziren ere, Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko (HEH) hiru protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira: [HEHren Hautazko Protokoloa, gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa](#); [HEHren Hautazko Protokoloa, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa](#); eta [HEHren Hautazko Protokoloa, komunikazio prozedura baten ingurukoa](#). Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioten beren eskubideak babesten **espezializatutako** nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2021eko martxoan Umeen Eskubideen Batzordeak inguru digitalean umeen eskubideak babesteko moduari buruzko [25. ohar orokorra](#) argitaratu zuen. Ohar orokor horren helburua da estatuei zuzendutako interpretazio zuzentzarauak ematea Umeen Eskubideen Konbentzioa inguru digitalarekin lotuta aplikatzeko moduari buruz. Beste helburu bat legegintza eta araudi neurriei buruzko orientabideak ematea da umeek eta nerabeek informaziorako eta komunikaziorako eskubidea modu seguruan erabil dezaten.

Umeen Eskubideen Batzordeak uste du inguru digitalak aukera berriak eskaintzen dituela umeen eskubideak eraginkorrak izateko, baina, eskubideen urratzearekin edo gehiegikeriekin lotutako arriskuak ere aipatzen ditu. Inguru digitalean umeen eta nerabeen eskubideak aitortzean bereziki kontuan hartu behar dira hitzarmenaren lau printzipioak (diskriminaziorik eza, umeen interes gorena, bizirautea eta garapena eta entzuna izatearen eta norbere iritzia kontuan hartua izatearen eskubidea), eta horri lotuta, batzordeak estatuari zuzendutako gomendioak ezartzen ditu printzipio horiek eta aplikatzekoak diren neurri orokorrak betetzeko eta horretarako legegintzako, administrazioko eta bestelako neurri asko behar dira, prebentzio neurriak barne.

Batzordea arlo tematiko bakoitzarekin lotuta inguru digitalean umeen eskubideen alde dagoen arren, batzordearen kezka handienetako bat da Interneten umeen aurka egiten

duten indarkeria. Horregatik, estatuei eskatu die umeak babesteko araudia diseinatu eta egikaritzeko, izan ere, zenbait eduki engainagarriak eta kaltegarriak dira eta inguru digita-lean askotariko indarkeria motak sortzen dira, hala nola ziber erasoak, umeen salerosketak edo informazioa lortzeko es-tortsioak. Umeak eta nerabeak babesteko arlo horrekin oso lotuta, batzordeak bereziki aipatu ditu estatuek enpresek in-dituzten betebeharrak (ez da ohikoa izaten), modu horretan, enpresek bete ditzaten umeen eskubideak errespetatzeko betebeharrak eta eragotzi eta konpon ditzaten inguru digita-lean egiten diren eskubideen urraketak.

Batzordeak ohar orokor horretan azaldutako beste kezka nagusia arrakala digitalari eta berdintasun eta diskrimina-ziorik ezaren printzipioa urratzeari buruzkoa da, izan ere, COVID-19aren pandemiak arazo hori areagotu eta azaleratu du. Teknologia digitaletan umeak eta nerabeak ahalduzko balio dezakete eta eskubide zibilak, politikoak, kulturalak, ekonomikoak eta sozialak egikaritzeko lagungarriak izan daitezke. Hala ere, teknologia horiek ume batzuentzat es-ukuragarri egonik ere beste batzuentzat ez baldin badaude, desberdintasun handiagoak sortzen dira beraien artean eta etorkizuneko aukerak horren eraginpean jartzen dira. Hori-xe bera esaten zuen Luis Pedernerak. 2020an batzordeko presidente izateari utzi zion eta Arartekoak antolatutako [Elka-rrizketa ilustratua umeen eskubideei buruz inguru digita-lean](#) izeneko elkarrizketan Susie Alegreekin batera (giza esku-bideetan espezializatutako abokatua) aukerei eta arriskuei buruz hausnartu zuen.

Garrantzitsua da aipatzea gomendio horiek sortzean batzordeak kontsulta prozesua antolatu zuela eta hainbat adin eta herrialdeetako 700 ume baino gehiagoren iritzia kontuan hartu zituela.

Horrez gain, 2021ean atariko lanak ere egin ziren eta Umeen Eskubideen Batzordeak lehen kontsulta aldia ireki zuen umeen eskubideei eta ingurumenari buruzko 26. ohar oro-korra izango dena sortzeko, arreta berezia eskainiz klima aldaketari. Umeak mundu garbi, berde, osasuntsu eta jasan-garrian bizi direla bermatzeko gobernuak erantzule egiteko lan horretan, batzordeak dei berezia egin die umei eta eskatu die aurretiaz hausnartzeko eta beraien iritzia emateko. Horri lotu-ta, Umeen Aholkularitza Lantaldea sortu da eta kideei eskatu zaie azaltzeko zer den beraien ustez gobernuak egin behar dutena umeen eskubideak eta lur-planeta defendatzeko.

2021ean aurreikusita zegoen Umeen Eskubideen Ba-tzordeak Espainian umeen eskubideen hitzarmena betetzearen jarraipen prozesua hastea (VII. zikloa), baina, hitzarmena sinatu zuten estatuei batzordeak egin beha-rreko jarraipenean atzerapenak pilatu ziren COVID-19aren ondoriozko konfinamenduak eta murrizketek areagotuta. On-dorioz, konpromisoen eta zeregin bakoitzerako esleitutako denboren inguruan berriz ere hausnartu zuten. Hala, gizarte zibilak (umeen eskubideak defendatzeko erakundeak, umeen gizarte erakundeak, eta abar) Espainiako estatuari eskatu beharreko gai garrantzitsuei buruzko zerrenda aurkezteko epea hasiera batean azaroaren 1erako ezarrita zegoen, baina 2022ko martxoaren 1erako ezarri zuten agenda berria.

2. Europa: estrategia berria

Mende honen lehenengo urteetan oinarrituta garatutako gizarte inbertsioaren paradigmatik haurtzaroaren gaineko es-ku-hartze publikoa ulertzeko modu berri bat dakar, haurren garapen kognitibo eta emozional onena eta ongizatea fun-tsezko faktore bihurtzen baitira gizarte osoaren epe luzerako kohesio soziala lortzeko. Haurtzaroaren, eta beraz, familien ongizatean inbertitzea da gizarte estatu inbertitzailearen ar-datza. Izan ere, haurtzaroan oinarritutako gizarte inbertsioko estrategia defendatzen da.

Europako erakundeek eredu hori ezarri dute, eta horren adie-razle hurbilena EBren umeen eskubideei buruzko estrategia da ([Batzordearen komunikazioa](#), [1. eranskina](#) eta [2. erans-kina](#)). Lehenengo estrategia orokor hori ezarrita, Europako Batzordeak konpromisoa hartu du umeak eta horien interes gorena Europar Batasunaren politiken erdigunean jartzeko eta horretarako kanpo eta barne jarduketak egingo ditu eta subsidiariorik printzipioa beteko du. Estrategia horren hel-burua da EBren legegintza, politika eta finantzaketa tresna berriak eta —jada badaudenak— esparru global batean mul-tzokatzea.

Estrategiaren helburua hau da: “zaintzea ume guztiek beraien gaitasunak garatu ahal izatea eta gizartean zeregin garrantzitsua izatea, bai ekitatearen eta berdintasunaren alde borrokatzeko, demokrazia bultzatzeko edo trantsizio ekologiko eta digital bikoitza sustatzeko”. Horretarako sei ar-lotan jarduketak proposatu zituen, eta bakoitzean definitzen dira EBren hurrengo urteetako jarduketa lehentasunak.

Lehenengoa umeak ahalduzkoak izateko. Bigarrenaren xedea umeen pobre-ziaren aurka egitea eta inklusiboak diren eta umei egokitu-ta dauden gizarteak eta hezkuntza eta osasun sistemak susta-tzea da. Ardatz horrek gogorarazten du indarrean jarraitzen duela batzordearen 2013ko [gomendioak](#) «Haurrengan in-bertitzea: desabantailen zikloarekin bukatzea» eta [Europako Umeen Bermea](#) ezartzea aurreikusten du, hau da, estu kideei zuzendutako orientabideak eta neurriak ematea pobrezia arriskuan edo gizarte bazterketan dauden ume eta nerabeei arreta emateko. Hirugarrenaren helburua umeen aurkako indarkeriaren aurka egitea eta umeak babestuta daudela bermatzea da. Gainerako hirurak sistema judizialari, gizarte zibilari eta nazioarteko lankidetzari buruzkoak dira.


Hurrengo urteetako Europar Batasuneko estatuetako po-litiken esparrua ezartzeaz gain (ezarriko dutena edo ezarri beharko luketena), estrategia sortzeko prozesuak eta estra-tegiaren edukiak argi azaltzen dute nola aplikatu behar diren Umeen Eskubideen Batzordearen zuzentarau eta orientabide guztiak politika publikoetan umeen eta nerabeen eskubideen ikuspegia txertatzeko.

3. Estatu eta autonomia erkidego eremua

Espainiako legeriaren mugari nagusia [ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa](#) onetsi izana da, umeak eta nerabeak indarkeriaren aurrean guztiz babesteari buruzkoa. Haur eta Nerabeentzako Bulego honek 2020ko txostenean aipatu moduan, arau berriaren xedea da estatu osoan ezartzea haurren eta nerabeen aurkako indarkeriak dakarren eskubide urratzeari lotutako prebentzio eta babes paradigma berria, honako ezaugarri hauek izango dituen:

- Ikuspegi integral bat, dimentsio anitzeko arazoari irtenbidea emateko.
- Prebentzioari lehentasuna ematea, adingabeen aurkako indarkeria saihesteko bide gisa. Haurren eta nerabeen gaitasuna indartzea indarkeria egoerak goiz detektatzeko eta modu egokian erreakzionatzeko.
- Babes neurriak ezartzea bigarren biktimizazioa saihesteko.
- Egungo ereduaren zatikatzea gainditzea, autonomia erkidegoekin lankidetzan arituz.

Euskal autonomia erkidegoan oraindik ez zaio Gobernu Kontseiluari bidali umeen eta nerabeen eskubideen lege berriaren aurreproiektua, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldiko [Legegintza Programan](#) 2021eko bigarren seihilekorako aurreikusita egon.





II.

kapitulua

Eskubideak urratzea?

Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak

II. kapitulua

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisiari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berriazko agiri honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkarriak haute-matea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentzore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2021ean, 454 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %16,4tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (447): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (7).

Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditentetan, erakunde honek bi kasuok zenbatzen ditu:

- Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariak egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Aurten, jasotako kexetatik bat bakarrik egin du adingabe batek, nahiz eta beste batek Bizkaiko haurren partaidetza-organo baten kezkek eta gogoetak helarazi dituen, Arartekoari

beraien ikuspuntuak helaraztea erabaki baitzuen. Gainontze-ko kexak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 11 gizarte-erakundeek egin dituzte; horiek azaldutako egoerek adin txikiko gehiagori eragiten diete.

Gaikako esparruen arabera espeditenteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko mui nagusia osatzen du), ondorengo taulan islatutakoa da:

1. Taula.

Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera

Gai-esparrua	Kop.	%
Bizi-maila egokia: diru-sarrerak eta etxebizitza	212	%47,4
Hezkuntza	125	%28,0
Familiak	33	%7,4
Babesteko gizarte-zerbitzuak	28	%6,3
Osasuna eta alor soziosanitarioa	26	%5,8
Beste batzuk (4 baino gutxiago)	11	%2,5
Jolasa eta kirola	6	%1,3
Atzerriartasuna	6	%1,3
Guztira	447	%100

Iturria: guk geuk egina

Ofizios irekitako espeditenteei dagokienez, kontatutako 7tik 6 portaera-arazo larriak dituzten nerabeak artatzeko programa intentsiboaren inguruan egin den esku-hartzearen esparruan kokatzen dira, 5 babesik gabeko haurrentzako gizarte-zerbitzuen arloko administrazio eskudunei zuzendu zaizkie eta, beste bat, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, neska-mutil horien osasun mentala artatzeari buruz. Arartekoaren ekimenez burututako azken jardura Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari zuzendu zaio, gai honen gainean: administrazio publikoek arautzeko eta plan-gintza egiteko erabiltzen dituzten prozeduretan, haurrengan izandako eraginaren ebaluazio-txostenak gehitzea.

2. Arriskuan dauden eskubideak

2021. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egindako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antzemandako arazoak eta kezak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azal dutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Garatzeko behar duten bizi-maila izateko eskubidea

27. artikulua¹ (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmeneko)

1. Haur guztiek dute beren garapen fisikoa, mentala, izpirituala, morala eta soziala bultzatuko duen bizi-maila izateko eskubidea, eta estatu kideek hori onartzen dute.
2. Gurasoek edo haurra zaintzen dutenek haurrari bere garapenerako beharrezkoak diren baldintzak eman behar dizkiete, beti ere bere ahalbide eta diru-baliabideen arabera.
3. Estatu kideek, estatuko baldintzen eta dituzten baliabideen arabera, guraso edo haurren erantzukizuna dutenei laguntza emango diete eskubide hau bermatu dadin, eta beharrezkoa bada laguntza materiala eta laguntza-programak bideratuko dituzte, batez ere elikadura, jantzi eta etxebizitzaren arloan.

Nekez zehaztu daiteke zenbat haur eta nerabe bizi diren prekarietasun ekonomiko edo pobrezia egoeretan, eta nekez zehaztu daiteke, halaber, zenbat haur eta nerabe dauden oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituztela dioten familien espedienteetan. Espediente horietako askotan, zehazki dakigu bizikidetz-unitatean adingabe bat edo gehiago daudela, baina ez daukagu datu hori espediente guztietan. Horregatik, aurten ere zenbatespenaren baliabidea erabiliz eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten eta seme-alaba adingabeak dituzten bizikidetz-unitateen ehunekoa (%28,57) erakunde honek prestazio ekonomiko horri buruz izapidetu dituen espedientei (483) aplikatuta, ondorio hau atera dugu: 138 familia (horietan ez da harrizkoa adingabe bat baino gehiago egotea) estutasun ekonomiko larrian bizitzen ari direla. Kopuru horri etxebizitza arloko 74 espediente gehitu behar zaizkio; espediente horietan berariaz adierazten da haurrak daudela tartean, eta beraien bizitokiak gabezia handiak dituztela (hori beren bizimoduaren baldintza materialen funtsezko zatia da).

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren Eskubideei buruzko Konbentziokoak dira (Nazio Batuek, 1989).

2.1.1. Arauzko testuingurua eta testuinguru soziala

2020ko txostenean aipatu zen ez zegoela COVID-19aren pandemiak umeen ongizate materialean sortutako inpaktuari buruzko daturik, eta bereziki interesgarria izango litzatekeela informazio berria arretaz jarraitzea.

Maiatzean aurkeztu ziren [2020ko pobrezia eta gizarte desberdintasunen inkestaren](#) emaitza nagusiak. Horien artean nabarmentzekoa da umeen pobrezia eta desberdintasunen intzidentzia gehitu izana, baina, hala ere, Euskadiko pobrezia errealaren tasa orokorrak gutxitzea (%6,1 2018an eta %5,6 2020an):

“...14 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien zati baten bizi-baldintzak pandemian zehar narriatu izanaren ondorioz, benetako pobrezia gorakada garrantzitsua izan du 14 urtetik beherakoak dituzten etxeetako biztanleen artean. Hala, 2020an kolektibo hori %10,7ko benetako pobrezia tasara iristen da, 2008az geroztik izan den handiena.

Pobrezia-egoeran dauden pertsonen multzoan, 14 urtetik beherakoak dituzten etxeetako biztanleria 2018ko %50,2tik (2008az geroztik izan den zifrarik txikiena) %57,6ra igotzen da 2020an. 2012-2020 aldiko proportziorik handiena da: 2008an izan zuen %63,1aren azpitik bakarrik geratzen da.” (56 orr.)

Hainbat azterlanetan egiaztatu ahal izan denez, prekarietasun egoerek epe labur, ertain eta luzeko eragina dute haurren bizi baldintzetan, beren bizi itxaropenetan eta garatu eta integratzeko aukeretan. Gure gizartean, gaur gaurkoz, oinordetza sozialak eragin oso handia du pertsona bakoitzaren aukeretan. Ondorioz, pertsonen bizi aukerak, funtsean, beren familiek haurrei beharrezko gaitasun ekonomiko, sozial, kultural, kognitibo eta harremanezkoa emateko duten gaitasunaren arabera dira. Gauzak horrela, egoera hori aldatzeko nolabait esku hartzen ez bada, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmitituko da, oinordetza txar baten antzera, haurren eta nerabeen eskubideak larriki kaltetuz.

Save the Children erakundeak berriz ere aipatu zituen pandemiak ume zaurgarriengan sortutako gizarte eta ekonomia inpaktu larriak, eta horretarako GAD aholkularitzak erakundearentzako egindako [“Pandemiaren inpaktua ume zaurgarriengan”](#) inkestaren datuak erabili zituen. Euskadin pobrezia edo zaurgarritasun egoeran (hileko 900 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak) dauden eta kargupean seme-alabak dituzten familiak dira argi eta garbi pandemiaren ondorio larrienak jasan dituztenak. Familia horien artean, kargupean umeak dituzten etxe zaurgarri %77ren diru-sarrerak erdira gutxitu ziren, erdiak (%54) enplegua galdu zuen eta lautik bat (%24) ABEEen dago. Datu horiek umerik gabeko familien egoerarekin kontrastatzen dira. %31ren diru-sarrerak gutxitu egin dira, %16k enplegua galdu zuen eta %12 ABEEen dago.

Inkestak erakusten du baita ere Euskadin kargupean seme-alabak dituzten eta pobrezia egoeran dauden familiak argi

eta garbi kalte gehien sufritu dituztenak direla Gabonak presatatu eta disfrutatzeari dagokionez: kargupean umeak dituzten familia zaurgarrien artean, 4tik ia 3k (%70) zailtasunak izango ditu seme-alabei opariak erosteko eta 3tik 2k (%60) afari berezi bat egiteko. Familia horien erdiak (%54) esfortzu handiak egin beharko ditu baita ere berotzeko arropa erosteko.

Datu horiek koherenteak dira Eusko Jaurlaritzako [Lan eta Enplegu Sailak](#) diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzak unitateei buruz emandako datuekin. Informazio horren arabera, 2020ko abenduaren 31n diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetzak unitateen %28,57k adingabeak zituen beren kargu. Familia horien kasuen erdia baino gehiago Bizkaian (%55,8) zegoen, ia laurden bat Gipuzkoan (%23,4) eta %20 baino zerbait gehiago Araban.

Bizikidetzak unitate horietan dauden ume eta nerabeak 25.767 dira, hau da, Euskadin errolatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000² biztanleetatik %6,45. Beste [azterketa](#) batzuetan adierazitako moduan, diru-sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten baditu pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguru, zenbatetsi ahalko genuke Euskadiko 38.650 haur eta nerabe (%9,67) bizi direla prekaritate ekonomiko eta materialeko egoeran, eta arrisku handian dagoela beren garapenerako bizitza maila egoki bat izateko eskubidea.

Bestalde, 2021eko urriaren 14an errelatore bereziaren [txostena](#) argitaratu zen. Horren arabera, etxebizitza egokia bizitza maila egokia izateko eskubidearen osagai bat da eta diskriminazio ezaren eskubidea ere jorratzen zuen, zeinak etxebizitzaren testuinguruko diskriminazioa aztertzen duen.

Legeria testuinguruari dagokionez, aurten gizarte eskubideetan garrantzitsua delako azpimarratu behar den alderdietako bat da [Europako Gizarte Gutuna \(berrikusitakoa\)](#) berretsi izana; Europako Kontseiluaren araudi tresna da eta 2021eko uztailaren 1ean indarrean jarri zen.

Bizitzeko gutxieneko errenta ezartzen duen [abenduaren 20ko 19/2021 Legea](#) onetsi zen. Lege horren jatorria maiatzaren [29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua](#) legegintza proiektu gisa izapidetzea da, eta indarrean jartzen denetik aurrera prestazioan jasotako zenbait aldaketa gehitzen ditu, baita ere kargupean adingabeak dituzten prestazioaren onuradunei zuzendutako umeen laguntzaren osagarria. Hileko osagarri horren zenbatekoa bizikidetzak unitateko ume kopuruaren eta dagokion ekitaldiko urtarrilaren 1ean ume horiek zuten adinaren arabera ezartzen da eta tarte ezberdinak ditu (zenbatekoak gehitzen dira): zehazki, 3 urte baino gutxiagokoak, 3 eta 6 urte bitartekoak eta 6 urte baino gehiagokoak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko [abenduren 23ko 18/2008 Legea](#)ri dagokionez, oraindik ere egiteko dago aurreikusitako araudi aldaketa (baina 2021ean idazkuntza prozesua asko aurreratu da), baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria-

ren prestazioak arautzeko dekretuaren araudi egokitzapena ere. Alderantziz, 2021ean azkenik argitaratu da Hutsik dauden etxebizitzaren eta etxebizitzaren gizarte funtzioa betetzeko [ekainaren 8ko 149/2021 Dekretua](#).

[2021eko urtarrilaren 21eko Europako Parlamentuaren Ebazpenean](#), guztientzako duina eta eskuragarria den etxebizitza izateari buruzkoan, estatuei eskatzen zaie ekonomikoki eskuragarriak diren etxebizitza publikoetan inbertsio gehiago egiteko. Horri lotuta, eskuragarritasuna zorrozki definitzeko beharra dago. Edonola ere, etxebizitza bat eskuragarria izanago da bere errentariaren aurrekontu soberakina gutxienez nahikoa denean bizitza duin bateko oinarritzko gastuak ordaintzeko.

[Hipoteka egikaritzeen eta kaleratzeen](#) inguruan Arartekoak kezka azaldu ditu urtez urte, eta [urtarrilaren 19ko 1/2021 Errege Lege Dekretuak](#) 2020an onetsitako beste araudiari gehitu zizkien ([martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua](#) eta [abenduaren 22ko 37/2020 Errege Lege Dekretua](#)) prozedura penala kausatzat zituzten kasuak, eta azkenean [urriaren 26ko 21/2021 Errege Lege Dekretuak](#) luzatu egin zituen gizarte eta ekonomia zaurgarritasun egoerei aurre egiteko gizarte babeseko neurri guztiak 2022ko otsailaren 28ra arte.

Antzeko helburuekin, [2021eko urriaren 26ko Aginduak](#) etxebizitzaren prozedura eteteen eta bizitoki aukerarik gabeko etxe zaurgarrien kaleratzeen eraginpeko errentatzaile eta jabeentzako laguntza ekonomikoan lerro bat arautu zuen Euskadin.

Bukatzeko, eta iaz hasitako bideari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuak 2021erako etxebizitza libreen alokairurako laguntza ekonomikoak arautzen dituen [2021eko apirilaren 13ko Agindua](#) onetsi zuen.

2.1.2. Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean

a. Diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin zerkusia duten kexak

2021ean, aurreko urteko txostenetan aipatu moduan, berretsi behar da garrantzitsua dela **Lanbideko bulegoek** arrisku-egoeran edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako **informazioa eta komunikazioa** hobetzea.

Arartekoaren herritarren arretarako bulegoetan kezka ikusten dugu Lanbideko erabiltzaileek ez dutela oinarritzko izapideei buruzko informaziorik eta ez dutela informazio nahikorik bete behar dituzten betebeharrak buruz. Gainera, zailtasun handiak dituzte jakinarazpenak ulertzeko, batzuetan ez dituztelako hizkuntza koofizialak maila horretan menperatzen. Horregatik guztia eragatik izapideak, betebeharrak edo entregatu beharreko agiriak zeintzuk diren ulertzen akatsak gertatzen dira eta gainera, Lanbideko bulegoetara behar direnak baino bisita gehiago egiten dira eta kasu larrietan prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eten edo azkendu egiten da.

² 0-19 urte bitarteko biztanleriaren pisua Euskadin %18,23koa da 2021eko urtarrilaren 1ean, eta 399.734 pertsona dira. Eustatek jasoa. Biztanleen udal estatistika.

Erakunde honi jakinarazi zaionaren arabera, Lanbideko bulegoek herritarren informazioa eta arreta hobetzeko proposamenak martxan jarriko dituzte, eta neurri hori aldekatuz jotzen dugu.

Ikusirik DSBEaren titular eta onuradun direnen zaurgarritasun larria, Arartekoaren ustez guztiz garrantzitsua da pertsona horiek inguruabar pertsonalei eta hizkuntza interpretatzeko beharrei erantzun ahal izateko informazio egokia jasotzea. Arreta hobetzen denean kontuan hartu beharko dira arrakala digitalari aurre egiteko administrazio elektronikotik eratorritako eskakizun berriak.

Berritasun gisa, aurtan **bizitzeko gutxieneko errentaren (BGE)** emakida-ebazpenak eta horren izapidetzean informazio- eta dokumentazio-eskakizunak jaso ditugu. Arartekoak Herriaren Defendatzailearen bulegora bidali ditu 2020ko irailan kudeaketa-gomendioa sinatu aurretik entregatutako eskariak. Kudeaketa-gomendioa ezarri ondoren, BGEaren eskariaren ebazpenaren atzerapenari buruzko kexak izapidetu dira, eta horrek gehitu egin ditu BGEari berari edo laguntza horrek DSBEarekin eta bestelako prestazio ekonomikoekin duen bateragarritasunari buruzko kontsulta- eta kexa-kopurua.

Aurtan **kexa-espeditente gehiago konpondu dira**, bai izapidetze-prozesuan bai berraztertzeo aukerako errekurtsuaren fasean. Horietako batzuk bereziki eragiten diete seme-alabak dituzten familiei.

Halakoa da kasu hau: Lanbidek emakume bati DSBEa amaitu zion, bere ustez, ez baitzen baliarazi seme-alaben elikagai-pentsioaren eskubidea, izan ere, ez zuen aurkeztu elikagai-pentsioen kobrantza-agiria hitzarmen arautzailean jaso bezala, baina, pensioa diruz ordaindu zuela egiaztatu zuen. Pentsioaren kobratzea agerian utzi ondoren, Lanbidek DSBEaren ordainketa martxan jarri zuen berriz ere. Kexa-arrazoi horrek espeditente gehiagori eragin die baita ere, eta adibidez, batzuk konpondu egin ziren Lanbidek egiaztatu zuenean pensioaren zenbaketa baliozkotzat jo zela DSBEaren beste espeditente batean bi gurasoak jasotzaileak zirenean. Horrelakoa da **2021eko otsailaren 16ko Arartekoaren Ebazpeneko** kasua ere (ebazpen hori azkenean onartu egin zen).

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen inguruabar bereziak jorratu zituen Arartekoak **2020ko urtarrilaren 10eko Ebazpenean**. Ebazpen horretan, erakunde honek gomendatzen zuen kontuan hartzeko emakumeek sufritzen duten indarkeria matxista DSBEaren titular izateko betekizuna interpretatzean eta eduki ekonomikoa duen eskubide bat baliatzearen betebeharrean, eskatuz bere bikotekide ohiari galdatzeko pensio osagarria edo elikagai-pentsioa. 2021ean kexa-espeditente batzuetan egiaztatu dugu Lanbidek baloratu egin dituela genero-indarkeriaren biktimak izatea. Hala, espeditenteetako batean ezeztatu egin du 22.302,97 euroko zor bat, eta beste batean 28.288,92 eurokoa.

Beste zenbaitetan, ordea, Arartekoa eta Lanbide **ez dira ados egon araudia interpretatzean**. Arartekoak **2021eko urriaren 13ko Ebazpenean** aipatu zuen ezin dela aldi bate-

rako mugatu, barne-izaera hutseko tresnen bidez, indarreko araudian ezarritako adingabeak ardurapean dituen bizikidetzaren unitate berezitat hartzea.

b. Etxebizitzari buruzko eskaerak

Beste alde batetik, ezin zaio ekin pobrezia errealeko egoerari, pobrezia pairatzeko arriskuan edo ongizaterik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeen errealtateari buruzko Arartekoaren jardunaren atal honi **etxebizitzaren** esparruan egindako esku-hartzeak aipatu gabe.

Aurreko urteetan bezalaxe, herritarrek behin eta berriz egin dituzte gai honi buruzko kexak eta kontsultak: **premia babes publikoko etxebizitza bat alokairu erregimenean behar dutela**, eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ez diela behar bezala erantzuten beraien eskaerei. Ildo horretatik, Arartekoa arduratuta dago babes publikoko etxebizitzaren eskatzaile kopuruaren igoerarekin. Izan ere, **Etxebizitzaren Euskal Behatokiak** (2020ko datuei buruz) 2021eko irailean argitaratutako **txostenaren** arabera, Etxebide Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan dagoeneko 76.640 inskripzio egin dira. Horietatik, 59.792k alokairuko etxebizitza bat eskatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Beraz, eskaera guztien %75 dira babes publikoko etxebizitza alokatzeko eskaerak.

Hala eta guztiz ere, **argitaratu diren azken datuen arabera**, 2019an, alokairu parke babestua 23.594 etxebizitzek osatzen zuten. Datu horrek, aurtan ere, agerian uzten du herritarrek behar dituztenak baino askoz etxebizitza gutxiago dauzkate- la eskura administrazio publikoek.

Hori horrela, 2021dan, Ararteko erakundeak hainbat erreklamazio jaso ditu, eta, egiaztatu diren kalteberatasun egoera bereziak direla eta, hainbat udaletako gizarte zerbitzuek etxebizitzaren ezohiko adjudikazioa proposatzea erabaki dute.

Apartatu honetan, Arartekoak, Dulantziko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egindako jarduketa azpimarratu nahi du. Zehazki, **Arartekoaren 2021eko uztailaren 28ko Ebazpenaren** oinarria izan zen erreklamazioan, erakundeak familia baten premia larriaren egoera aztertu zuen. Familia hori etxebizitzatik berehala atera behar zen eta ez zuten bizitzeko beste lekurik. Hori gutxi balitz, 6 kideko familia horretan 4 adingabe zeuden.

Erreklamazioa izapidetu zuenean, Arartekoak egiaztatu zuen Dulantziko Udaleko gizarte zerbitzuek, **Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean** aitortutako eskumenak egikaritzu, Etxebizitza Sailburuordetzari eskatu ziotela familia hori etxebizitza bat adjudikatzeko, izan ere, behar bezala egiaztatutako ez-ohiko inguruabarrak gertatu ziren.

Azkenean, erakunde bien arteko koordinazioari esker, kexagileak eta bere bizikidetzaren unitateak gaur egun babes publikoko etxebizitza bat dute alokairu-araubidean.

Horrelako erreklamazioak direla-eta, Arartekoak jakinarazi nahiko luke beharrezkoa dela udaletako gizarte zerbitzuen

eta Etxebizitza Sailburuordetzaren arteko koordinazioa ego-
tea, horrela, inork nahi ez duen ohiko etxebizitza galtzearen
egoerei irtenbide egokia eman ahal izateko.

Aurten ere zenbait pertsonaren kexak aipatu behar dira.
Pertsona horiek errentan hartu zuten babes publikoko
etxebizitza bat, baina etxebizitzak ez zuen betetzen familia
unitateko kide bakoitzeko 15 m²-ko ratioa eta, beraz, ber-
tan gehiegizko okupazioa zegoen; horrela bada, ez dute
baliatzerik izan **etxebizitza duin, egoki eta ekonomikoki
eskuragarria izateko** eskubide subjektiboa.

Horri lotuta, Arartekoak **2020ko abuztuaren 6ko Ebazpenean**
aztertu zuen hiru kideko familia bat birkokatzeko eskariaren
ukapena (bizi ziren etxebizitzak logela bakarra zuen). Ararte-
koaren ustez, botere publikoek etxebizitza duin eta egokia
eskuragarri izatea sustatzeko duten betebeharrak bere gain
hartzen ditu kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak anali-
zatzearen beharra eta bizikidetzaren unitatearen ezaugarriekin
bat datorren bizitzeko irtenbide bat eskaintzearena. Hala
ere, 2021eko apirilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde
Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak ukatu egin zituen
Arartekoaren gogoetak.

Ondorioz, Arartekoak berretsi du bai etxebizitza-arloko lur-
ralde-ordezkaritzek bai **Alokabide** sozietate publikoak eta
Bilboko Udaleko Udala Etxebizitzen tokiko erakunde auto-
nomoak nagusiki, modu indibidualizatuan aztertu behar
dituztela birkokatzeko eskatzeko arrazoiak. Hori guztia, etxe-
bizitza duin eta egokia izateko eskubide subjektiboa betetzea
bermatzeko, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Le-
gearen xedapenak betez.

Era berean, beste urte batez ere, Arartekoa kezkatuta dago,
izan ere, **indarrean dagoen araudian jaso gabeko beteki-
zun berriak gehitu dira**. Zehazki, erakunde honek ikusi du
gainokupazioa dagoela egiaztatu den kasuetan Alokabide
sozietate publikoak alokairu-kontratua bukatzearen menpe
jartzen duela birkokatzeko. Gainera, aztertutako zenbait kasu-
tan, alokairua bukatzeko urte batzuk falta ziren.

Laburbilduz, etxebizitza babestuen parkeko etxebizitza
aldatzeko eskatzen zuten errentarien kopurua geroz eta
handiagoa dela ikusita, erakunde honek ohartarazi nahi du
“etxebizitza-ibilbideei” buruzko araubide berriaren sakon-
du beharra dagoela, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko
3/2015 Legearen 39. artikuluan agindutakoaren babesean.
Halaber, sumatzen denez, komenigarria izango litzate-
ke administrazio publikoek, logela premiari lotutako beste
egoera batzuei erantzutea alde batera utzita, behar diren
baliabideak jartzea etxebizitza babestuaren ibilbideak gau-
zatu daitezkeen eta babes publikoko etxebizitzak pertsona eta
familia errentarien beharretara egokitu daitezkeen bizitzeko
etapa guztietan.

Bukatzeko, etxebizitzarako prestazio ekonomikoari da-
gokionez, **2021eko ekainaren 14ko**, **2021eko abuztuaren
16ko** eta **2021eko azaroaren 24ko** ebazpenetan (horietan
azaltzen diren egoeretan, eragindako adingabeak daude
bizikidetzaren unitateetan), Arartekoak behin eta berriz azaldu

zuen beharrezkoa dela berrikustea etxebizitzaren prestazio
ekonomikoaren jasotzaileei eskatzen zaizkien betebeharrak
zeintzuk diren eskubide subjektibo hori aitortu edo man-
tentzeko, baita ere oker jaso ziren eta Etxebizitzako lurralde
ordezkaritzek eskatuta hasi ziren prozeduretan. Hala ere,
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Ga-
rraio Sailak ez ditu kontuan hartu Arartekoaren gogoetak.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. *Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...).*

29. artikulua

1. *Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:*
 - a) *Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;*
 - b) *Giza-eskubideei eta oinarrizko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;*
 - c) *Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunaren-
ganako, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den
estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko
baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibili-
zazioarenganako errespetua irakasteko haurrari;*
 - d) *Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpi-
rituarekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen
berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional,
erlijioso eta indigena jatorria duten guztiekin adiski-
detasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;*
 - e) *Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua ira-
kasteko.*

2.2.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Osasun krisiak eta COVID-19ak eragindako **infekzioak
hedatzeari eusteko neurriak** berriz ere eragin nabarmen-
a izan dute hezkuntza jasotzeko eskubidea baliatzean eta
hezkuntza-zerbitzuari lotutako estamentu eta prestazioetan:
ikasleak, familiak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako
langileak, zerbitzu osagarriak (garraioa eta jantokiak).

COVID-19aren gaixotasunaren intzidentziaren bilakae-
rak eragiten duen ezjakintasun-maila handiaren ondorioz,
zenbait zehaztugabetasunek kalte egiten diete pandemia-
egoerari aurre egiteko hezkuntza-administrazioak hartutako
neurriek; aldi berean, zehaztugabetasunak positiboak ere
izango lirateke, kasu zehatz bakoitzaren, hezkuntza-mailaren
eta ikastetxeen ezaugarrien arabera modulatzeko ahalbide-
tzen duten neurrian, eta, azken finean, administrazioaren
esku-hartzea errazten dute gertaerara egokitu daitezkeen
terminoetan.

Horren haritik, unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren sektorean, eta 2021-2022 ikasturte akademikora begira, Eusko Jaurlaritzako [Hezkuntza Sailak](#) 2021eko urriaren 7an [protokolo orokorraren](#) eguneraketa onartu zuen, lehentasunezko aukera gisa hezkuntza jasotzeko eskubidea aurrez aurreko modalitatean sustatzen jarraitzeko planteamendu argiarekin, txertoak iritsi eta txertatze-kanpainak hasi eta hedatzeak bultzatuta.

Halaber, 2021-2022 ikasturte akademikoarekin lotutako mugari gisa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta unibertsitateen akordioa nabarmendu behar da. Akordioa pandemiaren aurreko egoerara itzultzeko erabakian kokatzen da, eta 2021eko urriko lehenengo hamabostaldian zehar egitea zehaztu zen, ikastetxe, titulazio eta irakasgai guztiei dagokienez; hala ere, ez zen baztertu ondoren beharrezkoak izan zitezkeen egokitzapenak egitea.

2021. urte amaieran COVID-19aren seigarren olatuak eragindako gaixotasunaren intzidentziaren datu berriek eztabaida irekitzea ekar dezakete, hezkuntza-esparruan hartu beharrezko erabakien inguruan.

Gaixotasunak ikastetxeetan eragin dituen ondorioak, ikasle zein irakaslearen artean sortutako kutsatze-kasu ugariaren ondorioz ohiko jarduna bertan behera utzi behar izan dituzten ikasgelen kopuruaren gorakada ikusita, prebentzio- eta babes-neurriak indartzeko beharra edo zenbait jarduera ez-funtsezko bertan behera uztea planteatu dute.

Bestalde, 2021eko azken hilabeteetan egitasmo berritzaileak sortu dira, begirada **Hezkuntza Lege berria** onartzean jarriz.

Egitasmo horien artean nabarmendu behar da, batetik, proiektuaren esparruan [Eusko Ikaskuntzak](#) sustatutako sinposioa egin zela: “[Hezkuntza sistema: etorkizuna elkarrekin lantzen](#)”. Euskal hezkuntza-sistemarekin lotutako eztabaida-espazioa irekitzea izan du helburu, herritarrekin, hiru hausnarketa-ardatzen inguruan (Hezkuntza, aniztasuna berdintasunean / Hezkuntzaren antolaketa / Hezkuntza ezagutzaren gizartearen); euskal hezkuntza-sistemaren liburu zuria modu kolaboratiboan idaztea izan da xede nagusia.

Nabarmendu behar da [Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza Batzordearen barruan ponentzia bat](#) eratu zela, eta horri esker euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunaz adostasun zabala lortzeko oinarriak definitu nahi dira. Ponentzia horren ondorioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera igorriko dira, Euskadiko etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarria eratzeke.

Estatu mailari dagokionez, nabarmendu behar da [azaroaren 16ko 984/2021 Errege Dekretua](#) onartu dela, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta promozioa arautu dituen, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ebaluazioa, promozioa eta sustapena ere. Oinarrizko xedapen bat da, eta aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa onartzean hasitako hezkuntza-sistema berritzeko prozesuan; lege horren bidez [Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa](#) aldatu zen.

2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

2021. urtea, jarraitutasun-urtea izan da, eta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiak eragina izan du, berri ere eta maila nabarmenean, gainera, hezkuntza jasotzeko eskubidea baliatzean.

Auziaren egoeraren inguruko berrikuntzak etengabe iritsi dira: txerto motak eta haien eraginkortasuna, kaltetutako populazioaren zifrak, kanpainaren helburuko segmentuak eta egutegiak, eztabaidak txertoak nahitaezkoak ez izatearen inguruan, birusaren aldaerak, hartu beharrezko dosiak, aski babes juridikorik gabe hartutako neurriak eta abar; horrek denak azaltzen du gizarte irekietan, gurea bezalakoetan, herritarrek kexak aurkeztea eta kontsultak egitea; horrek, aldi berean, fenomenora gerturatzean pertsona bakoitzak dituen ikuspegiaren aniztasuna argi uzten du.

Adierazitako ikuspegitik, erakundera jotzen dute bai ezarritako neurriak permisiboegiak direla ulertzen dutenek, kontrol-mekanismoak tinkoagoak izatea eskatuz, bai neurriak zorrotzegiak eta gogorregiak direla uste dutenek, malgutzea planteatuz. Bi horiek izango liriteke hezkuntzaren esparruan eztabaida-espazioa zedarritu dituzten mugak, eta argi uzten dute, esan bezala, inguruan daukagun aniztasuna.

Bestalde, aurreko puntuan adierazi bezala, 2021. urtean sortu diren zenbait egitasmoren kasuan, eztabaidetan parte-hartze zabala sustatzeko ahalegina egin da, egitasmo horiekin etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarriak ezarri nahi baitira. Eztabaida horietan aztertutako gaietako batzuk bereziki kezkarriak dira Ararteko erakundearen aburuz, kexak eta jarduteko eskaerak behin eta berriz eragiten dituztelako, azken urteetako txostenetan jaso den moduan. Besteak beste, **eskola-segregazioa** da horietako bat.

Hain zuzen ere, hurrengo atalean, garrantzi berezia duten kexa batzuk nabarmendu dira. Bertan, idatziz jasota utzi nahi izan dugu erakunde honek 2019an egindako gomendioaz egin duen jarraipen-lana. Gomendio hori funts publikoak jasotzen dituzten Ordiziako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek eskolatzea aztertu ondoren egin zen.

Horri dagokionez baieztatu behar da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak beti jakinarazi digun arren jasotako gomendioa betetzeko asmoa duela, sail horrek, praktikan, ez duela hartutako plangintza-erabakien ebaluaziorik egin, eta ez duela ikasleek banaketa orekatuagoa lortzen lagundu ahal duen neurri zuzentzailearik hartu.

Hala ere, sustatutako egitasmo berrien ondorio gisa, Sailak estrategia berrien aldeko apustu tinkoa egitea espero du Arartekoak, nahitaez lotuta egon beharko dena hezkuntza-plangintzarekin eta ikasleek onartzeko arauarekin, eskola-mailako segregazio eta/edo desorekaren egoerak iraultzea ahalbidetuko duena.

Ordizia udalerraren errealitateak, halaber, oraindik martxan dagoen beste ekimen bat sortzea ere ekarri du, eta

nabarmendu beharreko egitasmoa da, **ekimen pribatuko ikastetxe itunduen** inguruan sortutako beste eztabaida batekin duen loturagatik.

Ekimen horren sustatzaileek Arartekoari eskatu diote azterketa bat egin dezan Ordiziako Udalak dagoeneko ituna duten ikastetxeei ematen dien finantzaketaren inguruan. Erakunde honen aburuz, jokatzeko modu hori ezin da indiferentetzat jo kontuan hartuz zein egoera delikatu dagoen udalerrira ikasleak funts publikoekin mantendutako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskolatzean duten desorekari dagokionez. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak berak izan dezakeen eta izan behar duen betebeharraren gainean ere arreta deitzea beharrezkotzat jo da.

Kexa eta eztabaida ugari sorrarazi dituen beste gai bat hezkuntza-sisteman **hizkuntza koofizialek duten tramenduari** eta hizkuntza-ereduen sistemak behar duen berrikusketari dagokio. Arartekoak, aurrean ere, A hizkuntza-ereduko hezkuntza-eskaintzarik eza salatu duten familien kexei erantzun behar izan die.

Jarduteko aukerak aztertzean, Arartekoak beharrezkotzat jo du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari jakinaraztea familia horiek planteatutako eskolatzeko eskariei erantzuteko modua aztertu behar dela; izan ere, gaztelania irakaskuntza-hizkuntza gisa baztertu ezin dela adierazi duten azken adierazpen judizialek indartu egin dute aipatutako familien zilegitasuna.

Baina, lehen kexa horiez gain, zalantza izpirik gabe garrantzia dutenak eta bereziki kezkarriak direnak erakundearen aburuz, Arartekoak beste kexa batzuen errealitatea ezagutzeko parada izan du; kexa horiek izapidetu eta ondoren txosten honetan jasotzeko esker etorkizunean hobekuntzak etortzea espero da.

Hala gertatzen da ikasleak onartzeko kasuetan, nabarmendutako kexen atalean jasotakoak. Kexa hori aipatzean arreta deitu nahi da ikasleak onartzeko dagokionez onartutako araudiak berak eskaintzen dituen aukeren inguruan, onarpen-aldi arruntetik kanpoko eskolatzeko-kasuetan; hezkuntza-administrazioak ez ditu beti erabiltzen.

Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea oraindik ez dela behar bezala bete erakunde honek bere garaian **Haurreskolak** Partzuergoko gerentziari helarazi zion **gomendioa**, irakaskuntzako bitarteko funtzionarioen funtzioak aldi baterako etetearen egoera parekatzeko eszedentzia egoerarekin, haurrak **onartzeko irizpideen** inguruko araudian guraso edo tutore legalen lan-egoerari dagokionez xedatutako puntuazio-ondorioetarako. Nolanahi ere, gerentziak adierazi du aipatutako araudia aldatzeko laster ekiteko asmoa duela.

Bestalde, **hezkuntza-premia bereziak** dituen ume bat eskolatzeko baldintzei buruzko kexa bat izapidetzearen ondorioz erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari azaldu dio ikasle horiei eskaintutako hezkuntza-eskaintzaren inguruko hausnarketa egin behar dela, **Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak** adierazitakoa ikusita; hala, hezkuntza inklusiboa lantzean, gogorarazi

nahi izan denez, *“el derecho a la no discriminación incluye el derecho a no ser objeto de segregación”*, horren ondorioz, gomendatu da ezabatzea *“toda segregación educativa de estudiantes con discapacidad, tanto en las escuelas de educación especial como en las unidades especializadas dentro de las escuelas ordinarias”*. Horren haritik, Protokolo Fakultatiboko 5. artikulua dela bide Batzordeak onartutako irizpena aipatu behar da, 41/2017 komunikazioari dagokionez (CRPD/C/23/D/41/2017).

Komenigarritzat jo dugu berriz ere I motako diabetesa daukaten ikasleei ematen zaien arretaren inguruan erakundeak egiten duen esku-hartzea nabarmentzea; kasu horretan, nahitaezko aurrekariak izan dira **51/2019** eta **32/2021 lege besteko proposamenak**.

Jarduketa hori martxan zela onartu da **I. motako diabetesa duten ikasleei eskola-eremuan arreta emateko protokoloa**. Protokolo horrek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin adostutako jarduketa-ibilbide bat ezartzeaz gain, gaixotasun horren tratamendua zein zutabetan oinarritu behar den ezarri du, eta horien artean dago elikadura.

Hain zuzen ere, hori dela bide Arartekoak nabarmendu nahi izan du hobekuntzak sartu behar direla bai **eskolako jantokien** funtzionamenduari buruzko zirkularrean, bai zerbitzuaren lizentziaren oinarri gisa funtzionatzen duten plegu teknikoetan, betiere ikasleei banakako dieta pertsonalizatua bermatua izateko.

Hobekuntzak lortzearen inguruko kasu edo adibide argi bat **Datuen babesa hezkuntza-eremuan**. Gidaliburu azkarra argitalpena da. Erakundearen zenbait esku-hartzeren ondoren argitaratu zen gidiliburu hori, eta gaur egun herritarrek ematen duten kontsulten inguruan erantzuna ematea ahalbidetzen du.

2.2.3. Kexarik aipagarrienak

- a. **Ikasleak onartzea. Salbuespeneko eskolatzeko-kasuek, onarpen-prozesu arruntetik kanpo, familia-harrerako arazoak direla medio**

Familia batek harreran zegoen neskatu bat eskolatzeko eskaera egin zuen, hain zuzen ere haien semeak ikasten zuten ikastetxe berean eskolatzeko. Eskaerak neskatoaren jarrera egin zuten teknikarien babesa zeukan; izan ere, teknikari horiek adingabea ikastetxe berri horretara joatearen alde agertu ziren, hala, batetik, ama biologikoari ezarritako urrutze-agindua zaintzea bermatzen saiatzeko eta, bestetik, harrera-familiaren bateratze-beharrizanak errazteko.

Lehenengo erantzun batean, hezkuntza-aginteek eskaera hura ezetsi zuten, ikastetxean ez zegoelako plaza liberik eta ikasleen itxaron-zerrenda zegoelako. Lehenengo ezezko haren ondorioz familiak kexa aurkeztu zuen erakundearen, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duen **urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan** babestuz.

Kasuren inguruabarrak aztertu ondoren, Arartekoak ulertu zuen familiak planteatutako eskaera ezin zuela lehenago egindako onarpen-prozesu arruntaren emaitzak baldintzatu; hortaz, eskaera hura ezin zen ikasleak itxaron-zerrendan egotearen mende egon. Horren haritik, Arartekoak ahalegin berezia egin zuen aipatutako prozesu arrunt horrekiko modu independentean ebatzi beharreko eskaera zela nabarmentzeko, otsailaren 19ko 1/2018 Dekretuko 22. artikulua eta hurrengoak eskaintzen dituzten aukerekin bat etorritik, ratioa gehienez ehuneko hamar areagotzeko aukera berariaz aurreikusitako baitzen, besteak beste, onartzeko prozesu arrunta bukatu ondoren familia-harrera kausak direla medio lekualdatu behar duten ikasleak eskolatzeko, hizpide dugun kasuan gertatu zen moduan.

Kexaren hasierako azterketa zela medio erakundeak plazaratutako oharra jaso zituzten hezkuntza-aginteei, eta, azkenean, neskatoa harrera-familiak eskatutako ikastetxean eskolatzeko baieztatuta zuten.

b. Funtz publikoak jasotzen dituzten Ordiziako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen arteko eskolatzeko desorekak

Arartekoaren 2019ko azaroaren 6ko Ebazpen bidez Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailari gomendatu zitzaion ebalua zezala Haur eta Lehen Hezkuntzan funtz publikoak jasotzen dituzten Ordiziako ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako jada onartu ziren plangintza-erabakiek zer eragin izan zezaketen, eta neurri zuzentzaileak har zitzala ikastetxe horien artean eskolatzeko ikasleak banatzean oreka handiagoa sustatzen laguntzeko.

Harrezkero, Ararteko erakundeak etengabeko jarraipen-lana egin du, eta, horren ondorioz, 2021eko maiatzaren gaiaren inguruan mintzatu zen berriz ere.

Hala, Arartekoak agerian jarri nahi izan du ontzat jotzen duela Hezkuntza Sailak duen interesa, EAEko eskola-sisteman atzeritar jatorriko ikasleak eskolatzeari buruzko txostenean nabarmendutako erronketako bat lortzen lagun dezaketen estrategien sorta agortzeko, hain zuzen ere, ikastetxeen gizarte-osaeran oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzea. Hala ere, ontzat jo arren, ezin da ahaztu erakunde honek 2019an emandako gomendioak bi eskakizun zehatz izan zituela ardatz, honako hauek: onartutako plangintza-neurrien inpaktua ebaluatzea, eta ikasleen banaketa orekatuagoa lortzen lagun dezaketen neurri zuzentzaileak hartzea, hala badagokio. Egia da Hezkuntza Sailak arlo horri dagokionez emandako informazioa ez dela aski zehatza izan.

Gomendioa plazaratu zenetik igaro den denboran, jaiotza-tasak behera egin izanari esker udalerriko hezkuntza-eskari eta eskaintza doitu egin dira. Hala ere, horrek ez du inolako aldaketarik ekarri ikasleen eskolatzeko dagoen desorekari dagokionez.

Horregatik, erakunde honek azaldu behar izan du ez dagoela ados Sailak, dirudienez, gaur egungo araudiarekin posible

izango liratekeen beste neurri batzuek izan lezaketen birtualtasuna baztertzearekin, behin eta berriz marraztutako egoera hori gainditzeko, non hezkuntza-administrazioaren jarduerarik ezak berak emandako datuak marjinarik eza edo esku-hartze zuzentzailearen ezintasuna justifikatzeko erabil-tzen diren.

Horren ondorioz, Arartekoak ondorioztatu du Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak arreta handiagoa jarri beharko lukeela 2019ko azaroaren 6ko Gomendioa behar bezala betetzeko konpromisoa erabat betetzeko horrelako neurriak kontuan hartzeko orduan.

c. Euskarazko ziurtagiriak eta tituluak aurkezteko salbuespena aitortzea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokidetzat jotzeko, eskolatzeko aaldia murriztu zaion goi-mailako gaitasunak dituen ikasle baten kasuan

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko **apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren** zioen azalpenean azaldu bezala, euskarazko irakaskuntzaren kalitatea eta heldutasuna aintzat hartuta, pentsa daiteke eskolatzeko-prozesua euskaraz egin duen ikasle batek behar besteko hizkuntza-trebetasunak lortu dituela euskal hizkuntzaren eta literaturaren arloan edo irakasgaietan, bai eta hizkuntza horretan ikasitako gainerako arlo eta irakasgaietan ere, eta, beraz, ez duela beharrik beste proba gehigarri baten bidez euskarako zenbait titulu eta ziurtagiri egiaztatzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren tituluak eta teknikariaren tituluak dakartzaten salbuespenen kasuan, dekretu horren 4. artikulua honako hau ezarri zuen: *“2008ko apirilaren 16az geroztik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua edo teknikari-titulua lortu eta titulazio horiei dagozkien ikasketen curriculum osoaren %50 baino gehiago euskaraz egin dutenek ez dituzte aurkeztu behar-ko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokide diren euskarako hizkuntza-tituluak eta ziurtagiriak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluari dagokionez, ezinbestekoa izango da, halaber, euskal hizkuntza eta literatura irakasgaia gaindituta izatea etapa horretako lau mailatan.”*

Azken aurreikuspen horren ondorioz, hau da, dekretuak euskal hizkuntza eta literatura irakasgaia etapa horretako lau mailatan gaindituta izatea betekizun gehigarri gisa ezartzearen ondorioz, goi-mailako gaitasunak dituen ikasleari, Lehen Hezkuntzako seigarren mailatik zuzenean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailara promozionatu zutenari, ukatu egin zioten azken ikasketak egin zituen ikastetxeko idazkariak izapidetutako salbuespen-eskaera, eta, gertaera horren aurka egonik, kexu agertu zen erakunde honen aurrean.

Arartekoaren esku-hartzea dela medio, hezkuntza-ikuskaritza, ikaslearen espediente akademikoa berrikusi ondoren, hasierako jarrera berraztertu zuen, ulertu zuenez: *“Eskolatzeko aaldia murrizteari dagokionez, esan beharra dago erabaki*

hori adimen-gaitasun handiko ikasleen zenbait kasutan hartzen den neurri bat dela, eta, Hezkuntza Ikuskaritza honen iritziz, ulertu behar da ikasturte bat murriztearen oinarrian dagoena dela ikasleak dagoeneko badituela murriztu den mailako gaitasunak, hizkuntzarako gaitasuna barne.”

Horrekin bat etorritik, hezkuntza-ikuskaritzak ondorioztatu zuen kexagileari eskatutako salbuespena aitortzea zegokiola.

d. Ikasleen ebaluazioa

Hiru irakasgaitan emaitza positiboa lortu ez zuen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasle batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan, irakasgaietako baten emaitzaren aurka familiak formulatutako erreklamazioak ez zuelako erantzunik jaso.

Sailetik informazioa jaso ondoren jakinenez, bata bestearen atzetik hartutako zenbait erabakik eragin handia izango zuten ikaslearen etorkizun akademikoan; aipatutako erabakiak jarraian laburbildu dira.

Hezkuntza-ikuskaritzako zerbitzuak ados zeuden irakasgaiaren ebaluazio negatiboarekin, baina erreklamazio-fasean arduradunak ebatzi zuen probetako bat errepikatu egin behar zela. Proba egin ondoren, ikasleak emaitza positiboa lortu zuen irakasgaiaren, eta ikastetxeak adostu zuen graduatu-titulua lortzeko ikasle hura ez proposatzea, bi irakasgai gainditu gabe zituelako, eta ikasturtea errepikatzea gomendatu zuen.

Hala ere, familia ez zetorrenez bat ikastetxearen erabakiarekin (aho batez hartutako erabakia), bigarren erreklamazio bat aurkeztu zuen; erreklamazioa ebatztean, hezkuntza-ikuskaritzak aurretiaz aldeko txostena eman ondoren, arduradunak erreklamazioa onartu zuen eta, azkenik, ikasleak bere helburua lortu zuen titulua lortuz eta ikasketekin jarraituz derrigorrezkoak ez diren etapetan.

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustiapipean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazioko, gizarako eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez dituzan: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zaborra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.*

20. artikulua

1. *Aldi baterako edo betirako bere familiarik atera diren haurrek edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez duten estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.*

2.3.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Estatu mailako berri nagusia Haur eta gazteak indarkeriaren aurrean babesteko [ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa](#) onetsi izana da. Lege hori onesteko gogo handia zegoen eta ibilbidea aurreko urteetako txostenetan azaldu dugu. Lege honen ekarpen nagusiak hemen azaldu ditugu [gida](#) bateko proposamenari jarraiki. Gida hori Haurren Erakundearen Plataformak eta Comillasko Unibertsitate Pontifizioko Haurren Eskubideen Santander Katedrak egindakoa da eta hauek lirateke proposamenak:

- Jarduketa **integrala proposatzen du**. Legeak neurriak ezarri ditu jarduketa **mailentzat** (sentsibilizazioa, prebentzioa edo detekzio goiztiarra) eta **askotariko arloetan** (familia, hezkuntza, gizarte esku-hartzea, babes zentroak, osasuna, kirola eta aisialdia, arlo digitala eta polizia). Aurreikusitako **estrategia** bat sortuko dela hainbat administraziok martxan jarriko dituzten jarduketak koordinatzeko.
- **Ikuspegi prebentiboa** aplikatzen du. Horren arabera, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean babesteko modurik egokiena (haur eta nerabeen bizitza garatzen den arlo eta testuinguru guztietan) **inguru segurua** sortzea da. Horretarako, espazio fisikoaren elementuak eta ezaugarriak zehaztu behar dira eta espazio horietan dauden helduek gaitasunak, trebetasunak, jokaerak eta balioak izan behar dituzte. Horiek guztiak haur eta nerabeei zuzendutako **“tratu ona”** terminoaren barne daude.

Haur eta nerabeek parte hartuko duten zerbitzu eta programak barne hartzen dituzten politika publikoak konprometituta egon behar dira haurrenganako tratu onarekin eta babestutako espazioak sortzearekin. Horrek esan nahi du eragileek betebeharrak zehatzak izango dituztela eta **prestakuntza espezifiko** jaso beharko dutela.

- Haur eta nerabeen **entzuna izateko eskubidea** indartzen du. Ezer ez beraientzat, baina beraiek gabe. Legeak hobekuntzak ezartzen ditu ordenamendu juridikoan, besteak beste: baimentzea haur batek **tutorerik gabe salaketa jarri ahal izatea** (garrantzitsua da indarkeria hori tutoreek gauzatzen dutenean); interes gatazka aitortzea umearen iritzia bere legezko arduradunaren iritziarekin bat ez datorrenean, eta ondorioz, erraztea defendatzaile judiziala izendatzea eta babesik gabe dauden haurrei zuzendutako gizarte baliabideetan salaketa mekanismoak indartzea.
- Indarkeriaren aurreko prebentziorako eta babeserako ezinbesteko bi **erreferentziako figura** sortu dira: Hezkuntza arloko ongizatearen koordinatzailea eta kirolaren eta aisialdiaren arloko babeserako ordezkaria.
- **Aurrez eraturako frog**a egitearen betebeharrak ezartzen du biktimak edo testiguak hamalau urte baino gutxiago dituenetan, prozesu judizialean birbiktimizazioa saihesteko.
- Pertsonen aurkako delitu larrienen **preskripzio denbora** luzatzen du eta biktimak hogeita hamabost urte betetzen dituenetik aurrera zenbatuko dira.

2021ean, gainera, [urriaren 19ko 903/2021 Errege Dekretu](#) onetsi zuten, [Atzerritarren Legearen](#) erregelamendua aldatzen duena. Azken hori [apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren](#) bidez onetsi zen eta bere xedea **adingabekoen** eta tutoretzapean egon direnen **araubide juridikoa aldatzea** eta horien **gizarteratzea** erraztea da.

Zehatzago eta laburrago azalduta, atzerritarrei buruzko erregelamendua berritzearen helburua da erakunde publiko baten tutoretzapean dauden eta inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak dokumentatzea galarazten duten oztopoak kentzea eta adin nagusitasuna betetzen dutenean egoitza araubide bat diseinatzea (irabazi asmorik gabeko egoitza araubidea ez dena). Modu horretan, egoitza baime- nen iraupena luzatuko da eta gaur egun 18 eta 23 urte artean dituzten, tutoretzapean egon diren eta irregulartasunera behartuta egon diren gazteek lanerako baimena izatea possible izango da.

Erakunde honek gai hori eta erregelamenduaren 196., 197. eta 198. artikulua aldatzeko beharri buruz hitz egin du urtero bai modu partikularrean (berriena kapitulu honetan aurrerago azalduko den “Euskadin familia erreferenterik gabe dauden gazte migratzaileak” izeneko azterketa), bai Espainiako defendatzaile guztiekin batera (ikus 2019ko txostena). Gainera, onetsitako Errege Dekretuaren sortze prozesuan irekitako kontsulta aldia aprobetxatuz, Arartekoak berriz ere bere ekarpenak jakinarazi zituen modu partikularrean eta gainerako **autonomia erkidegoetako defendatzaileekin** batera. Horretarako jakinarazpen bat aurkeztu zuten eta estatuko herriaren defendatzaileak egindako **eskari** bat babesten zuten; bertan eskatzen zuten aldatzeko adin nagusitasuna bete zuten adingabe atzerritarren eta tutoretzapean egon diren gazteen egoitza baimenak berritzeko betekizunak, horien zaurgarritasuna murrizteko.

Euskadin aurrera jarraitzen dute Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko [otsailaren 18ko 3/2005 Legea](#) aldatzeko prestaketa lan teknikoek, XII. legegintzaldiko Legegintza Programan “Haurren eta Nerabeen Eskubideen Lege” gisa aurkeztutakoa, zeinaren arabera Jaurilaritzaren Kontseilura bidaliko zen, onartzeko, 2021eko bigarren seihilekoan.

Apartatu honetan aipatu nahi dugun beste gai bat da Haurren eta Nerabeen Behatokiak txosten hau aurkeztu izana: **“EAEko umeen eta nerabeen aurkako indarkeria. Diagnostikoa, erronkak eta orientabideak”**. Txosten hori sortzen parte hartu zuen erakunde honek ere. Diagnostiko horretan oinarrituta, Eusko Jaurilaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak “EAEn umeen eta nerabeen aurka egiten diren indarkerien aurkako estrategia integrala” diseinatzea eta martxan jartzea sustatu du, orain dela gutxi onetsi den eta oraindik sortze fasean dagoen 8/2021 Lege Organikoarekin estuki lotuta.

2.3.2. Herritarren kexak eta kontsultak

Ohikoa denez, Arartekoak alor horretan jasotako ia erreklamazio guztiak gizarte zerbitzuek artatutako haurren eta nerabeen gurasoek aurkeztu dituzte.

Izapidetu diren espediente gehienetan kexak foru gizarte zerbitzuen aurkakoak izan dira eta antzera banatu dira Arabako Foru Aldundiaren [Gizarte Politiken Sailaren](#), Gipuzkoako Foru Aldundiaren [Gizarte Politiken Sailaren](#) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren [Gizarte Ekintza Sailaren](#) artean. Horrez gain, kexaren bat jaso dugu baita ere Bizkaiko udalerrri batzuetako gizarte zerbitzuen jarduketaren inguruan.

Ixteko balorazioari dagokionez, 2021ean hasitako eta jada amaitutako jardueretan ez da gomendiorik edo iradokizunik egin. Eragindako administrazioaren “jardueran ez da okerririk ikusi” edo kexagileari “aholkuak eta informazioa” eman zaizkio.

Gaiei dagokionez, aurreko urteetan iruzkindutakoen antzekoak dira. Arlo honetan Arartekoan egiten diren kontsulten zio nagusietako bat oraindik ere hauxe da: foru zerbitzuek **seme-alaben babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzeko familietan sortzen dituen zalantzak eta ziurgabetasunak**. Arartekora jotzen duten familia askok hori egiten dute espediente bat ireki dela edo beraien kasuak udal gizarte zerbitzuetatik foru zerbitzuetara bideratu direla jakiten dutenean, eta oso kezkatuta etortzen dira, beldurtuta egoten direlako familia banatuko duten babes neurriak ezartzeko aukeraren aurrean. Arartekoak horrelako kontsultetan familiei babesgabetasuna baloratzeko prozesuaren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa ematen die eta eskatzen die balorazioa egiten duten profesionalekin lan egiteko eta elkarrekin seme-alabentzako beharrezko laguntzak eta ahalik eta ongizate egoera onena lortzeko.

Beste kexa batzuen muina **babesgabetasun balorazio prozesuaren garapenarekin ados ez egotea** izan da. Horri lotuta, kexaren bat jaso dugu babesgabetasuna baloratzeko taldeak ez duelako onartu terapeuta pribatu batek zuzenean parte hartzea gurasoetako batekin balorazio bileretan. Erakunde honen iritziz ez zen irregulartasunik egon ezezko horretan, eta kexagileari jakinarazi zion kasu horietan ohikoa dela gurasoek modu indibidualean jardutea balorazioetan eta familia esku-hartzeetan, hau da, beste profesionalen laguntzarik gabe. Balorazioak edo familia esku-hartzeak egitean gizarte zerbitzuetako langileek egokituz joz gero, bilerak egiten dituzte beste profesional batzuekin kasua koordinatzeko edo kontrastatzeko. Beraz, kexagileari esan zitzaion eskatzeko balorazioa egiteko ardura zuten profesionalak beren konfiantzazko psikologoarekin koordinatzeko, modu horretan, bere balorazio teknikoak kontuan har zitezten.

Beste kexa batean aipatzen zuten ez zeudela ados langile baten jarduketarekin. Kexagilearen ustez balorazio teknikoak partzialki egin zituen eta beste gurasoaren alde egin zuen.

Horri lotuta, eta 2020an aipatu moduan, azken urteotan hazi egin dira babeseko gizarte zerbitzuen alorreko kontsultak eta kexak, atzean gurasoen banaketa gatazkatsua dutenak. Tarteka, gurasoetako batek Arartekora jotzen du adierazteko gizarte zerbitzuak, foru aldundikoak edo udalekoak, ez direla esku hartzen ari beren seme-alaben kaltea saihesteko, edo haiek eskuragarri dituzten tresnak (familiako esku hartzeen programak, laguntza terapeutikoa eta abar) ez direla nahikoa gurasoek duten gatazkatik babesteko.

Batzuetan, ikusten da gurasoetako batek gizarte zerbitzueta-
ra jotzeko beharra duela, banaketa gatazkatsu baten bizipen
gogorretan, gizarte zerbitzuek esku har dezaten eta seme-
-alabak babesteko erabakiak har ditzaten saiatzeko. Dena
den, gurasoak beren seme-alabei eman beharreko arreta
eta zaintza motarekin ados ez egote hutsak ez du esan nahi
horiek babesgabetasun egoeran daudenik. Beraz, adminis-
trazioak babesgabetasun egoera baloratu ondoren babes
neurriren bat hartu arte, gurasoei dagokie erabakitzea zein
arreta eta zaintza ematen dieten seme-alabei.

Aurten berriz ere zenbait kexa jaso ditugu desadostasuna
adieraziz **beren seme-alaben babesgabetasuna aitor-
tzearekin**, guraso-ahala etetearekin eta foru erakundeak
tutoretza onartzearekin. Kasu horietan guztietan, kexagileek
neurriaren kontra egiteko lege egoitzara jo edo horren asmoa
ageri zuten, eta beraz, Arartekoaren jardura saihesten zen
eske nagusiarri zegokionez. Bestalde, erakunde honek ez du
irizirik ematen gai teknikoei buruz, hala nola, guraso agin-
pidea edo adingabearen babesgabetasun maila handiagoa
edo txikiagoa. Horiek Arartekoak berezkoak dituen ezagutza
eremuetatik, hau da, zuzenbidearekin bat al datozen zehaz-
tetik at egiten dira.

Beste kexa batzuetan, herritarrak **ez zeuden ados** babes-
gabetasun balorazioa egiteko **gizarte txostenetan beraie
buruz egindako balorazioekin**. Kexagileen arabera, txos-
ten horiek ez dira egokiak, izan ere, ez dituzte beraiek edo
beraien seme-alabekin dituzten harremanak diren bezala-
koak irudikatzen. Ez dugu ahaztu behar babesgabetasuna
baloratzean gurasoek beraien seme-alaben beharrei eran-
tzuteko dituzten ahalak aztertzen direla, eta prozesu hori
luzea eta konplexua dela. Horregatik, balorazioa bukatzean
zehazten denean umeak babesgabetasun egoeran daudela,
nahiko ohikoa da familiek sentitzea ez dituztela behar bezala
baloratu eta profesionalak bidegabeki epaitu dituztela, eta
hori mingarria izaten da eta haserreak sortzen dira.

Beste herritar batek Arartekora jo zuen adierazteko **ez ze-
goela ados familia esku-hartzea bukatzearekin** eta
familiarri ematen zitzaizkion laguntzak amaitzearekin. Kasu
horietan herritarrei esan zaie Arartekoaren zeregina dela
bermatzea zerbitzu publikoen jardunak legezotasuna be-
tetzen duela, eta beraz, Arartekoaren eskumenetik eta esku
hartzeko aukeretatik kanpo dago balorazio teknikoaren bidez-
kotasunari eta ezarritako hezkuntza erabakiei edo erabaki
terapeutikoei buruzko iritzia ematea. Hori eskusiboki az-
tertutako egoeraren beharrei egokitutako balorazio judizioa
egiteko informazioa, ezagutza eta trebezia dituen adminis-
trazioari dagokion administrazio erabakiaren parte bat da.
Erakunde honek egin dezakeen analisia nagusiki juridikoa da
eta ez dagokio Arartekoari baloratzea txosten psikosozialen
edukia edo umei eta familiei eskainitako esku-hartze pro-
gramen edo laguntzen eta iraupenen baloraziorik egitea.

Kexa batzuk jaso ditugu babesgabetasun egoera baloratu
ondoren **ezarritako babes neurrien garapenari edo ete-
teari** buruz. Horri lotuta, amona batek Arartekora jo zuen
esku hartzeko eskatzera, izan ere, familia zabalean bere bi
biloba txikiak **familia harrera** eten egin zuten eta umeak
babesteko **ezarritako neurriak ez ziren egonkorrak izan**.

Kexagileak azaldu zuen familia harrera lehen aldiz eten zutela
epai judizial baten ondorioz. Horren arabera, amari umeen
zaintza eta jagoletza eta guraso ahala itzuli zitzaizkion eta
bere bilobak sei hilabeteetan egoitza harrerako zentro ba-
tean egon ziren. Ondoren, familia berarekin harrera berriz ere
ezartzea erabaki zuten, baina, behin betiko eten behar izan
zen, izan ere, familia hartzaileak zailtasunak izan zituen, eta
zaintza egoitza harrera bidez egin behar izan zen.

Arartekoak ondorioztatu zuen foru aldundiak zuzen jardun
zuela. Erabakiak oso mingarriak eta zailak izan ziren, baina,
helburua umeen ongizate emozionala lortzea eta beharrak
betetzea izan zen. Administrazioak Arartekoari entregatu
zion informazioan nabaritzen da umeekin lan egiten zuten
profesionalak benetan kezkatuta zeudela eta erabakiak pro-
fesionaltasunez eta arreta handiz hartu zirela, eta batzuetan
arrazoia umeen zerbitzuetik kanpoko egitateengatik sortzen
zirela. Foru aldundiak umei arreta espezializatua emateko
baliabideak martxan jarri zituen eta umeek kalte emozional
larriak zituzten, nagusiki, aurretik gurasoekin bitarteko espe-
rentzien ondorioz.

Beste familia batek ere kexa bat aurkeztu zuen. Urte askoan
zehar babesgabetasun egoeran zegoen ume bat hartu zuen
familia horrek eta kexa aurkeztu zuten **adin nagusitasuna
betetzeagatik familia harrera bukatzean familiei lagun-
tza ekonomikoak kentzen zaizkielako**, nahiz eta neskak
familian bizitzen jarraitzen zuten. Arartekoaren ustez Umeen
Foru Zerbitzuak zuzen jardun zuen, izan ere, laguntza hori-
ek tutoretzapean dauden umeak hartzen dituzten familien
behar batzuk betetzeko dira, eta beraz, tutoretza eta adminis-
trazioaren babes neurria bukatzen direnean, laguntza ere
amaitu egiten da. Gainera, nahiz eta zenbateko eta ezaugarri
berak ez izan, Gizarteratze Zerbitzuak beste laguntza eko-
nomiko batzuk kudeatzen ditu tutoretzapean egon diren eta
adin nagusitasuna bete duten gazteentzat.

Familia harreran dauden umeen egoerarekin lotutako kexa
bat aurkeztu zuen familia hartzaile batek. Bertan azaltzen
zuten harreran zuten umearen administrazio egoera erre-
gularizatzeko denbora gehiegi igarotzen ari zela eta horrek
zailtasun asko sortzen zitzaizkion zaintza erantzukizunak zu-
zen betetzeko. Kasu horretan azpimarratzen zen izapide
batzuk egitea oso zaila dela hirugarren herrialdeei eragiten
dienean (eta kasu horren inguruabar bereziek egoera are
gehiago areagotzen zuten), eta testuinguru horretan, Arar-
tekoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren
Umeen Zerbitzuarekin lanean ari da umea dokumentatzeko
bide eraginkorrenak bilatzeko.

Egoitza harreran dauden ume eta nerabeei dagokie-
nez, familia batzuen kexak jaso ditugu ez zeudelako ados
beraien seme-alabekin egiten ari ziren bisitekin. Beste kexa
bat egoitza harreran zegoen nerabe batekin egindako es-
ku-hartze multzoari buruzkoa zen, eta zehazki, harrera
egoitzatik ihes egin zuenean ezarritako foru esku-hartzea-
rekin lotuta zegoen. Arartekoak azaldu zuen esku-hartzea
zuzena izan zela: familiarren egoera baloratu zen eta behar-
rezko neurriak martxan jarri ziren (egoitza harrera, laguntza
terapeutikoa, eta abar). Gainera, neskaren tratamendu es-
pezializatu jarraitua mantendu zen Osakidetza ematen zion

arreta psikiatrikoarekin eta bere ume-gazte osasun mentaleko sarearekin, eta laguntza terapeutiko espezializatua ezarri zitzaizen berari eta bere familiari. Horrez gain, hiru foru aldundientzat indarrean dagoen eta Eusko Jaurlaritzarekin (Ertzaintza) eta Eudelekin batera adostu den ihesaldientzako eta baimenik gabeko absentsietarako jarduketako protokolo komuna errespetatu zen eta familiari egindako jarduketei buruzko informazioa ematen zitzaion.

Adoptatutako haurrei eta nerabeei dagokienez, kexa bat jaso zen adin nagusira heldu arte adopzioen ondorengo jarraipenen foru zerbitzuen errekerimenduekin desadostasuna adierazten zuena. Txosten hauetan gehiagotan azaldu denez, Arartekoak jakinarazi zion familiari haurren jatorrizko herrialdeak ezartzen duela jarraipenak egiteko maiztasuna, horien kopurua eta haurren adina, eta foru-aldundien gizarte-zerbitzuen esku dagoela jarraipen-txosten horiek egitearen eta bidaltzearen kudeaketa, horrela, haur horien beharrei eta eskubideei beharrezko arreta ematen zaiela bermatzea.

Bigarren kexa batean adierazi zuten diskriminatzailea izan zela Umeen eta Nerabeen Babeserako Zerbitzuaren jarduketak, izan ere, ezezkua eman zion ume baten ama biologikoaren bikotekide ohia izan zen emakume batek mutiko hori adoptatzeko egin zuen proposamena hasteari. Umea emakume biak bananduta ez zeudenean jaio zen eta orduan izatezko bikotea ziren. Une horretan, ama biologikoaren bikotekideak ez zuen umea adoptatzeko prozedura hasi, izan ere, ez zeudenez ezkondata, ama haurdun zegoela ere ezin izan zuen Erregistro Zibilean baimenik eman *nasciturus*-arekiko filiazioa zuzenean zehazteko (*Lagundutako giza ugalketaren maitatzaren 26ko 14/2006 Legearen* 7.3 artikulua).

Kexa baloratzean Arartekoak erabaki zuen adopzio prozedura legez tasatutako prozedura bat dela, legeria zibilean araututa dagoela eta foru erakundeak, administrazio jardule gisa, aplikatu besterik ez duela egiten. Hau da, ez du esku-menik adopzio-inguruabarrak ezta prozedura horietan duen ekimen publikoa handitzeko legez aurreikusitakoaz haratago. Hala, Kode Zibilaren 176.2 artikulua erekin bat, adopzio espediente bat hasteko, orokorrean erakunde publikoak aurretiazko proposamena egin behar du adoptatzaileen alde, eta gainera, ezin da adoptatu jakin batzuei buruzkoa izan. Badaude salbuespen batzuk hala ere, besteak beste “*ezkontidearen edo adoptatzaileari ezkontzaren antzeko afektibitate harremanaren bidez lotutako pertsonaren semea edo alaba izatea*”. Beraz, posible izango litzateke egitatezko bikote gisa inskribatuta zeudenean egitea (hau da, ezkontza harreman egiaztatgarria). Ezkontza harreman hori ez dagoenean, hala ere, aukera bakarra da adopzio prozedura hastea aurretiazko proposamen baten bidez, baldin eta legean tasatutako gainerako inguruabarrak betetzen badira. Hori ezin da lotu emakume biek sortutako bikotea sexu bereko bi pertsonen osatutako bikotea izatearekin, izan ere, gauza bera aplikatuko litzaioke bikote heterosexual bati. Beraz, erakunde honek uste du ezin dela ezta ere argudiatu diskriminaziorik ezaren printzipioa nahi horren oinarri gisa.

2.3.3. Umeen eta nerabeen aurkako egoerak prebenitzea eta goiz detektatzea

Arartekoak 2021ean ume eta nerabeen aurkako indarkeria egoerak prebenitzeko egindako jarduketak guztietan “*tratu ona*” sustatu da eta hau da: “*respetando los derechos fundamentales de los niños, niñas y adolescentes, promueve activamente los principios de respeto mutuo, dignidad del ser humano, convivencia democrática, solución pacífica de conflictos, derecho a igual protección de la ley, igualdad de oportunidades y prohibición de discriminación de los niños, niñas y adolescentes*” (8/2021 Lege Organikoaren 1.3 artikulua).

Kapitulu honetako hasierako apartatuan aipatu bezala, umeei tratu ona ematea ume eta nerabeak seguru sentitzen diren eta haz daitezkeen inguru bat sortzea da. Horretarako, espazio fisikoaren elementuak eta ezaugarriak zehaztu behar dira eta espazio horietan dauden helduek gaitasunak, trebetasunak, jokaerak eta balioak izan behar dituzte. Espazio fisiko eta emozional horiek sortzeko, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak Gasteizko Udaleko [Haur eta Familien Zerbitzuarekin](#) lan egin du kanpaina honetan: “[Ume eta nerabeentzako tratu onaren alde. Beraien eskubidea, gure konpromisoa](#)”. Kanpaina horren xedea da azpimarratzea familiek eta gizarteak ume eta nerabeei eman beharreko tratu onaren garrantzia. Kanpainak sentsibilizazio ekintzak ditu eta kartelak, irratiko iragarkiak, txapak, triptikoak, eta abar erabiltzen ditu.

Lankidetzaren esparru horretan BBK Family-k kanpaina honetan egindako ekitaldietan egon ginen: “[Ume eta nerabeei tratu ona ematea](#)”.

2.3.4. Jokaera arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboa

2011tik 2014ra bitartean, Arartekoak *gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan* espezializatu gisa zehaztutako programen gertuko jarraipena egin zuen; hau da, jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuarena eta jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatuarena. Izan ere, horien ezaugarri batzuek (populazio-guneetatik urrun kokatzea, euste-neurriak -bai ibilgetze fisikoa bai isolamendua- erabiltzeko aukera, gorputz-erregistroak egiteko aukera egoera jakin batzuetan, etab.), programa espezializatuaren berezko izaerari atxikitakoak, eskubideak urratzeko arriskuarekiko “sentikorragoak” bihurtzen dituzte. Jarraipen horren esparruan, urte horietan programa espezializatu horiek garatzen zituzten baliabide asko bitatu ziren, eta dagokien foru-sailei informazio osagarria eskatu zitzaion. Horren ondorioen berri eman zen urte horietako Haur eta Nerabeen Bulegoaren urteko txostenetan.

2015ean, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen [uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak](#) aldaketak txertatu zituen Adingabeen Babes Juridikoari buruzko [urta-](#)

rrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan; IV. Kapituluaren gehitu zuen II. Tituluan, jokabide-arazoak dituzten adingabeak babesteko zentro espezifikoei buruzkoan. Babes-zentro espezifikoetan sartzera eta horietan garatzen diren jarduerak eta esku-hartzeak arautzen ditu Legeak; esan bezala, bertan artatutako nerabeen oinarritzko eskubideak jokoan baitaude, harreran hartutako pertsonen segurtasun-neurriak eta askatasunak edo oinarritzko eskubideak murrizteko neurriak erabiltzea aurreikusita baitago.

Ordenamendu juridiko berriaren xedatutakoa kontuan hartuta, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2/2016 Zirkularra idatzi zuen, jokabide-arazoak dituzten adingabeak babes-zentro espezifikoetan sartzeari buruzkoa. Bertan, Fiskaltzak adingabeekin hartutako babes-neurriak zaintzeko goi-mailako eginkizuneari jarraitu beharreko preskripzioak ematen dira.

Aldatutako 1/1996 Lege Organikoaren xedapenak txertatzeko zuzentzeriazko denbora igaro denez, eta euskal arau-esparrua (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea eta goian aipatutako 131/2008 Dekretua) eguneratu ez bada ere, Arartekoak ofiziozko jarduketara bat hastea erabaki zuen urtearen hasieran, Euskadin jokabide-arazo larriak dituzten nerabeentzako programa espezializatuaren egungo errealitatea zuzenean ezagutzeko eta hura egiaztatzeko, arreta harreran hartutako nerabeen eskubideetan jarritz.

Jarduketa esparru horretan zentro hauek bisitatu genituen: Gipuzkoan Irisasi, Iturriotz-Azpi eta Aixola, Bizkaian Laugune eta Araban CET (Gasteizen). Bisita horietan elkarrizketa sakonak izan genituen hezkuntza taldeetako ordezkariekin (baliabide horiek kudeatzen dituzten erakundeetan lan egiten dutenak), zehazki: [Agintzari](#), [IRSE Euskadi](#), [Grupo Babesten](#), [Grupo Urgatzi](#) eta Consulting Asistencial hurrenez hurren. Gainera, eta modu osagarrian, informazioa eskatu zitzaieen foru aldundietako babesgabe dauden umeen egoitza baliabideen zerbitzu arduradunei eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailari.

Esku-hartze horren emaitza mintegi honetan aurkeztu zen: [“Jokaera arazoak dituzten adingabeak babes zentro espezifikoetan sartzera”](#), Justizia Ministerioaren Ikasketa Juridikoan Zentroak antolatuta karrera fiskaleko kideei zuzendutako prestakuntza jarraituko plan baten barnean. Ikastaro hori Valentziako Erkidegoko Sindic de Greugesekin lankidetzan eman zen.

Jarduketa horretako informazioa eta ondorio nagusiak azaltzeko, lehenik eta behin esan behar da CET Gasteiz bisitatu arren, zentro hori foru zerbitzuan jokaera arazoak dituzten nerabeentzako programa gisa sailkatuta dagoela (ez jokaera arazo larrientzako programa intentsibo gisa), baina hala ere, bakarria dela bere izenean “terapeutikoa” terminoa duena eta hezkuntza taldeari laguntzeko psikiatra baten aholkularitza berezia duena. Hala, aztertutako datuak beste 4 zentroetan bizi diren 40 gazteen egoerari buruzkoak dira.

Bisitetan aztertu genituen 40 pertsonetatik %60 mutilak ziren eta %40 neskek. Batez besteko adina 15 urte eta 10 hilabe-

tekoa zen eta 37 zegokion foru erakundearen tutoretzapean zeuden. Gainerako 3 gazteek zaintza lagapena zuten. El-karrizketatu genuen pertsona batek uste du urteetan zehar **aldatu** egin dela programa hauetan parte hartzen duten gazteen **profila**: lehen nerabezaro zaila izan zutelako sortu ziren jokaera arazoak ziren gehienetan, eta orain ikusi dute zailtasun gehienak osasun mentaleko arazo larriekin lotuta daudela argi eta garbi. Bullying kontzeptuarekin paralelismo bat eginez, “lehen erasotzaileak hartzen genituen eta orain biktimak hartzen ditugu”. Horri lotuta, egungo gazteak oso zaurgarriak dira.

Gazte askok **ibilbide luzea egin dute babes sisteman**: 26 egoitza zentroen sareko beste zentro batzuetan egon ziren, 4k huts egin zuten familia harrerak izan zituzten (orokorrean familia handietan) eta 10 zuzenean beraien familiekin bizitzetik datoz (horien artean daude 3 zaintza lagapeneko kasuak). Hori guztia udaleko gizarte zerbitzuen esku-hartzea kontuan hartu gabe. Kasu gehienetan familiekin esku hartu zuten babesgabetasun arriskua arina eta neurritsua zenean, esku-hartze denbora 5 urte baino zerbait luzeagoa zen eta gorabehera handiak zeuden, esku-hartzeak 2 hilabete eta 13 urte artekoak baitziren.

Zentroko **batez besteko egonaldi denbora** 10 hilabetekoa da, baina, egoera ezberdinak daude (2 eta 24 hilabete artekoak). Estatuko legearen arabera, ez lirateke zentroan egon beharkeko behar espezifikokoak lantzeko zorrozkari beharrezkoa den denbora baino gehiago. Autonomia erkidegoko araudiaren arabera, gehieneko egonaldia 9 hilabetekoa izango da eta 12 hilabetera luzatu ahal da. Hausnarketa hori irekita dago Umeen foru zerbitzuetan, izan ere, horiekin lan egiten duten profesionalak aipatu bezala, batzuek hezkuntza arretako intentsitate hori behar dute (hezitzaile bat bi neraberentzako ratioa), eta programa horiek bermatzen dute hori bakarrik.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 26.2 artikulua (uztailaren 23ko 8/2015 Lege Organikoaren bidez aldatutakoa) *“Ezin izango dira halako zentroetan barneratu gaixotasun edo nahasmendu mentalak dituzten adingabeak, baldin eta osasun mentalaren edo desgaitasuna duten pertsonen zaintzaren esparruan eskumena duten zerbitzuen tratamendu espezifikoa jasotzeko beharra badute”*, zehaztu arren, egia dena da 40 gazteetatik 26k **diagnostiko psikiatrikoa** dutela (12k diagnostiko bat baino gehiago) Osasuneko Euskal Sistemako profesionalak egindako kasu guztietan, eta gehienetan hilean behingo jarraipena egiten dietela ospitale sareko edo ospitale kanpoko osasun mentaleko zerbitzuek. Egia da diagnostiko horiek behar bada ez dutela behar beste zentro espezializatu batzuetan (agian soziosanitarioak) bizitzea eskatzen duen tratamendu psikiatriko intentsitaterik, baina, horrekin lotutako beste adierazle batzuek, hala nola Euskadin ez egotea zentro sanitario edo soziosanitariorik patologia mentala duten adingabeei barnetegi gisa arreta ematen dienik, edo patologia mentala duten seme-alabak zaintzen urteak eman ondoren gurasoek zaintza “lagatzen” dutela egiaztatuta duten kasuak kontuan hartuta, zilegi litzateke pentsatzea zentro horietan bestelako baliabide espezifikoagoak edo espezializatuagoak behar dituzten gazteei arreta ematen zaiela.

26 gaztek osasun mentaleko medikuak preskribatutako **medikazio psikiatrikoa** hartzen dute. 23ri astean edo hamabost egunean behin **arreta terapeutikoa** ematen diete foru zerbitzuek. Gipuzkoako zentroetan, gainera, psikologo bat dago eta psikiatria zerbitzuekin hitz egiten du, koordinazio lanak egiten ditu, hezkuntza taldeari laguntzen dio eta orientabideak ematen dizkio. Garrantzitsua da esatea baita ere 5 gaztek desgaitasuna aitortuta dutela eta 7ren desgaitasun mailaren izapidetzeak egiten ari direla.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 25.1 artikulua-
ren arabera, jokaera arazoak izateagatik zentro espezifiko horietan sartzeko eta esku-hartzeetarako behar diren **baimen judizialei** dagokienez, edukia bi modutan interpretatu da. Gipuzkoako foru zentroetan baliokidetasunak egin dira ondorio guztiekin 131/2008 Dekretuaren jokaera arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboen eta 1/1996 Lege Organikoaren II. tituluko IV. kapituluan (2015eko aldaketatik aurrera) araututakoan artean, baina, Bizkaian aztertzeko ari garen programa garatzen duen zentroak ez ditu betetzen estatuko arauaren ezaugarriak, izan ere, bertan hauxe dago xedatuta: que “*Kapitulu honetan aurreikusitako xedapenak bete beharko dituzte (...) zentro berezietan egiten diren barneratzeak, jarduketek edo esku-hartzeak, baldin eta zentro horietan aurreikusi bada egoerak segurtasun-neurrien erabilera eta oinarrizko eskubideak edo askatasunak mugatzeko neurriena*”. Beraz, Laugane zentroko neurri guztiak hezitzaileak direnez eta beste zentro batzuetan baino hezitzaile ratio handiago batekin ematen direnez eta isolamendu gelarik ez duenez, esku-hartzeak ez ditu inolaz ere oinarrizko askatasun edo eskubideak murrizten. Irizpide hori ezarri zuen foru sailak 2015eko aldaketa indarrean jarri zenean Bizkaiko Adingabeen Fiskaltzarekin. Zentroen izaerari buruzko interpretazio ezberdinen ondorioz, zentro horietan dauden gazteen %75ek baimen judiziala du: Gipuzkoako denek eta Bizkaiko inork ere ez.

Osasun mailarik handiena izateko eskubideari dagokienez eta aurkeztutakoaren osagarri gisa, bakarrik aipatu behar dugu gazte guztiek egoitza kokatuta dagoen eta erroldatuta dauden udalerriko osasun zentroan lehen mailako arreta jasotzen dutela. Arduradunek azaldu zuten harreman ona dutela osasun langileen eta zentroko langileen artean, eta ez dagoela arazorik kasuak bigarren mailako arretara bideratzeko.

Hezkuntzarako eskubidea ere zuzen betetzen da, erantzunak guztiz indibidualizatuak dira (DBHn eskolatzea -batzuk norberaren curriculum egokitzapena dute, hezkuntzako unitate terapeutikoan edo urrutitik ikasten dute-, batxilergoa, oinarrizko lanbide prestakuntza edo erdi mailakoa) eta “hezkuntza” indartzea zentro guztietan. Gipuzkoako zentroetan, gainera, “irakaslea” dago. Nagusiki zeregin hauek ditu: prestakuntza baliabide egokiena bilatzea eta sartzeko, ikastetxeekin koordinatzea (tutorearekin-pertsona erreferentearekin batera) eta ikastetxera joaten ez direnean eskolak ematea edo laguntzea. Absentismo tasak oso aldakorrek dira (%0tik %100era) eta denboran asko aldatzen dira, izan ere, oso lotuta daude gazteen egoera emozionalekin.

Familiarekin komunikatzeko eskubideari dagokionez eta beti egungo araudian xedatutakoa eta dagokion foru

aginduan zehaztutakoa betez, komunikazioa ohiko telefono bidezkoa izaten da eta baldintza bakarra eguneko unea eta jardura izaten dira. Bisitak zentroan egiten dira espazio egokietan egonaldiko lehen faseetan eta familiaren etxean edo beste leku batean aurreragoko faseetan. Gipuzkoako zentroetan langileek aipatu zuten beraien iritziak eta proposamenak kontuan hartzen direla bisiten araubidea ezartzeko, eta hori bisitak arautzen dituzten foru aginduen bilakaeran ikusten da. Familiei dagokienez, hala ere, galdera nagusia da ea familiekin egiten den lana nahikoa den, izan ere, gazteak zentroan aldatzen diren arren, familien bilakaera ez da hain argia, eta horrek mugatu egiten du une batean familiaren bizi-kidetzara itzuli ahal izatea.

Bukatzeko, eta **jolasteko, aisialdirako eta kirolerako eskubideari** dagokionez, langile guztiek egiaztatu duten datua erabili dugu. Hau da, orokorrean gazte horiek lagun eta zaletasun edo interes gutxi izaten dituzte. Horregatik, esku-hartze planaren arloetako bat da zentroan eta zentrotik kanpo talde jardueraz disfrutatzea eta komunitatean jardura indibidualak sustatzea eta bultzatzea, ikaskideekin harremanak sendotzea, eta abar.

Babesgabatasun egoeran dauden ume eta nerabeen eskubideak errespetatzearen baloraziotik egindako analisi honen ondorioak ateratzeko bi maila bereizi behar dira: lehenengoan programak aztertu behar dira eta bigarrenean babesgabatasun egoeran dauden gazteen beharrei erantzuteko sistemaren duen zeregina zein den aztertu behar da.

Lehenengo mailari dagokionez, positiboa da zentro txikien eta langileen ratioaren alde egitea, izan ere, horrek ahalbidetzen du hezkuntza arreta sakonagoa izatea. Horri lotuta (plantilla handiak egotea), beharbada aipatzekoa litzateke garrantzitsua dela langileen presentziak eta txandakateak zaintzea, izan ere, beharrezkoa da harremanak lortzeko eta pertsona erreferenteak (emozionalak) egotea ezinbestekoa da gazteen mina arintzeko eta hazten eta garatzen jarraitzeko aukerak gehitzeko.

Badirudi ez dagoela ezta ere gabezia asko hezkuntza esku-hartzean, jarraipen teknikoan eta hezkuntza prozesu indibidualizatuak ebaluatzean ezta bizikidetzara araubidean eta euste neurrietan. Kasuak kudeatzeko osasun eta hezkuntza sistemekin koordinatzeak gazte bakoitzaren osasunerako eta hezkuntzarako eskubidea bermatzen du, eta edonola ere, nabarmentzekoa da Gipuzkoako zentroen funtzionamendua. Bertan psikologoak eta irakasleak daude, eta horrela errazagoa da gazte bakoitza ezagutzen duten profesionalen arteko komunikazioa eta harremana.

Zentro horiek gazteen beharrei erantzun behar dien sistemaren duen zereginari dagokionez, erakunde honen ustez beharrezkoa litzateke hausnarketa lasai bat egitea eta gutxienez aztertzea aurreko paragrafoetan azaldu diren gaietako batzuk. Hau da:

- programa horietan arreta jaso dezaketen/behar duten gazteen ezaugarriak eta horri estuki lotuta, beste baliabide batzuen beharra -osasun arloan, soziosani-

tarioan edo gizarte zerbitzuetan-, gazte horien beharrei erantzun egokiagoa ematen badiete. Osasun Sailak bere garaian jakinarazi zuen laster (gaur egun eginda dago) eguneko bi ospitale irekiko zituztela Bizkaian eta COVID-19aren pandemiaren egoera bereziarengatik atzeratu arren, erabaki dute baliabide soziosanitario bat martxan jarriko dutela gutxienez patologia psikiatriko larrienak dituzten gazteei arreta emateko, izan ere, gaur egun, Euskaditik kanpoko baliabideetara bideratzen dira.

- Esku-hartzearen izaera eta neurri “bereziak” (euste-koak edo isolatzekoak, beharrezkoak direnak egoki analitzatzeko arreta jasotzen duten gazteen oinarriko askatasun eta eskubideen arrisku potentziala) eta zentro horiek jokaera arazoak lantzeko zentro espezifiko gisa sailkatzea (1/1996 Lege Organikoa) edo ez. Horik sortuko da baita ere agintaritzaren judizialak derrigorrez parte hartzea edo ez egonaldien hasieraren eta esku-hartzearen kontrol eta jarraipenean.
- Babesik gabe dauden umeei zuzendutako gizarte zerbitzuen sistemaren duten zeregina, eta horrekin lotuta, egonaldietarako denbora egokienak, programa batzuetatik bestera igarotzea edo bestelako programa motetan aplikatu daitezkeen ikaskuntzak eta baliabideen dibertsifikazioa handitzeko aukera;
- Familiarekin lan sakona egitea (gazteekin egiten den bezainbeste), berriz ere elkartzeko helburuarekin eta hurrengo faseetan laguntzeko programak antolatzea; kasuaren koordinatzailearen, tutorearen eta bestelako profesionalen rola.

2.3.5. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako arreta berezia

II. kapitulu honetako 2.1 apartatuan aipatu genuen ohiko moduan umeei buruzko erreklamazioak edo umeak eragintzekoak diren erreklamazioak legezko ordezkariak aurkeztu dituztela Arartekoan. Izan ere, 2021eko kexa guztien artean bakarrik batean izan da titularrak adingabeko bat. Adin nagusitasuna beteko duen gazte atzerritar baten kasua da. Adin nagusitasuna Melillan zehaztu zioten adina zehazteko proba baten ondoren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko babesgabatasun egoeran dauden umeentzako gizarte zerbitzuetan harreraren zegoen, eta behin-behineko zaintza bukatzean Bilbora joan zen bere anaia bertan bizi zelako. Gaztea udaleko gizarte larrialdiko zerbitzura joan zen eta zaurgarritasun egoeran zegoela esan zuen, izan ere, bere anaiarekin ezin zen bizi, anaia ere gizarte bazterketa egoeran zegoelako.

Kasu hori azkenean konpondu egin zen adingabetasuna aitortu zitzaizkion eta Bizkaiko Foru Aldundiaren umeen gizarte zerbitzuen zentro batera sartu zelako. Hala ere, konponbidea zailtzen zuten inguruabar batzuk gertatu ziren: nerabea Melillako babes zerbitzuen tutoretzapean zegoen eta jatorrizko zentrorantz itzultzeko izapidetze guztiak alferrikakoak izan ziren; Algecirasko Marokoko Kontsulatuan bere pasaporteaz izapidetzen hasiak ziren (bertan baliozkotzat jo zuten mutikoak aurkeztu zuen jaiotza ziurtagiria eta bere adingabetasuna

ziurtatu zen), baina, ez zuten emaitzarik eman ezta ere izapidetzea arintzeko eta pasaportearen indarreko fiskaltzaren dekretuak adin nagusitasun gisa ezarritako egunaren aurretik lortzeko egindako kudeaketek. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuen gaztea emantzipazioari laguntzeko programa batean sartu -azaldu zenaren arabera- programetan denbora gutxi egon zelako eta bereziki, gazteak bere anaiarengandik hurbil egon nahi zuelako. Bilboko Udalak arreta ukatzen zion azalduz Gipuzkoako administrazioei zegokiela hori egitea, izan ere, Gipuzkoan egon zen bizitzen adin nagusitasuna beteazteagatik arreta eten zitzaionera arte.

Arartekoaren iritziz, eskumena zein administrazioak duen erabaki behar izateagatik ez litzateke arretarik gabe geratu behar pertsona zaurgarri bat. Zalantza horiek kudeatzaile publikoek ebatzi behar dituzte eta pertsona ez da derrigortu behar bere arretan eskudunak izan daitezkeen zerbitzuetara joatera, bereziki ez dagoenean ibilbiderik edo bideratzeko protokolo formalik. Beraz, erakunde honek uste du Bilboko Udalak gazteari arreta eman beharko liokeela Bilbon zegoenetik aurrera, eta horrek ez du esan nahi ezin zirela Donostiako Udalarekin eta/edo Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatu eta erabaki nork eman behar zion arreta. Emandako arretagatik konpentsazioa erabakitzeke baita ere, izan ere, gai horiek guztiak posibleak eta eskagarriak dira egungo araudi esparruarekin bat. Bestalde, foru zerbitzuak jakitea anaia bat zuela ez zen oztopo izan behar irteerako plan individualizatu bat izateko, gizarteratzeko zerbitzuekin koordinatzeko edo gutxienez kontuan hartzeko zaurgarria zela babeseke baliabidetik ateratzean, eta modu horretan, bere oinarriko beharrak betetzen zirela bermatuko litzateke.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak familia erreferenterik ez duten gazte eta nerabe atzerritarren eskubideak defendatu eta sustatzearekin lotutako beste ekimen batzuetan ere parte hartu du. Adibidez, Donostiako Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdian “*Vidas menores*” izeneko dokumentalaren osteko solasaldian egon ginen, Save the Childrenen II. Nazioarteko Kongresuko “*Infancia en movimiento*” hitzaldian izan ginen eta “*Ibiltariak*” argazki erakusketaren inaugurazioan parte hartu genuen. Horrez gain, ACNURen azterketan informatzaile gisa parte hartu genuen; Comillasko Unibertsitate Pontifizea “Laguntzarik gabeko eta banandutako haurtzarora nazioarteko babes beharrekin Espainian” azterketa egiten ari da.

Familia erreferenterik ez duten gazte eta nerabe atzerritarrei ematen zaie arretari dagokionez, horren inguruko da baita ere azterketa hau: [Europar inoren kargura ez dauden ume eta nerabe atzerritarrei laguntzeko zerbitzuak](#). Arartekoak egin zuen [International Ombudsman Institute-n](#) Europako sekzioak eskatuta eta 2021eko Mundu Mailako Konferentzian aurkeztu zen. Azterketa hori ingelesez idatzita dago, baina gaztelaniaz eta euskaraz ere argitaratu zen eta berari esker, inoren kargura ez dauden ume eta nerabeak babesteari buruzko estandarren zerrenda bat egin da. Horiek, halaber, arlo horretako nazioarteko zuzentarauetan oinarrituta sortu dira eta horrez gain, askotariko praktikak proposatzen ditu administrazioentzat eta herriaren defendatzaileentzat, eta “itxaropentsuak” dira. Txosten orokorraren IV. kapituluaren ondorio nagusiak xehetasunez azaldu dira.

Hala ere, Arartekoak azken urteetan esan du une larrietako bat dela adin nagusitasuna betetzen denean, emantzipatzean edo gazte horiei helduen bizitzarako ematen zaien laguntza-rena unea. Donostiako pabilioi batetik pertsona asko kaleratu zituzten eta horien artean “kalean” bizi ziren gazte batzuk zeuden, eta berri horren ondorioz ofiziozko ikerketa bat ireki da berriz ere. Oraindik martxan dago eta Sos Arrazakeria Gipuzkoa taldearekin izandako bilerako gaietako bat izan zen. Edonola ere, gai hori sakonki aztertu da iaz aipatu bezala azterketa honetan: **Euskadin familia erreferenterik ez duten gazte migratzaileak. Diagnostikoa eta jarduketa proposamenak**, jendaurrean aurkeztu zena 2021ean.

Egiaz, azterlan honen jatorrian, herritarrek eta gizarte-erakundeek azken urteotan egindako kexen azterketa dago. Kexa horietan salatzen zuten gazte horiek gizarte-kalteberatasun egoeran bizi direla eta era askotako arazoak dituztela (udal erroldan izena emateko, hemen bizi eta lan egiteko baimena lortu eta berritzeko, oinarritzko beharrak asetzeko, emantzipazio programetan parte hartzeko, prestakuntza ibilbideetarako sarbidea izateko); are gehiago, kasurik larrietan, “kalean” bizi direla. Gainera, administrazio publiko ematen ari den erantzuna aztertu da bertan, eta, horrela, 16 administrazioak (Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta udaletako sailek) emandako informazioa jaso dugu.

Azterlanaren bukaeran, gomendio batzuk egin zaizkie euskal administrazioei, Arartekoari beharrezkoak iruditzen baitzaizkie gazte horiek hobeto arta ditzaten.

Gomendio horien artean, azpimarragarriak dira jarduteko hainbat proposamen, honako helburuok lortzeko:

- Estatuko Administrazio Orokorrekiko elkarrizketan aurrera egitea, lanerako sarbidea eta erregularizazio administrazioa errazteko asmoz.
- Euskal gazteei beren emantzipazio-prozesuetan laguntza politikari eta etorkinak gizarteratzeko eta horiek gizartean parte hartzeko politiken esparruan, **estrategia oso bat** eratzea, familia-erreferenterik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileentzat.
- Orientazio juridiko egokia, koherentea eta koordinatua indartzea.
- Udal, foru aldundi eta gizarte-erakundeek eskura dituzten **zuzkidura-etxebizitzak** multzoa handitzea, bizitoki arloan erantzun duina eskain dezaten.
- Beharrezko **diru-sarrerak** bermatzea, norberaren oinarritzko beharrei eta gizarteratze eta laneratze prozesuak sortutako gastuei aurre egiteko.
- **Gizarte-zerbitzuen** euskal sistemari dagokion erantzunaz hausnartzen hastea, eta beste politika publiko batzuekiko duen eginkizuna nahiz barne-artikulazioa argitzea.
- **Lanbide-prestakuntzarako** hasitako prozesuak sendotzea eta horien arrakasta eragozten duten elementuak ebaluatzea.

- Gizarteaz baztertuta dauden pertsonentzako **gune soziosanitarioak** garatzen sakontzea eta, zehazki, kaleko eriondo- eta psikiatria-programak estaltzea.
- Udalerrian bizi diren gazte migratzaileen eta gainontzeko bizilagunen arteko **harreman komunitarioak** sortu eta indartzeko jarduerak gehitzea.
- **Sentsibilizatzeko** ekintza zehatzak (zurrumurruen kontrakoak, e.a.) bultzatzea, baita berariazko prestakuntzak ere, gazte horiekiko portaera diskriminatzaileei, tratu-desberdintasunari eta gizarte-estigmatizazioari dagokienez.
- Gizon-emakumeen salerosketa edo edonolako esplotazioa **antzemateko** tresnak hobetzea.

Azterketa Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean aurkeztu zen eta edukia hainbat foro eta topaketetan partekatu zen. Adibidez, **Agiantza** elkarteak antolatutako jardunaldi hauetan: “Immigrazioa San Luisko meategietan errotuta” edo **Harresiak Apurtuz** koordinakundearekin egindako bileran. Bertan ezagutu ahal izan zen koordinakundeko erakundeek gazteekin egiten duten lana eta horri buruz hausnartu zen.

Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin egindako bileran jakin genuen zeintzuk ziren “Euskarri” ekimenaren aurrerapenak; Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta EUDEL egiten ari diren erantzun giltzarri osoa da, Euskadin zaurgarritasun egoeran dauden adingabeak eta gazte atzerritarrak gizarteratzeko eta laneratzeke. Sustatzaileen esanetan, proposamenak Arartekoak estrategia integral bati buruz egindako azterketako gomendioari erantzungo lioke.

2.3.6. Sexu abusua

Euskadin **haurren kontrako sexu abusu kasuetan jarduteko protokoloaren** proposamen tekniko bat egiteko prozesua, bulego honen 2019ko txostenean zehatz-mehatz deskribatutakoa, esan bezala, urte horren amaieran burutu zen, eta 2020an eztabaida politikoaren fasea ekarri zuen. Pandemia heldu zenean eta uztailean egindako hauteskunde onduz Eusko Jaurlaritzan erantzukizunak aldatu zirenean, kudeaketa horien bukaera urtearen azken hiruhilekora atzeratu zen.

2021ean, iazko txostenean iragarri zenez, maiatzean publikoki aurkeztu zen protokolo proposamena (“jarduteko jarraibideak” izenburupean), Arartekoaren gomendio orokor gisa: **Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorra, maiatzaren 18koa. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraibideak.**

Gomendio horren bidez, hobetu egin nahi da tratu txar larri horiek jasan dituzten haur eta nerabeen kasuak antzemateko lana, baita horiekiko esku-hartzea eta tratamendua ere.

Haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegitik egina da. Ikuspuntu horretatik begiratuta, bi ideia eragingarri hauek egiten diete tira gainontzeko elementuei:

1. Jarduera guztiak **bigarren mailako biktimizazioa arintzera** bideratuta daude, eginbide errepikakorrek saihestuz eta gutxieneko esku-hartzearen, bizkortasunaren eta espezializazioaren irizpideetara egokituz
2. **Biktima diren haur eta nerabe guztiak tratamendu jaso ahal izatea, kaltea** al bait azkarren **konpon dadin**. Horretarako, bermatu egin behar da tratamendu horretarako eskura dauden zerbitzuak publikoak eta unibertsalak izango direla eta eragile guztiak tratamenduaren hasiera ahalbidetzeko lan egingo dutela, alferrikako atzerapenik gabe.

Arartekoak euskal administrazio publiko eskudunei **gomendatu die**:

- **Ezar ditzatela** “Euskadin haur eta nerabeen sexu abusu eta esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak” izenburuko agirian jasotako neurriak (idazki honi erantsi dizkiogu), beren sistemari edo erakundeari dagozkien alderdi zehatzetan.
- **Jarduteko jarraibide horiek zabal ditzatela** beraien eskumen-eremuetan, eta beharrezko ekintza eta aldaketa guztiak abiaraz ditzatela jarduteko eta prozedurazko eredu bakoitza bertan ezarritako neurrietara egokitu dadin eta neurri horiek barnera ditzan.
- Nork bere alorreko profesionalen **prestakuntza eta espezializazioa susta ditzala**, baita praktikak arlo pribatuan egiten dituztenenak ere. Gainera, ziurtatu behar da prestakuntza tekniko espezializatu hori giza eskubideen, haurren eta generoaren ikuspegitik begiraturata gauzatzen dela.
- Garatutako **neurrien bilakaera azter dezatela eta horiek ebalua ditzatela**, beharrezkotzat jotzen diren zuzentzeko eta hobetzeko elementuak erantsiz eta Arartekoari horien berri emanaz, jarduteko jarraibide horiek eguneratu ditzan, hala badagokio.

Gainera, **gizarte-zerbitzuen sistemari** eskatzen dio arreta osoko eredu baten alde egiteko lehen urrats gisa, beharrezko zerbitzuak abian jar ditzala sexu-abusua jasan duten haur eta nerabe guztiak tratamendu publikoa jasotzeko aukera bermatzeko, beraien familien babes-ahalmenari buruzko edozein balorazio baztertuta.

Era berean, **justizia-administrazioa** osatzen duten erakundeak eskatzen die ahalbidetu dezatela gomendio orokor honetan bildu diren jarduteko jarraibideak beraien prozedurazko jardueretan erabiltzea.

2021ean Save the Children Euskadik gidatutako prozesua bukatu da baita ere Barnahaus ereduaren edo “haurren etxearen” diagnostikoa egiteko eta gure lurraldean ezartzeko, eta Arartekoak bertan parte hartu zuen. *“Etxepe berean: Euskadin sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei zuzendutako arreta: hobetu beharra eta Barnahaus ereduaren ekarpenak”* txostena azaroan aurkeztu zuten. Egun horretan Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak jakinarazi zuen lehenengo “Barnahaus” etxea martxan jarriko zutela Euskadin esperientzia pilotu gisa.

2.3.7. Genero indarkeriaren eraginpean dauden haur eta nerabeak

Arlo honetan egoeran esku hartzen jarraitu dugu, bulegoaren 2019ko txostenean aurkeztutako egoera horretan, ama eta amona lehenaren bikotekide eta haurren aitak hil ondoren bi umezurtzen egoera, alegia. Orduan esan zen moduan, haurren egungo tutoreak Arartekora jo zuen, adieraziz haur horiek ez zutela nahikoa laguntzarik; izan ere, genero indarkeriaren biktima zuzentzat jotzen diren arren, ez diete nahikoa balio izan oraindik biktima gisa merezi duten laguntza hezurramitzen duten neurriek. 2019an hobetu egin ziren jasotzen dituzten umezurtz pentsioak eta, hain zuzen, arreta psikologikoari dagokionez gizarte zerbitzuen eskainitako erantzun egokia aipatua genuen. Esku hartzeak 2020an eta 2021ean jarraitu du, beste esparru batzuetan, adibidez, zerga alorrean eta familientzako laguntzen alorrean, baita etxebizitzarenean ere. Horiek ez dute horrelako inguruabarrik aurreikusten, ezta salbuespen gisa ere, hain bereziak izaki. Hori dela eta, berriro diogu, kontua ez da araudiaren interpretazioa eztabaidatzea edo salbuespen bat aitortzea, baizik eta horrelako egoera bati beharrezko segurtasun juridikoaz erantzuteko beharrezko arau aldaketak iradokitzea.

Genero indarkeria jasaten duten umei ematen zaien arreta (biktima “zuzen” gisa aitortuta daude 2015etik, uztailearen 23ko 8/2015 Lege Organikoaren arabera), eta bereziki, umezurtzei ematen zaiena, zalantzarik gabe, premiazko moduan landu beharreko gizarte errealitatearen parte dira. Sustatzaileen arabera, helburu horrek parlamentu izapidetze prozesuan dagoen Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako **otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren lege proiektuari** ekarpenak egin nahi dizkio. Lege horren bitartez, genero indarkeria jasaten duten umeak biktimatzat jotzen dira (adjektibo osagarririk gabe) eta zenbait neurri publikoren jasotzaile gisa hartzen ditu.

Arlo horretan lanean ari dira baita ere genero indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzu prestazioaren arduradun diren foru erakundeak. Besteak beste Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Saila. Arartekoak sail horrekin bere ikuspuntuak partekatu zituen orain dela gutxi aurkeztu den Indarkeria matxistatik bizirik atera direnei eman beharreko Bizkaiko gizarte arretaren eredia birformulatzeko prozesuan.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespina bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkarietara dagokie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuaren ardura garrantzitsuena haurraren interesa izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkarietara, haurra hazteko betebeharrean behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezten sustatzen du, familia-eredu askotarikoen garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko.

2.4.1. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arazoak

a. Familiei laguntzeko dirulaguntzekin zerikusia duten arazoak

Aurten ere, hainbat kexa eragin ditu hainbat euskal administrazioek seme-alabengatik ematen dituzten laguntzen inguruko eskaerak artxibatu edo ukatu izanak. Oraingo honetan, arrazoirik ohikoek lotura izan dute erroldatze-denborekin eta zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez izatearekin; eskatzaileek bazuten egoera horren berri laguntza ukatu zitzaizkionean. Erroldatzeen kasuan, askotariko kasuak zeuden betekizuna ez betetzeko; hala ere, zehatz-mehatz eta banaka aztertu ondoren, ezin kasutan ezin zen ondorioztatu administrazioaren jarduketa okerra izan denik.

Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izateari dagokionez, nahiz eta zorren berri izandakoan ordaindu (laguntza ukatu zitzaizkionean adierazi zen moduan), araudiak zalantzarako aukerarik utzi gabe dio ([martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren](#) 5. artikulua) betekizunak eskaera aurkezten denean bete behar direla.

Beste kexa multzo batek zerikusia du prozedura-arazoekin; horien artean nabarmenenak dira Lazkaoko Udalaren bitartez aurkeztutakoak, [Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak](#) egindako gogoetak tarteko. Izan ere, udalak hasieran erregistro orokor elektronikoen bidez helarazi zituen, eta hasieran sailak ez zituen aurkeztutak jo. Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen bi administrazioen artean ez zegoela lankidetzaren hitzarmenik autonomia-administrazioa bideratutako idazkiak aurkezteko eta, gainera, laguntzen araudiak eskaerak aurkezteko berezko araubidea ezartzen

duela (martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuaren 17.2. artikulua), eta aukera hori ez dagoela jasota. Lazkaoko Udalari jakinarazi egin zitzaion ez zela onartuko laguntza gehiagorik aurkeztea bide horretatik, baina eskatzaileei sortutako babesgabetasun-egoera eta horrek zuen konponbide gaitza balioetsi ondoren, Familia eta Haurren zuzendaritzak erabaki zuen udal horrek ordura arte bidalitako espedienteak izapidetzea. Erakunde hau bat dator balioespen horrekin.

Oro har, Arartekoak aurreko txostenetan dagoeneko azaldu du laguntza horiei lotutako kasuistikaren inguruan egiten duen balioespena, eta hobekuntzak proposatu izan ditu pertsona interesdunei eskaini beharreko informazioan, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuaren aurrean prozedura hastetik, eta laguntza ahal bezain modu automatizatuan izapidetzean aurrera eginez.

b. Familia-kontziliaziorako neurriekin lotutako arazoak

Nahiz eta 2020aren ezaugarri nagusietako bat izan zen nabarmen hazi zirela laneko eta familiako bizitzaren kontziliazioari buruzko kexak eta, bereziki kontsultak, COVID-19ak eta hura kontrolatzeko hartutako neurriek sortutako testuinguruaren ondorioz. 2021ean, aldiz, eremu horretan salbuespen-egoearen aurreko bolumenera eta gaitara itzuli gara.

Egindako esku hartzeetako ezainen xedea ez dira izan Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak antolatutako kontziliaziorako laguntza ekonomikoak. Jasotako guztiek helarazten zituzten guraso-baimenen inguruko desadostasunak (jaiotza eta edoskitzea), eta, hazkuntzan laguntzeko neurri horien arauketa autonomia-eskumenetik harago doanez, euskal administrazio publikoaren zerbitzura daudenen kasuak bakarrik izapidetu dira.

Kexa-multzo horretan bi dira azpimarratzekoak, Hezkuntza Sailarentzako eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarentzako gomendio bana ekarri dituztenak, euskal administrazio publikoaren zerbitzura dauden langileen inguruko txosten orokorraren II.9 kapituluko 2. apartatuan zehatz-mehatz azaldutakoak. 2021eko azaroaren 24ko Ebazpenean aztertu zen Hezkuntza Sailak ordezkotako langile bati edoskitze-baimen metatua eskaerari emandako ezezkoa. Adierazi zenez, ebazpenaren amaieran hezkuntza-administrazioari gomendatu zitzaion baimena emateko edoskitze-modalitateen artean aukeratzeko, baina ez zuen gomendioa onartu.

Bigarren ebazpena, guraso bakarrek familietako guraso-baimenak xede dituenak, hurrengo apartatuan aipatuko da.

c. Guraso bakarrek familiak

Erakunde honetan guraso bakarrek familien kexak eta kontsultak jasotzen jarraitu dugu, eta zaugarritasun handiagoko dutela erakusten dute; berriz ere nabarmendu behar dugunez, horri genero berdintasunik eza gehitu behar zaio, guraso bakarrek etxe horietan ardura duen pertsona heldua emakumea baita kasuen ehuneko oso handi batean.

Nahiz eta zaurgarritasun handiagoko egoera hori berariaz aintzatesten duen [abenduaren 12ko 13/2008 Legeak, Familiei Laguntzekoak](#), zioen azalpenean, familia gurasobakarrek oraindik ez dute (eta zaurgarritasun berezikotzat jotzen diren beste horiek ere ez) estatutu espezifiko bat, hainbat erakunde-mailatetik familia horiek babestera bideratutako esku hartzeak errazteko. Gai horri erreferentzia egiten dio [2014ko txosten bereziak, familiei laguntzeko Euskadiko politikei buruzkoak](#), eta garbi dago oraindik ere gaurkotasan handia duela. Eskari hori herritarrek behin eta berriz helarazten dute, guraso bakarreko familia izaera egiaztatzeko agiriren bat eskuratzeko, dagozkion instantzietan aurkeztuta laguntzak eta beste laguntza-neurri batzuk eskuratu ahal izateko.

Aurreko apartatuan aipatu denez, merezi du hemen aipatzea 2021eko azaroaren 30eko Ebazpena, guraso bakarreko familien kasuetan guraso-baimenak metatzeari buruzkoa. Ebazpenaren oinarria da guraso bakarreko familien elkarte batek aurkeztutako kexa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak guraso bakarreko familiei bi gurasoko familiek eskubide gisa dituzten baimenak metatu eta gurasotasun-baimena 24 hilabeteraino zabaltzea emandako ezezkoaren ondoriozkoa. Hasieratik onartu beharra dago kexa horretan mahaigaineratutako auzian doktrina- eta jurisprudentzia-eztabaida handia dagoela, eta Arartekoak ebazpenean kexan jasotako egoera zehatzari estu lotutako argudioak aurkeztu dira, ebazpenean bertan edo txosten honen II.9 kapituluko laburpenean ezagut daitezkeenak. Familia-dibertsitatearekiko errespetua, berdintasunezko tratamendua eta zaurgarritasun-egoeretan edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden familiekiko elkartasuna nabarmentzeaz gain, Arartekoak azpimarratu du baimen horiek ez dietela soilik laneko eskubideei eragiten, eta baimen horien arrazoi diren haurren eskubideei ere eragiten dietela, eta, ondorioz, haien arauketak eta aplikazioak azken dimentsio hori ere kontuan hartu behar duela.

Haurren interes gorenaren printzipioa eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa [Haurren Eskubideen Itunaren](#) funtsezko zatiak dira; halaber, azken urteko erabaki judizial askotako ideia nagusiak dira. Askok ez badira ere, guztiek aitortzen dute guraso bakarreko familiek duten eskubidea, bi gurasoko familiek dituzten lan-baimeneko aste kopuru beraz gozatzeko, zeina oinarritzen baita familia haietako haurrek beste familietakoak bezalaxe trata dituzten duten eskubidean. Eskubide hori aitortu zuen lehen epaia Euskadin eman zen, 2020ko azaroan, eta 2021an beste zenbait etorri dira atzetik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak guraso bakarreko familia bateko ama den Kataluniako magistratu baten baimenak metatzearen alde egiteko hartutako erabakia barne.

d. Familia ugariak

2021ean familia ugariak planteatutako gaien funts komuna da dibortzio-egoeretan familia ugariaren tituluak dituen onurak eskuratzeko izaten diren zailtasunena. Kexagileek adierazten dutenez, zaintza ofizialki beste gurasoari esleitu arren, bisiten araubidea zabala da eta bi gurasoek dute erantzunkidetasuna seme-alaben heziketa, zainketa eta mantenuari

dagokienez. Beraz, bi gurasoetako bat familia ugariaren onuretatik baztertzen duen arau hori ez da bidezkoa.

Gai horri lotuta, kexagileei azaldu zaienez, Arartekoak esku hartzeko aukerak mugatuta ditu, estatuko legedia baita ([azaroaren 18ko 40/2003 Legea](#), Familia Ugariak babesteko) eta, ondorioz, bere eskumen-eremutik harago baitago. Ararteko erakundeak Eusko Jaurlaritzari helarazi dio azken urteotan familia-egoera berrietara (erantzunkidetasuna zainketan, zaintza partekatua, familia berreratuak eta abar) egokitu gabeko estatuko legedia aplikatzeak disfuntzioa dakarrela, baina Gorte Nagusietan estatuko legedia erreformatu ezean ez dago erakunde honen esku euskal administrazioei eskatzea indarreko legedia ez betetzeko edo saihesteko. Nolanahi ere, erakunde honek jarraitu egingo du sustatzen, ahal duen heinean, euskal botere publikoak familia ugariak arautzeko legea erreformatzearen alde egin dezatela, indarreko arauketa gaur egungo familia-ereduetara hobeto egokitu dadin.

e. Familia homoparentalak

Sexu bereko ezkontzak eta izateko bikoteak juridikoki berdindu zirenetik, Arartekoak urtero-urtero ohiko moduan jasotzen ditu Euskadin bizi diren eta arazo hori azaltzen duten herritarren kexak. Kasu horiek asko ez izan arren, orain dela urte batzuetatik aurrera bakarrik Estatu mailako administrazio batek igorritako inprimakiei buruzkoak izan dira, eta ondorioz, erakunde honen kontrol-esparrutik kanpokoak. Arartekoak 2010ean gomendio orokor bat egin zuen ([4/2010 Gomendio Orokorra](#), *guraso bakarreko familien eta sexu bereko bikote edo ezkontzen oztopo administratibo formalak kentzeko*). Izatez, gomendio orokor hori egin zenetik ez da euskal administrazioari eragiten dion kontu horri buruzko gai gehiagorik proposatu. Beraz, uler genezake gure administrazioek lan egin dutela inprimakiak eta hizkuntza sexu bereko ezkontzen eta bikoteen errealitatera egokitzeo.

Horregatik, Arartekoak kexa horiek jaso izan dituenean Espainiako herriaren defendatzaileari bidali eta gai horretan esku hartzeko eskatu izan dio, izan ere, [apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoaren](#) arabera, gai hori bere eskumenekoa da eksklusiboki. Kasu horietan gehien aipatzen den administrazioa Gizarte Segurantza da, eta bere jarduerak inpaktu handia sortzen du pertsonen bizitzetan. Hala gertatu zaio emakumeen bikote bati, izan ere, hasiera batean jaiotzagatiko baimenak ukatu zizkieten, formulario horiekin sortutako nahasketa zela eta. Horregatik, Arartekoak Espainiako herriaren defendatzailearen aurrean azpimarratu du bere esku-hartzearen bidez kexa horien ondorioz egokitzen egin daitezkeela Gizarte Segurantzako inprimaketan (erakunde honek ustez du horiek egitea beharrezkoa eta nahitaezkoa dela) eta horrela, sexu bereko bikoteen eskubide-berdintasunaren aitortpen juridiko osoarekin bat etortzea.

f. Haurdunaldi subrogatua

2021ean, zuzenean edo zeharka gai honekin zerikusia duten kontsultak eta kexak jasotzen jarraitu du Arartekoak: euskal administrazioek zer jarrera izan behar duten haurdunaldi subrogatuaren edo ordezkapen bidezko haurdunaldiaren

ganean; praktika hori geroz eta gehiago erabiltzen da, eta, bertan, haurdun egoten diren emakumeak ez dira ondoren umeen gurasoak izaten. Horrez gain, euskal administrazioek teknika horren bitartez jaiotako umeenganako duten jokiera ere salatu zuten kexagileek. Erakunde honetan jasotako kexa batzuk adierazten zuten administrazio publikoek guztiz baztertu behar dutela praktika hori, hura erabili duten familiak ikusarazi gabe edo izan ditzaketen eskubideak aitortu gabe, eta alderantziz, beste kexa batzuetan adierazi da familia horiek babestu beharko lirakeela eta seme-alaba horiek estigmatik gabe onartu beharko lirakeela, hau da, jatorriak kriminalizatu gabe eta beste umeek dituzten eskubide berdinak aitortuz.

Kexa edo kontsulta bakoitzaren xehetasunak aipatu beharrean, nabarmendu behar da den-denek lotura izan dutela, oro har, beste herrialde batzuetan haurdunaldi subrogatuak egitearekiko agintari publikoek mantendu behar duten jarrearekin. Arartekoaren aurrean egindako eskari horiek agerian uzten dute herritarrek geroz eta garrantzia handiagoa ematen diotela gure ordenamendu juridikoan ebatzi gabe dagoen gai bati, kontrako iritzia daudela eta gizarteko askotariko sektoreak geroz eta kezkatuago daudela.

Arartekoak, orokorrean, interesdunei gai horren inguruko egoera faktikoaren eta juridikoaren berri eman die, kontuan hartuz Espainian ez dagoela figura horren araubide juridikorik baina beste herrialde batzuetako legerian jasota dagoela eta legezko eskubidea aitortzen diola ordezkatzeko haurdunaldiaren edo haurdunaldi subrogatuaren kontratuari. Espainiako legeriak bakar-bakarrik Espainian egindako haurdunaldi subrogatuak kontratuak balio gabetzen ditu eta Espainian praktika hori balio gabea denez, jaioberria beti erditu duen emakumearen izenean inskribatu behar da. Gaur egun, ez Euskadin ez Espainian ez dago erregistro fidagarririk atzerriko herrialdeetan bizi diren eta umeak sabelean hazten dituzten emakumeak kontratatzeari buruz; ume horien filiazioa, ondoren, gure lurraldeko bizilagunei lotuko litzateke, baina kalkulatu da bitarteko horren bidezko ugalketak adopzioen kopurua gainditu duela. Nolanahi ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabaki batzuk finkatu egiten dute jaiotakoaren interesen defentsan egiten den filiazio inskribatzearen legezotasuna. Auzitegi horrek, bestalde, gaitzetsi egiten du giza gorputzen merkaturatze oro, Europako Giza Eskubideen Hitzarmenean aldarrikatutako duintasunaren aurkakotzat jotzen baita.

Arartekoak, aurreko urteetan bezala, kasu horietan guztietan errepikatzen du, haurdun dauden emakumeen eskubideak eta integritatea defendatzeko legezko berme argirik ez dagoen bitartean horien nahi librea eta gogo altruista bermatuz eta beraiek erditutako umeen interes gorenak ziurtatuz, eta emakumeak esplotatzen dituen praktika ororen aurka (bereziiki pobrezia handiagoko leketan bizi diren emakumeena) eta umeen giza trafikorearen aurka praktika hori babesten ez den bitartean, horrelako kontratuak ez dela erakundeen babesik emango. Ildo horri jarraikiz, erakunde honek adierazi du beti lehenetsiko duela eraginpeko pertsonen eskubideen defentsa dirua irabazteko edo negozioak egiteko interes ororen aurrean. Horrek ez du esan nahi familiak eratzeke legezko bideak jarraitu dituzten familien eskubideak defen-

datuko ez direnik (haurdunaldi subrogatua bermeekin eta giza eskubideak errespetatuz onartzen duten herrialdeetako legeria betez egin arren), izan ere, familia horiek eskubidea dute euskal administrazioetan umeen jatorriak kriminalizatzen dituzten estigmatik gabe errespetatuak eta tratatuak izateko eta gainerako euskal familien araubidea beraiei ere aplikatzeko, eta seme-alabek eskubidea dute baita ere herritartasun eskubide guztiak emango dizkien filiazioa onartu izateko.

Kontuan hartuz praktika hori geroz eta gehiago erabiltzen dela eta horrenbestez, gizartean kezka gehiago sortzen ari direla, erakunde honek espero du pausoak ematen jarraituko dutela gizarte eztabaidan aurrera egiteko eta hausnarketa lasaia, askotarikoa, irekia eta eraginpeko gizarte sektore eta taldeek partekatutakoa egin ahal izateko, hala, egungo egitatezko eta legezko definizio ezaren egoera bideratzeko eta eraginpeko emakumeen eta umeen giza eskubideak legezotasunez bermatzeko garapen finkoa ezartzeko.

2.5. Osasunerako eskubidea

24. artikulua

1. *Haurraren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.*

2.5.1. Arau- eta gizarte-testuingurua

Orain dela ia bi urte [Osasunaren Mundu Erakundeak \(OME\)](#) COVID-19ak sortutako osasun publikoko larrialdi-egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen, eta urte hauetan, botere publikoek eta osasun-agintaritzek agerraldiak kontrolatzeko eta kutsatzeak gelditzeko neurriak hartu dituzte. Hala ere, etengabeko kutsatze-olatuen ondorengo “normaltasun berriko” etapak zapuztu egin dira gainerako Europako herrialdeetan bezala, izan ere, kasuek gora egin dute, birusaren aldagai berriak agertu dira eta Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren (OSNLK) Osoko Bilkurak onetsitako nazioarteko eta nazio-estandarrekin bat, arrisku maila altuak edo oso altuak jazo dira.

Transmisioa gehitzean, berehala kontrol-neurriak ezarri dira egoera horrek COVID-19arenak ez diren patologientzako osasun-arretan inpaktu negatiborik ez izateko, eta asmoa izan da lehen unetik prebenitzea laguntza-sistema kolapsatzeko arriskuak.

Hala, 2021 hasieran [alarma-egoera berriz ere indarrean jarri zen](#). Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 25ean onetsi zuen eta azaroaren 3an sei hilabeterako luzatu zuten, eta aldi horretan mugatuta egon zen zirkulatzea eta erabilera publikoko bideetan edo espazioetan egotea, eta udalerrietako eta autonomia erkidegoetako konfinamendu perimetrala ezarri zen.

Zoritxarrez, eta 2020ko abenduan adin-tarteen arabera martxan jarritako txertatze-prozesua modu progresiboan orokortu arren, 2021 bukatzean Euskadi berriz ere osasun larrialdi-egoeran dago. Esparru juridiko horretan COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurrien [ekainaren 24ko 2/2021 Legea](#) ezarrita dago eta Euskadiko Babes Zibilaren Plana aktibatzen (LABI) baita ere.

2.5.2. Euskal osasun sistemaren inguruko kexak

Goian azaldutako testuinguruan, Arartekoari egindako ohiko kexez gain, kexa eta kontsulta asko egin dizkiote osasun-egoeraz eta **COVID-19aren izurriaren ondorioz herritarrei ezarritako betebeharez eta murrizketez**; horietako batzuek haurrei eta nerabeei eragiten diete-

- Kexa batzuetan, kexagileek adierazi zuten ez zeudela ados adingabeek hezkuntzaren eremuan maskara derrigorrez erabili behar izatearekin.

Aztertu ziren unean, 12 urte baino gutxiagoko haurrak COVID-19aren birusarekiko kolektibo zaurgarriena ziren, izan ere, adin-tarte horretan oraindik ez ziren txertoak ematen. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuordetzak azaroaren 28an argitaratutako buletin epidemiologikoaren arabera, 14 egunetan 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa metatua ia hirukoitza zen 6 eta 12 urte artekoen artean. Azaroaren 29an 86 ikastetxetako 188 ikasgela zeuden itxita.

Hezkuntza Sailak [“2021/22 ikasturtean ikastetxeetan COVID-19aurreko prebentzio-neurriak”](#) izeneko agiria onetsi zuen urriaren hasieran. Bertan ezarri zen ikastetxeko langile eta ikasle guztiak maskara derrigorrez erabili behar zutela, salbuetsiz 6 urtetik baino gutxiagoko haurrak (Haur Hezkuntza), Hezkuntza Bereziko gela egonkorra eta Hezkuntza Bereziko Zentroak. Agiri horren arabera, ikastetxeetako neurrien xedea da aurrez aurreko hezkuntza bermatzea, betiere hezkuntza-komunitatean COVID-19a hedatzea prebenituz. Beraz, helburua da EAEko ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea segurtasun- eta osasun-baldintzekin, bai ikastetxeko langileentzat, bai ikasleentzat.

- Beste kexa asko Euskadin COVID pasaportearen ezarritako ingurukoak izan ziren. Europako txertaketa ziurtagiria administrazio eskudunek pandemiaren aurka borrokatzeko ezarritako osasun neurrietako bat da, [2021/953 EB Araubidean](#) jasota dago eta indarrean jarri zen 2021eko uztailaren 1ean. Hasiera batean, pasapor-teak bakarrik Europar Batasunean libre bidaiatzeko aukerak baldintzatzen zituen, baina kexa gehienak [Lehendakariaren abenduaren 14ko 47/2021 Dekretua](#) onetsi ondoren aurkeztu ziren. *Dekretu horren bidez xedatzen da establezimendu, ekitaldi, jarduera eta leku gehiagotara zabaltzea Osasuneko sailburuaren 2021eko azaroaren 17ko Aginduaren bidez ezarritako Europar Batasuneko Covid Ziurtagiri Digitala (QR) eskatzeko derrigortasuna*, eta beraz, EAEn COVID pasaportearen erabilera orokortu egin zen.

Adingabeak eraginpean zeuden kontsulta eta kexa gehienetan txertorik ez jasotzea erabaki zuten nerabeen (beraiek edo beren familiek hala erabakita) kasuak azaltzen ziren, izan ere, arrazoi horrengatik ezin zuten instalazio publikoetako kirol, kultura eta aisialdi jardueretan parte hartu ez baitzuten aipatutako ziurtagiririk, eta Arartekora jo zutenen arabera, horrek urratu egiten zuen umeen interes goren.

Horri dagokionez gogorazi behar dugu 47/2021 Dekretua onetsi zela zegokion Auzitegi Nagusiaren berrespenaren ostean, 2021eko abenduaren 1eko 1412/2021 Epaiaren bidez. Epai hori Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2021eko azaroaren 22ko Autoaren aurka jarritako errekursoaren aurkako kasazioan eman zen, eta auto horrek ez zuen baimendu Euskadin COVID ziurtagiria eskatzea.

Auzitegi Gorenaren esanetan eta COVID-19aren pandemia zaintzeko eta kontrolatzeko prebentzio- eta euste-neurriak ezartzeko ikuspuntutik begiratuta, behin betiko bukatzen den arte, honako hau ziurtatu nahi da: *“si se pretende ir al interior del establecimiento, que es un espacio cerrado y normalmente poco ventilado, donde el riesgo de contagio se incrementa, ha de exhibirse la indicada documentación, que proporciona garantía, desde luego no absoluta, de no padecer en ese momento la infección SARS-CoV-2”*.

- Bukatzeko, zenbait kexetan (batzuetan umeak kalte-tuak izan ziren) aurretiaz programatutako hitzorduen ezeztatzeak aipatzen zituzten, bai arreta espezializatu-kontsultak, bai proba diagnostikoak. Horiek guztiak ezeztatu egin ziren osasun administrazioak pandemiari aurre egiteko ezarritako antolamendu neurriak zirela-eta. Egoera horrek interbentzio kirurgikoak egiteko itxarote denborak luzatu ditu baita ere eta aplikatzeko den araudian ezarritako denborak gainditu egin dira.

Orokorrean, Arartekoak Osakidetza jakinarazi zion COVID-19arekin loturarik ez duten patologiak dituzten pertsonen egoera nolakoa zen, azalduz hartzen ari ziren tratamenduen jarraikortasuna edo egiteko zituzten kirurgia prozesuak arriskuan zeudela, izan ere, erakunde honek uste du pertsona guztiak arreta berbera merezi dutela. Bestalde, kexa gehienak bideratuta geratu dira izapidetu diren bitartean edo erakunde honek esku hartu ondoren.

Pandemiak sortutako egoera berezia albo batera utzita eta Euskadiko udalerrietan eroldatutako pertsona guztientzako osasun laguntza bermatzea eraginkorra izateko aurrerape-nak egin diren arren, atzerritarrek idatzitako **osasun arreta jasotzeko** zailtasunei buruzko kexak jasotzen jarraitu dugu, eta horietako batzuek salatu dute haurdun zeuden emakumeak eta adingabeak ere hasiera batean ez zituztela artatu. Aurrekoetan bezala, gehienetan, osasun zentroetan osasun arretaren eskaera kudeatu zuten pertsonak informaziorik ez izateak eragin du arazoa, eta beraz, horiei guztiei banan-banan eman zaie irtenbidea.

Umeen eta nerabeen osasun mentalari dagokionez, 2020ko txostenean azaldu genuen balitekeela hurrengo hila-

beteetan konfinamendu gogorraren eta pandemiak sortutako zalantza eta beldur egoeren efektu negatiboak azalera. Norberaren edo familiaren etorkizunari buruzko zalantzek sortutako antsietatea edo depresioa, konfinamenduaren aurretik jada existitzen ziren arazoak areagotzea, terapiak gelditzea, tratu txarren biktima izatea edo familian indarkeria sufritzea, eta abar; horiek guztiak norbanakoen eta erakunde espezializatuaren arabera, umeen eta nerabeen osasun psikikoan eta emozionalean inpaktu handiak sortzen dituzten arazoak dira.

Ume eta nerabeen osasun mentaleko arazoak gehitu direla hainbat azterketa eta ikerketetan azaldu da, besteak beste gaixotasun mentala duten senideen eta pertsonen elkarrekin osatzen duten Euskadiko **-FEDEAFES-** Federazioak egindako **“Buru osasun arazoak EAEko haur, nerabe eta gazteen artean”** izenekoan. Erakunde honek txosten hori idazteko informatzaile gisa jardun zuen eta eztabaida taldeetan parte hartu zuen baita ere. Pandemiak sortutako egoerak, hala ere, osasun mentaleko arazoak dituzten ume eta nerabeei ematen zaien arretan aurretiaz zeuden arazoak areagotu zituen, azterketa aurkeztu zutenean arduradunek azaldu bezala.

Arlo horretako behar guztiak garrantzitsuak dira, eta horiei erantzuteko azterketan jasotako neurri guztien artean erakunde honek neurri prebentiboak aipatu nahiko lituzke, izan ere, horiek sufrimendu indibidual eta sozial handia “aurreztuko” lukete. Neurri horien artean, haurtzaro eta nerabezeroari buruz ari garenean, ezinbesteko garrantzia dute sentibiltasun soziala xede dutenak eta ume eta nerabeekin harremana duten pertsonen (gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, eta abar) zuzendutakoak, eta hori guztia komunikazioa hobetzeko eta sufrimendu psikiko eta emozionala hobeto detektatzeko.

Arartekoak denbora luzez ohartarazi duen beste gai bat da bere iritziz beharrezkoa dela intentsitate handiagoko osasun arreta eskaintzen duen baliabide, programa edo zerbitzu bat egotea, ez dagoena bakarrik ospitaleratzeak behar dituzten gertakari larri eta premiazkoen lotuta. Egiazko datua da (ikus jokoera arazo larriak dituzten nerabeei zuzendutako programa intentsiboari buruzko txosten honen 2.2.3 apartatua) familia batzuk beraien seme-alaben zaintza lagatzen dutela. Familia horiek, seme-alabak zaintzen urteak igaro ondoren eta familia bizitzarentzako oso oldarkorrak eta disruptiboak diren jokoerak direla-eta, gizarte zerbitzuetara jotzen dute beraien seme-alabek zentroetan arreta jaso dezaten eskatzera. 2021ean Bizkaian gazte eta nerabeentzako bi eguneko ospitale ireki dituzte eta horrek behar horri erantzuten dio zati batean, eta beraz, arazo horren bilakaera hurbiletik jarraituko du.

2.6. Haurren eta nerabeen eskubideak justiziarekin dituzten harremanetan

40. artikulua

1. *Lege penalak haustea leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaritzen zaionari bere duintasun eta adorea zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarrizko askatasunak errespetatu ditzen, eta haurraren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizartean funtzio konstruktiboa har dezan.*

Adingabeak delitu baten biktimak, lekukoak, susmagarriak izan daitezke, edo delitua egin izana lepora dakieke, edo alderdietako bat izan daitezke prozesu judizial batean, prozesu zibil, penal edo administratiboetan. Kasu horietan guztietan, haurrek eroso eta seguru sentitu behar dute, eraginkortasunez parte hartzeko eta entzunak izateko (Haurren eskubideei buruzko EBren estrategia).

2.6.1. Biktimak edo lekukoak izan diren haur eta nerabeak

Arartekoak ez du eskumenik **Arartekoaren erakundearen sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen** 13. artikulua araberak judizializatuta dauden gaietan; baina Arartekoak operadore juridikoekin lankidetzan jardun ahal izan du eta gai jakin batzuk bultzatu ahal izan ditu herritarrengan kalteak saihesteko, betiere kudeaketa informalean bidez, bereziki pandemiak Euskadiko Justizia Administrazioan duen eraginaren testuinguruan.

Horrela, adibidez, ezkondata dauden EAEko pertsona baten eta atzerriko nazionalitatea duen beste baten alaba amaren abizenarekin inskribatzea bultzatu ahal izan du, bada, amak abizenik ez zuenez gero (jatorrizko herrialdean horrela zegoen araututa) ez zeukan bigarren abizenik.

Arlo honetan kexa aipagarri bat egin zuten nerabe baten gurasoek; kexu ziren Abokatuaren Elkargoko txandako guardiako letratuak emandako tratuagatik, nerabearen sexu-abusuak egiteagatik salaketa bat jarri zutenean, gertakariak jazo zirren tokiko ertzainetxean. Arartekoari salatu ziotenez, salaketa jarri aurretik, delitu horien biktimei dagokien laguntza eta aholkularitza legala eskatu zuten, baina ertzain-etxetik guardiako letratuari deitu zitzaion arren, hark uko egin zion bertaratzeari.

Hurrengo egunean zegokion epaitegian zitazioa egin ondoren, ofiziozko txandako abokatu-laguntza eskatu zuten berriz ere, baina ez zuten lortu. Beraz, deklarazioa eta agerraldia abokatu-laguntzarik gabe egin ziren. Gurasoen arabera, adingabearen adierazpenak behar adinako informaziorik eta lege-aholkularitzarik gabe jaso ziren, eta horrek defentsa-gabezia eragin zion.

Arartekoak hainbat aldiz eman zizkien aholkuak nerabearen gurasoei hainbat zentzutan. Alde batetik, ofiziozko txandako

letraduaren praxi txarragatik Abokatutzaren Elkargoari zegokion kexa jartzeari buruz; era berean, kexa aurkeztu zen Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrean, bera baita ofiziozko txanda emateko azken arduraduna. Bestalde, Arartekoa harremanetan jarri zen Eusko Jaurlaritzako Biktimei Laguntzeko Zerbitzuarekin. Zerbitzu hori familiarekin koordinatu zen, biktimari arreta eman ahal izateko eta legeari buruzko aholkuak emateko, egiteko zeuden izapide judizialei zegokienez.

Probintzia Auzitegiak autoa eman zuen, egindako jarduketak eraginik gabe utziz, eta, horri esker, adingabeari deklarazioa berriro hartu ahal izan zitzaion, beharrezko bermeekin. Era berean, ofiziozko txandako letraduaren praxi txarragatik Abokatutzaren Elkargoaren aurrean kexa jartzeko prozedura amaitzeko, zegokion zehapena ezarri zitzaion, kode deontologikoaren arabera, kasu horretan urtebetez jardun ezina.

Arartekoak zuzenean esku hartu ahal izan du delitu baten biktima izan zen beste adingabe baten kexan, oraingo honetan, **nerabe batek Ertzaintzaren instalazioetan jasotako tratuari buruzkoa, berak pairatutako sexu-eraso bat salatzerantz joan zenean** bertara, bere gurasoekin. Kexan azaldu zenez, berak jaso zuen tratua ez zen neska adingabeak une horretan bizi zuen kalteberatasun bereziko egoerak eskatzen zuena, adingabea eta salatzen ari zen sexu-erasoaren biktima zen aldetik. Horrez gain, bezperan adingabearen etxean bertaratu ziren agenteek izandako profesionaltasun eta empatiarekin alderatuta, tratua oso bestelakoa izan zen.

Apartatu honekin bukatzeko aipatu nahi dugu esperientzia pilotu gisa martxan jarriko dela umeen aurkako indarkerian espezializatutako lehenengo auzitegia. Urriaren 1etik aurrera, Kanaria Handiko Las Palmasko 3. Instrukzio Auzitegiak biktimak umeak edo nerabeak dituzten (hau da, 0 eta 18 urte artekoak) ustezko delitu guztiak aztertuko ditu. Erabaki horrek, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorren arabera Umeen Eskubideen Batzordeari erantzuten dio, izan ere, azken gomendioetan Espainiako estatuari eskatzen zion gehitzeko “umeen arloan espezializatutako epaile kopurua” eta zaintzeko “adingabeen justizian espezializatutako auzitegiak egotea eta prozeduretan umeen beharrak kontuan hartzea (...)”. Arartekoaren jarduketa eremua gainditu arren, adingabeen justiziarako sarbidea errazteko neurriak martxan jartzea beti da azpimarragarria, are gehiago espezializazio maila handiagoak lortzen badira, eta hori guztia lotuta dago ume eta nerabeen izaera eta berezitasunak hobeto ezagutzearekin. Gainera, esperientzia horretatik asko ikas daiteke.

2.6.2. Gurasoak espetxean dituzten haurrak eta nerabeak

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeen eta gizarteratze zentroen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua 2021eko urriaren 1ean eskualdatu zitzaion Eusko Jaurlaritzari, baita espetxe legediaren egikaritzea ere. Horrenbestez, harrezkero Arartekoa da arloaren gaineko eskuduna.

Arartekoak, legeak esleitzen dizkion giza eskubideen kultura promozionatzeko eta hedatzeko zereginak betetz, beti

uste izan du beharrezkoa dela egungo zigor sistemari buruz hausnartzea. Testuinguru horretan, 2021ean etengabeko harremanak izan ditu EAEko espetxe sistemaren arduradun berriekin eta bere kezka eta proposamen nagusiak jakinarazi ditu (ikus txosten orokorreko III.04 kapitulua). Horien artean, txosten honi dagokionez nabarmentzekoa da EAEko espetxe sistemari gurasoak espetxean dituzten ume eta nerabeen eskubideak sartzeari buruz *CM/REC (2018) 5 Europako Kontseiluaren gomendioa, gurasoak espetxean dituzten haurrei eta nerabeei buruzkoa* agirian xedatutakoak kontuan hartuta.

Kasu partikularretatik haratago, Arartekoak Euskadin espetxe eredu bat ezartzeak sortzen dituen aukerak aprobetxatuz nahi duena da eredu ume eta nerabeen eskubideen zeharkako ikuspegitik “ikusteak”. Umeen ikuspegia bateragarria eta sinergikoa da justizia errestauratiboarekin, inguru irekian neurriak betetzeko, komunitateari irekitako ereduaren alde egiteko eta abar, eta umeen eskubideei buruz hitz egiten du, bai, baina baita ere berdintasunari, gurasotasun positiboari eta zaintza erantzunkidetasunari buruz.

Europako Kontseiluaren gomendioaren helburua Arartekoaren proposamenaren gidatzat erabil daiteke eta beraz, Arartekoak termino guztietan partekatzen du eta zehazki umeek eta nerabeek espetxean dagoen gurasoekin harreman emozional jarraitua (lotura) izateko eskubidea eta beharra babestean datza. Era berean, guraso horrek bere guraso zereginak egikaritzeko eta seme-alaben esperientzia positiboak sustatzeko eskubidea eta betebeharra du. Eskubide hori, beraz, ez da bakarrik 0 eta 3 urte artean dituzten eta espetxean amarekin bizi ahal diren umeena, eta ezta ere bakarrik amena.

Gomendioan egiaztatu da espetxeratzeak oztopo handiak sortzen dituela familien ohiko harremanak mantentzeko eta umeengan eragin handia duela, izan ere, traumak, estigmak, antsietatea eta gurasoen zaintzaren galera sentitu dezakete, eta ume horiek hazten diren egoera materiala ere kaltetu daiteke. Gurasoak espetxean dituzten umeek gainerako umeen eskubide berberak dituzte, eta ondorioz, gurasoekin ohiko harremana izateko eskubidea dute, salbuetsiz aurrekoa umeen interes gorenaren aurkakoa izatea. Bukatzeko, azpimarratzen da gurasoen eta umeen arteko harremanak mantentzeak inpaktu positiboa izan dezakeela adingabeengan eta espetxean dauden gurasoengan. Horregatik guztiarengatik azaltzen du administrazio arduradunen helburua izan behar dela saihestu daitekeen gurasoen espetxeratzeak umeengan eta nerabeengan eta gurasoen gaitasunetan sortzen duen kontrako inpaktua arintzea. Ume eta nerabeen garapena babesteko eta familia berriz ere batzea sustatzeko. Arartekoaren ustez elementu hori oso interesgarria da, izan ere, motibatzailea da preso dauden pertsonak gizarteratzeko.

Bestalde, Arartekoak 2021ean jarraipen berezia egin dio espetxeetan pandemia hedatzea saihesteko ezarritako neurriek sortutako egoerari. Hirugarren olatuan kutsatze kasu asko gertatu zirenez, otsailean berriz ere mugak ezarri zituzten eta komunikazioak, baimenak eta irteerak, jarduerak, tailerrak, tratamenduak, langile eta gizarte erakundeen aurrez aurreko lana eta abar aldatu egin ziren, eta horren ondorioz, gizarte eta

familia harremanak eten ziren eta presoan eta ahaideen osasun mentala eta emozionala kaltetu ziren (seme-alabak barne).

Urri erdialdean, Eusko Jaur-laritzari eskumena transferitu ondoren, Arartekoan zenbait kexa jaso genituen eta horien arabera irizpide oso ezberdinak ezartzen ari ziren EAEko espetxeetan komunikazio intimo edo familiarretan edo seme-alaba adingabeekin bizikidetzan egoteko uneetan. Hala, egoera epidemiologiko antzea izanik, Basaurin zerbitzu horiek ez zituzten berriz ere ezarri eta Martutenen eta Zaballan aldiz bai.

Arartekoak, goian aipatutako txosten orokorraren kapituluaren xehiago irakur daitekeen moduan, hiru espetxeetan irizpide komunak ezartzearen alde egin zuen eta Europako Kontseiluaren gomendioaren ildoari jarraiki eman zituen bere argudioak. Hala, nabarmendu zuen familiarekiko eta gizartearekiko harremanak mantentzea gizarteratzeko ezinbesteko elementua dela eta berariaz aipatu zuen gurasoak espetxean dituzten haurrek eskubidea dutela harreman emozional jarraitua (lotura) izateko eta gurasoak ere, aldi berean, guraso-lana egiteko eskubidea eta betebeharra duela.

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

31. artikulua

1. *Haurrak atsedean eta denbora-pasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta honekin batera, bizitza kulturean eta artetan parte hartzeko ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.*
2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Jolaserako eta aisialdirako eskubidea

Urte hasieran, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa Eusko Jaur-laritzako Gazteria Zuzendaritzarekin bildu zen Gazteriaren Euskal Lege Proiektuari buruzko informazioa eta balorazioak partekatzeko, egun haietan Eusko Legebiltzarrerara bidali zena. Arartekoak, proiektu arautzaileen balorazio eskarrietan egiten duen bezala, egun horretara arte kontsultatu zen gaiari buruz egindako erabakiak gogorarazi zituen. Hala, une horretan jakinarazi zuen hurrengo hilabeterako aurreikusitako zela familia erreferenterik ez duten gazte migratzaileei ematen zaien arretari buruzko azterketa aurkeztea (aipatu da txosten honen 2.3.5 apartatuan). Azterketa horrek proposamen batzuk gazteria politiken jarduketara esparruan kokatzen ditu emantzipazioa eta komunitate integrazioa bultzatzeari buruzko gaietan.

Xehetasun gehiagorekin landu zen beste gaia 14-18 urte arteko etapan jolas eta aisialdi hezitzailea sustatzea izan zen; lege proiektuan jasotako helburuetako bat da eta horri buruz agerian utzi zen Arartekoaren eta proposatutako testuaren ikuspegiak bat egiten zutela.

2.7.2. Eskola kirola

Arartekoan eskola kirolarekin lotuta aurkeztutako erreklamazioetako gaiak aurreko urteetan txosten honetan jasotakoan berberak dira (entrenatzaile batzuen jokaera desegokiak, araubidekoa ez den klubarekin edo kirol taldearekin parte hartzeko aukera ukatu izanagatik desadostasunak, eta abar). Horrez gain, beste kexa batzuk aurkeztu ziren COVID-19a zela-eta kirol jardueren antolakuntzan edo garapenean ezarritako muga handiei edo ekitaldi horiek ezeztatzeari buruz. Kexagileen ustez, eta guk ere hala pentsatzen dugu, kirola ezinbesteko jardura da umeen eta nerabeen garapen fisiko eta psikikorako eta balioak erakusten dituen eskola da gainera. Beraz, kontu handiz baloratu beharko liriteke kirolik ez egiteko ezarritako mugak. Ez litzateke egokia izango umeek jasotzen duten mezua izatea kirola ez dela ezinbestekoa edo ez dela garrantzitsua, izan ere, horren ondorioz, jardura fisikoa edo kirola egiteari utzi ahalko liekete batzuk, eta hori ez da nahi duguna.

Gainera, alor horretan aipatu beharra dago Eusko Jaur-laritzako Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean Haur eta Nerabeentzako Bulegoak egindako agerraldia. Gonbidapena jaso zuen EAEko jardura fisikoaren eta kirolaren lege proiektuari buruzko iritzia emateko. Arartekoak gogorarazi zuen zeintzuk diren erakunde honek lege eraberritzea egiteko ezarritako iritzia eta doktrina, eta orokorrean, zeintzuk diren pertsonen eskubideen arloan (kasu honetan umeenak) kontuan hartu behar direnak martxan dagoen lege eraberritzearen prozeduran. [Esku-hartze](#) horretatik azpimarratu behar da bulegoak eskatu zuela umeen ikuspegia txertatzeko lege proiektu osoan zehar eta inpaktu ebaluazioa egiteko ume eta nerabeen eskubideetan proposatutakoari buruz, umeen araudiak eskatzen duen bezala. Beste gabezia bat da ez dela nahikoa kirola egiten duten ume eta nerabeak babesteko egiten den lana. Sexu abusuei eta umeen aurkako indarkeriari buruzko erabakien esparruan, Arartekoak behin eta berriz ohartarazi du protokoloak, tratu onen kodeak eta bestelako tresnak ezarri behar direla umeen egunerokotasuneko arloetan, modu horretan, babesa eta segurtasuna bermatzeko. Kirola da horietako bat eta ez du beste batek baino garrantzia gutxiagorik, umeak eta nerabeak indarkeriaren aurrean guztiz babesteari buruzko [ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan](#) aipatzen den bezala baita ere.

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. *Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelakoa, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.*

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txosten honen zatian normalean desgaitasuna duten ume eta nerabeei, ume ijitoei, LGTBI+ kolektiboko umei eta atzerriko pertsonen seme-alabei eragiten dieten gaiak lantzen dira. Kasu honetan, nahiz eta orain arte azaldutako eskubideei buruzko erreklamazioetan kolektibo horretako umeak egon, uste dugu ez dutela garrantzia berezirik kolektibo horietakoak izatearren, eta beraz, ez da azpiatalik egongo, pertsona atzerritarren seme-alaben kasuan ez ezik.

2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

Arartekoaren Umeen eta Nerabeen Bulegoak zuzenean kudeatzen ditu Euskadin ahaiderik ez duten atzerriko gazteei eragiten dieten arazoekin eta beharrekin lotuta dauden eta ohiko moduan babesik ez duten umei zuzendutako foru gizarte zerbitzuek kudeatzen dituzten erreklamazioak. Urtean zehar alor horretan gertatutakoak txosten honetako 2.3 apartatua azaldu dira. Hala ere, atzerritarren seme-alabak beste eremu batzuei loturiko kexetan azaldutako egoera batzuen protagonista izan dira edo horien eragina jasan dute. Horien berri hemen emango dugu modu laburrean.

Egiaz, esan genezake atzerritar askoren seme-alabek atzerritarren legeriak beraien gurasoen gizarteratze prozesuetarako ezartzen dituen oztopoen eta traben ondorioak sufritzen dituztela, eta, zeharkako moduan, seme-alaben askotariko eskubideen garapenean ere eragina dutela. Zailtasun horiek guztiak xehetasun gehiagorik azaldu dira txosten orokorraren immigrantei buruzko III.6 kapituluan.

Oinarrizko beharrak betetzeko inpaktu handia dutelako bereziki garrantzitsuak dira diru-sarrerak bermatzeko eta etxebizitzarako prestazioak jasotzeko zailtasunak.

Immigratzaileek prestazio ekonomikoen eskariak izapidetean dituzten arazoak orokorrean lotuta daude jatorri herrialdean baliabide ekonomikorik ez dutela eta identitatea edo egoera zibila egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharrarekin. Urteko beste txosten batzuetan aipatu dugun beste arazo batek zerikusia du ezkontideak elkarrekin bizitzeko betekizunarekin. Batzuetan betekizun hori ezin da bete, prestazio ekonomikoen eskatzaileek ez dituztelako legezko baldintzak betetzen familia berriz elkartzeko, diru sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren kudeaketari buruzko Arartekoaren [txosten diagnostikoan](#) aztertu zen moduan (5.14 apartatua). 2021ean hainbat kexa jaso genituen baita ere arazo horren inguruan, eta beraz, berriz ere agerian geratu da neurri horrek ezberdin tratatzen dituela ezkontide atzerritarrek dituzten pertsonak, eta ez datorrela umeen interes gorenarekin bat umei eragiten dienean. Kexa batean azaltzen zen DSBE iraungi zitzaioela adingabe baten amari ez zutelako osatzen araudian aurreikusitako bizikidetzaren unitate bat, ama ez delako bere senarrarekin bizi. Bere senarra askatasunaz gabetzeko zigor bat betetzen ari da Marokon, eta beraz, ezinezkoa da familia berrelkartzea. Beste kexa batean, Lanbideak erabaki zuen kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea, iritzi ziolako kexagileak ez zuela baliatu bi seme-alaba adingabeen mantenu pentsiorako eskubidea.

Gai horri dagokionez, interesdunak frogatu zuen hiritan eskatu zuela adingabeen mantenu pentsioa. Nolanahi ere, aipatutako organismoak argudiatu zuen kexagileak ez zuela salaketarik jarri hori betetzen ez zuen gurasoaren jatorrizko herrialdean.

Etxebizitza duin bat izateko zailtasunen inguruan marokoar baten egoera aipatu behar da. 28 urte daramatza Gasteizen bizitzen eta 4 urte Marokon bizi den bere familia berrelkartzeko ahaleginak egiten. Bere familia osatzen dute emazteak eta hiru seme-alabek; bi adingabeak dira eta adinez nagusia denak desgaitasun bat du. Familia berrelkartzeko eskaria hasi zuenetik ezin izan du aurrerapenik egin, izan ere, ez du etxebizitzako alokairu kontraturik. Urte hasieran apartamentu turistiko bateko alokairu kontratua sinatu zuen urtebeteko baliozkotasunarekin. Etxebizitzak logela bat du, baina handitu daiteke eta kontratua horrela dago aurreikusita, baldin eta pertsona gehiago bertan bizi badira. Horren ondoren, Etxebizitza Egokitzeko txosten bat eskatu zuen familia berrelkartzeko eta txostena aurkakoa izan zen, erabaki zutelako 5 pertsonen ohiko etxebizitza izateko espazioa ez zela nahikoa. Kasu horretan, beste antzeko egoera batzuetan bezala, kexagileak azaldu dute zailtasunak dituztela familia berrelkartzeko etxebizitza bat alokatzeko, izan ere, zenbait kolektibok diskriminazioa jasaten dute merkatu pribatuan etxebizitza bat eskuratzeko.


Hezkuntzari buruzko txosten honen apartatua (II.2.2) eskola segregazioaren inguruko kezka azaltzen dira eta erakundeak 2019ko gomendioan aztertu zuen egoeraz geroztik egiten duen jarraipena aipatzen da; gomendio hori eman zen Ordiziako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako funts publikoko ikastetxeetako ikasleen eskolatzea aztertu ondoren.

Gizarte zerbitzuei buruzko kapituluan jada aipatu dira baita ere babesgabetasun egoeran dauden umeek, atzerritarren seme-alabek eta abarrek dituzten zailtasun gehituak, beraien administrazio egoera dela-eta.

Osasunerako eskubideari dagokionez, jada aipatu dira behin eta berriz errepikatzen diren ume batzuen osasun arreta jasotzeko arazo puntualak, eta horiek azkar zuzentzen ditu osasun administrazioak.

Beste urteetan bezala, Arartekoak Herriaren Defendatzai-learn Bulegoari bidali dizkio nazionalitate espainiarraren eskaerak ebazteko atzerapenari buruzko kexak. Aurten, gainera, Bilboko eta Donostiako atzerritarren bulegoetan hitzorduak eskuratzeko zailtasunei buruzko kexak jaso ditugu. Hitzordu horiek beharrezkoak dira aurrez aurre eskariak eta dokumentazioa aurkezteko, eta zailtasun horiek, batzuetan, umei buruzko izapidetzei eragin diete.

Bukatzeko, erakunde honek Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari jakinarazi zion kezkatuta dagoela atzerriko familien seme-alaba asko (familiekin bizi direnak, hau da, Euskadin familia erreferenteak BADITUZTEN ume eta nerabeak) administrazio egoera irregularrean daudelako. Ikuspegi —Immigrazioaren Euskal Behatokiak— kalkulatu du Euskadin erroldatutako 15 urte baino gutxiagoko 10.000 per-



tsona daudela eta ez zutela AIZrik 2020ko abenduaren 31n. Administrazio egoera erregularizatu gabe adin nagusitasuna betetzeak hezkuntza, gizarte eta lan aukerak guztiz murrizten ditu eta ume horien eskubide oinarritzkoenetako bat urratzen da. Asko eta asko hezkuntza ibilbidea bukatu duten, lagunak eta urteetako bizikidetzak harremanak dituzten umeak dira, komunitateetan gizarteratuta daude eta abar, eta une batetik bestera ez dituzte nazionaltasuna duten kideen aukera berberak eta etorkizunerako itxaropenak zapuztu egiten zaizkie administrazio egoera erregularizatzeko lan eskaintza bat aurkitzea ezinezkoa delako beraientzat. Arartekoaren ustez, ume horiengan egindako gizarte inbertsioa ezin da zapuz-

tu adin nagusitasuna betetzen dutenean ez dutelako jakin irregulartasun egoera bat aurreikusten. Horregatik, hurrengo hilabeteetan familia erreferenteak dituzten adingabe horien irregulartasun egoera prebenitzeko bide berriak aztertuko ditugu orientabide juridiko on batekin.

Erronka nagusietako bat da ume horiek detektatzea eta jakitea familia horiengana nola iritsi, modu horretan eta ikusirik kasu oso anitzak direla, informazio eta aholkularitza pertsonalizatua eman ahal izateko. Hala ere, epe ertain eta luzean hori lortzeko ibilbideak eta bideak aztertu beharko dira.



Entzuna izateko eta bere
iritzia kontuan hartua
izateko eskubidea:
Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua

III. kapitulua

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. *Iritzi propioa izateko gai den haurrari Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurrari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.*

13. artikulua

1. *Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.*

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onarturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseilua neska-mutileen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; halakoak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien neska-mutilei egindako elkarrizketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek

proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

Batzordea ohiko moduan 3 edo 4 aldiz biltzen da ikasturtean zehar, hau da, urritik hurrengo urteko ekainera bitartean, eta bilera horietan gai jakin bat lantzen da. 2021ean osasun pandemia zela-eta osasuna babesteko agintaritzek ezarritako mugikortasun eta bilketa mugek batzordearen jardueraren hasiera epea atzeratu zuten. Bileraren bat *online* egiteko aukera aztertu zuten arren, azkenean osasun egoera hobetuko zelakoan aurrez aurreko bilera antolatzearen alde egin zuten, izan ere, bazekiten gazte parte-hartzaileentzat eta Arartekoarentzat modu horretan bilerak egitea zein baliozkoa eta aberatsa den.

Gauzak horrela, batzordea ekainaren 4an, 5ean eta 6an **bil du zen Sarria-Zuiako (Araba)** gazteen aterpetxean. Hiru egun horietan batzordeak lan sakona egin zuen gai honi buruz: **COVID-19aren pandemiak umeen eta nerabeen eskubideetan sortutako inpaktua**. Aurreko urteetan bezala, batzordearen hausnarketa horrekin batera, **ENOC** Sareko Umeen Defendatzaile batzuetako taldeen eta batzordeen lana egin zen (ikus aurrerago txostenaren IV.1 atala) **ENYA –European Network of Young Advisors–** proiektuaren esparruan.

Metodologia ludiko eta oso parte-hartzaile baten bidez batzordeak ondorio batzuk atera zituen eta ENYAren Europako bileran aurkeztu zituen (kasu horretan, berriz ere *online* egin zen). Batzordeko gazte batzuen hausnarketak pandemiaren ondoriozko eskubide urraketari buruzkoak ziren, eta nagusiki, 2020ko eta 2021eko esperientzietan oinarrituta zeuden. Hauek izan ziren:

- **Hezkuntzarako eskubidea:** *“Prozesuan zehar, hainbat arazo aurkitu ditugu. Alde batetik, zailtasuna izan dugu laguntza aurkitzeko, komunikazio falta dela eta; eta horrek, aldi berean, ikasleen eta irakasleen deshumanizazioa ekarri du, aurrez aurre komunikatzerik izan ez dutelako eta beti pantaila baten aurrean egon direlako. Horrek ulermen eta enpatia falta eragin du, eta independenteagoak izatera behartu gaitu. Horrez gain, aparteko laguntza gehiago behar zuten ikasleak bakarrik sentitu dira, eta horrek ezberdintasuna sortu*

du. Ikasteko erraztasuna zuten ikasleek pribilegioak zituzten besteen aldean. Eta ez hori bakarrik: familien arteko ezberdintasun ekonomikoa asko nabaritu da. Batzuk material falta izan dute; esaterako, liburuak/ordenagailuak. Paradoxikoki, anabasa eta neurrigabekeria honetan guztian, antolatua izatea eskatu zaigu.”

- **Osasunerako eskubidea:** “Nerabe gisa, buruko osasuna ahaztu egin zitzaigun; garrantzitsu izateari utzi zion. Gainera, guztiaren errua egotzi ziguten, norbaiti errua egotzi beharra zeukatelako. Ahaztuak izateaz gain, nabarmen isolatuta gelditu ginen; guri arreta eskaintzeaz ahaztu ziren; eta, gainera, azken lehentasun gisa utzi gintuzten. Ez ziguten kasurik egiten; eta, gainera, alde batera utzi gintuzten; ez gintuzten entzun. Ulermen eta arreta falta sentitu dugu.”

(...) “Baztertuta sentitu arren, ekintza solidario, segurtasun-neurri eta murrizketa guztietan parte hartzen jarraitu dugu; eta inoiz ez gara izan gurekin izan diren bezain axola gabeak. Gainera, ezin zaigu errurik egotzi talde bezala; dena ez da zuria edo beltza; beti daude polaritateak, eta errespetatzen duten gazteak eta ez dutenak; beti infantilizatu eta deabrutu gaituzte, gu ere biktima izan garenean.”

- **Aisialdirako eskubidea eta elkartzeko eskubidea** “Konfinamenduak gauza ezberdinetara bideratu gaitu. Lehenik eta behin, asperdurara. “Denbora libre” asko izan arren, ez genuen ezer egiteko gogorik; normalean egiten genituen gauzak egiteko ilusioa galdu genuen. Baina, aldi berean, hobby berriak sortu ziren. Horrek robotak edo probako animaliak sentitzearen sentimendua piztu zigan.”

(...) “Askatasuna” izanda ere, ahaztu egiten zaigu jendeak ondorioak izaten jarraitzen duela edo arazo psikologiko horiek guztiak bizitzen jarraitzen duela; eta ez zaigu beharrezko arreta eta laguntza ematen.

Laburbilduz, aisialdirako eta elkartzeko eskubidea eraitzia izan da. Eta ondorio onak egon arren, gehienak txarrak izan dira”.

Mapa emozionala: desberdintasunen diagnostikoarekin eta analisiarekin hobekuntza gomendioak egin zituzten eta horiekin bukatu zen txosten honetan azaltzen den prozesua.

Ekainean baita ere **batzordearen batzar berezi** bat egon zen, kasu horretan, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzak gonbidatuta. Zuzendaritza horretan estrategia integral bat sortzen ari dira Euskadiko umeenganako indarkerien aurka, eta umeen eta nerabeen partaidetza beren eskubideak sustatzeko ezinbesteko oinarrietako bat denez, Eusko Jaurlaritzak estrategia hori hiru hiriburuetako ume eta gazteekin eta Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluarekin kontrastatu nahi izan zuen. Bilera Donostian izan zen ekainaren 30ean.

Azaroan kontseiluaren ohiko jarduera berrezarri zen. Urteko azken eta 2021/2022 ikasturteko lehen bilera Gasteizen izan zen azaroaren 6an. Eguneko gai nagusia umeen eta nerabeen eskubideen inguruan hausnartzea izan zen eta Umeen Eskubideen Hitzarmena landu zuten. Bilera horretan batzordeko kide bihurtu diren 15 haurrei ongi-etorri beroa eman genien eta gure taldeko lana bukatu zutenei esker onak eman genizkien eta agurtu egin genituen.





IV.

kapitulua

Haurren eskubideak sustatzea:

gizartearekiko harremanak eta
erakundeen lankidetzak

IV. kapitulua

HAURREN ESKUBIDEAK SUSTATZEA: GIZARTEAREKIKO HARREMANAK ETA ERAKUNDEEN LANKIDETZA

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Nazioarteko sareetan parte hartzea

1.1. Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC)

Haurrentzako Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC, ingelesezko siglaren arabera) 1997an sortu zen eta, gaur egun, Europako 34 herrialdeetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko 42 erakundek osatzen dute. Horien artean dago, 2017. urteaz geroztik Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa. Honatx sare horren helburu nagusiak:

- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ahalik eta modu osatuenean ezar dadin sustatzea.
- Taldeko ekintzari sostengua ematea, Europako herrialdeetako politika publikoetan haur eta nerabeen eskubideak kontuan har daitezten.
- Informazioa, ikuspuntuak eta estrategiak partekatzea.
- Haur eta nerabeentzat eraginkorrak diren bulego burujabeak gara daitezten bultzatzea.

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko organoa ere sortu da, ENOC sareari atxikitakoa: [ENYA](#) –European Network of Young Advisors– ekimena, ENOCen jardueran haur eta nerabeen partaidetza bultzatzeko. Horrela, haur eta nerabeei aukera ematen zaie entzunak izateko eta beren iritzi eta proposamenak beren herrialdeetatik haratago ezagutarazteko.

Sareak urtean behin batzar nagusian biltzen da, kideek proposatutako eta adostutako gaiak eta edukiak lantzeko. Urteko biltzarra aprobetxatuz, herriaren defendatzaileek topaketa luzatu egiten dute, eduki horiei buruzko informazioa partekatzeko, elkarriketan aritzeko, esperientziak eta gogoetak trukatzeko.

2021. urtean, COVID-19aren izurrialdian umeen eta nerabeen eskubideen inguruan bildutako esperientziatik atera daitezkeen irakaspenak landu dira. Arartekoak kanpoko adituek ENOCeko kide diren herrialdeetan pandemiari eta umeen eskubideei buruz egindako ikerketa-lana diseinatu eta berrikusi zuen taldean parte hartu zuen. [Azterlan hori](#) ondoren izenburu honekin onetsi zen deklarazioaren oinarria izan zen: “[COVID-19: Learning for the future](#)”. Azkenik, Ararteko langileek Haurren Kontseiluaren ordezkari batekin batera irailean [ENOC sarearen Batzar Nagusian](#) parte hartu zuten. Gainera, Arartekoak sarearen erakunde garapenean lan egin du, eta horretarako, sareko kide izatean bete beharreko balio eta estandarrei buruzko eztabaidetan parte hartu zuen eta kide berrien izen-emate eskariak ebaluatzen dituen lantaldean parte hartu zuen baita ere.

Arartekoak ENOCen “helduen” arloan egindako lanaren baliokidea da Haurren eta Nerabeen Kontseiluak ENYA proiektuan izandako parte-hartzea (aurreko kapituluan eman ditugu horren xehetasun gehiago). Horren harira, urteko konferentzian [nerabeen ekarpenak](#) eta helduen bulegoen lanaren ekarpenak uztartu izanak asko lagundu zuen diagnostikoaren eta amaitzeko aitorpenaren kalitatea hobetzen.

Sarearen helburuetan aipatu bezala, han parte hartzeak aukera ematen du informazioa, estrategiak eta metodologiak partekatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, bere helburua. Horri lotuta, ohikoa izaten da askotariko gaiei buruzko informazioa eskatzea. Informazioa eskatzen duen erakundearen helburua da datu gehiago izatea hartu beharreko erabakiak baloratzeko edo eman beharreko irizpenak idazteko. 2021ean informazio eskari hauei erantzun zitzaizkien: sexu harremanetarako baimena emateko legezko adina (Frantzia), umeen eta nerabeen aurkako indarkeriaren kontrako adierazle sistema bateratua (Italia), adingabeak kontuan hartzea heriotza duinerako eskubidea erregulatzeko (Irlanda), gorputz zigorra debekatzea (Georgia), erakundeetan edo zaintza alternatiboetan barneratuta (desgaitasuna edo gaixotasun mentalak) dauden ume eta nerabeen erreklamazio mekanismoak eta bideak (Grezia), jokabide autolitikoak dituzten edo beren buruaz beste egiten saiatu diren ume eta nerabeei zuzendutako arreta (Ukraina) eta kargupean seme-alabak izateagatik laguntzak (Bosnia-Herzegovina). Grezian ekimen bat egin zuten jatorri herrialdeetara itzultzen zituzten ume eta nerabe migratzaileen eskubideen urraketen inguruan, eta horren ondorioz, sarean [baterako deklarazioa](#) egin zuten beste batzuen artean.

Sarearen bitartez, askotariko gaiak jorrazteko lankidetzak-erakundeak ere iristen dira Europako eta nazioarteko erakundeetatik. Horietan parte hartzea erabakitzen du Arartekoak. Horrela, 2021ean honako hauetan hartu du parte:

- Europako Kontseiluak egindako kontsulta 2022-2027 urteetarako umeen eskubideen estrategiari buruz. Txosten honen 1. kapituluak aipatu da gai hori,
- [I. umeen partaidetzari buruzko Europako Kontseiluaren gida](#) berriaren aurkezpenean egotea.

1.2. Herriaren Defendatzaileen Nazioarteko Erakundearen baitan (International Ombudsman Institute) lankidetzan aritzea

Hala, Arartekoak modu aktiboan parte hartu zuen lau urtean behin antolatzen den [Ombudsmanen Nazioarteko Institutuaren \(IIO\) Munduko Batzarrean](#). Arartekoaren partaidetza nabarmena izan zen, izan ere, mahai-inguru batean parte hartu zuen. Bertan, [Europar inoren kargura ez dauden ume eta nerabe atzerritarrek babesteko zerbitzuei buruzko txostena](#) aurkeztu zen (informazio gehiagorako ikus txosten orokorreko IV. kapituluko 1.1.2 apartatua) Greziako eta Herbehereetako Herriaren Defendatzaileekin batera. Txosten hori 2020an bukatu zen eta aurrean euskarara eta gaztelaniara itzuli da eta autonomia erkidegoetan eta estatuan eskudunak diren hainbat instituzio eta erakundetan banatzen saiatu gara. Gainera, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agentziaren Oinarrizko Eskubideen Foroan aurkeztu zen baita ere. Espazio horretan hiru urtean behin oinarrizko eskubideen arloan aktiboak diren hainbat eragile biltzen dira.

IIO sarearen bidez baita ere Luxenburgoko Herriaren Defendatzaileak egindako kontsulta bati erantzun zitzaion; gaia inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren egoera eta familia-bateratzea zen.

1.3. Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioa

2021eko azaroan Dominikar Errepublikako Herriaren Defendatzaileak Santo Domingon antolatu zituen XXV. [Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioaren \(FIO, gaztelaniarazko siglak\)](#) Sarean Bilerak, Kongresua eta Batzarra, izenburu honekin: *“Pandemia, administrazio ona eta giza eskubideak”*. Ekitaldi horretan egon zen Arartekoak, bere ondokoaren bitartez. FIOk egun horietan zehar 22 herrialdeetako nazio eta eskualde mailako 100 defendatzaile baino gehiago bildu zituen eta modu horretan, foro batean batu ziren Ombudsmanen arteko lankidetzak bultzatzeko, esperientziak partekatuzko, sustapenerako, hedapenerako eta indartzeko. Arartekoak urtean zehar jada parte hartu zuen federazioak eta sareek antolatutako askotariko gaiei buruzko jardueretan.

Gainera, FIOren urteko batzar horretan onetsi zen Arartekoa [Haur eta Nerabeen Defendatzaileen Sarean](#) sartuko zela bere Haur eta Nerabeen Bulegoaren bitartez. Arartekoa 2022an hasiko da sare horretako kide berri bezala parte hartzen.

1.4. “Europa eta gazteria” webinarra

Nahiz eta nazioarteko sareetako parte-hartzeari buruzkoa ez izan, ekimen honen berri emango dugu hemen, izan ere, izaera oso europazalea du eta bere helburua Europar Batasunak gazteentzako eskuragarri jartzen dituen partaidetza baliabideak eta bitartekoak hedatzea eta baloratzea da. Europaren Eguna zela eta, aste batzuk beranduago, ekainaren 17an, [Europari eta gazteriar buruzko webinarra](#) antolatu zuen Europako eta Nazioarteko Gaien Bulegoak Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren laguntzarekin. José Ignacio Torreblanca, Europako Kanpo Arazoen Kontseiluko Espainiako bulegoko zuzendaria, Europar partaidetza-esperezia duen gazte bat, Bizkaiko Europe Direct zentroa eta Euskadiko Gazteriarren Kontseilua gonbidatu genituen. Bakoitzak bere ikuspuntua eman zuen gazteria Europar Batasunaren etorkizunaren garapenean inplikatzearen eta gazteek Europar Batasunaren proiektua barneratzeko beharrezko garrantziari buruz. Proiektua belaunaldiz belaunaldi gauzatzeko ari da, eta horrela jarraitu behar du. Gainera, Europar parte hartzeko askotariko aukerak azaldu eta eztabaidatu ziren. Webinarra Arartekoak moderatu zuen eta Haur eta Nerabeen Kontseiluko kideek parte hartu zuten baita ere. Webinarraren grabaketa kanal honetan eskuragarri dago: [Arartekoaren YouTube kanala](#).

2. Espainiako beste defendatzaile batzuekin lan egitea haur eta nerabeen eskubideen arloan

Espainiako beste defendatzaileekin ohiko moduan lan egiten dugu haur eta nerabeen eskubideei eragiten dieten gaietan, eta modu asko daude hori egiteko. 2021ean hauek izan ziren beste defendatzaile batzuekin batera egindako jarduketak garrantzitsuenak:

- Haurren Defendatzaileen Europako Sarearen (ENOC) 2020ko deklarazioa eta horretarako sortutako “Umeen eskubideengan sortutako inpaktuaren ebaluazioa” (CRIA, Child Rights Impact Assessment) gida hedatzea. Andaluziako [Haur eta Nerabeen Defendatzaileen](#), Kataluniako [Síndic de Greuges-en](#) eta Arartekoaren titularrek [baterako deklarazioa egin zuten](#), eta horren bidez berretsi zuten agintari eskudunei egindako deialdia haurren eskubideen ebaluazio prozesuak aplikatzeko eta eskubide horienganako inpaktuaren analisia egiteko eta eskuragarri jarri zuten aurretik aipatutako [gida](#) gaztelaniaraz, katalanez eta euskaraz.

- Euskal administrazio eskudunekin bitartekaritza lanak egitea Kanarietako [Komunaren diputatuak](#) eskatuta. Elkartasun ikuspegiarekin neurri batean bakarrik dauden adingabe atzerritarren tutoretza eta zaintza beren gain hartzeko aukera aztertu zuten, zehazki, une horretan Kanarietako harrera eta babes sisteman zeudenak gainokupazio maila handiko une batean.
- Valentziako Erkidegoko [Sindic de Greugesek](#) egindako kontsultari erantzutea. Kontsulta horren gaia familia ugariaren tituluak berritzeari eta erabiltzeari buruzkoa zen, bereziki, gurasoak banandu ondoren, eta ofiziozko balizko ikerketa irekitzeko balorazioa egiteko baita ere.
- Batera ematea (Valentziako Erkidegoko Sindic de Greugesek eta Arartekoak) [“Jokabide arazoak dituzten adingabeentzako babes zentro espezifikoei buruzko mintegiko”](#) modulu bat. Mintegi hori Justizia Ministerioari Ikasketa Juridikoen Zentroak antolatu zuen eta fiskaltzako profesionalak zuzendu zuten.
- [Paz con Dignidad elkartearekin](#) eta, horren bitartez, [Defence for Children Internacional – Palestine](#) (DCIP) deritzanarekin.
- Motxiladun umeak eta Plataforma Izadi Gurasoekin Etxera elkarteekin, gurasoak espetxean dituzten neska-mutilen egoerari dagokionez.
- [Pantallas Amigas](#)-ekin, lankidetzak berezia eginez bere podcast hau editatzean: “Neska-mutilen eskubideak eremu digitalean”
- [EDE Fundazioarekin](#) eta [SIISekin](#) (Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa - Fundación Eguía Careaga Fundazioa), zenbait txosten, diagnostiko edo azterlan prestatzeko lankidetzak-esparruan.

3. Gizarte-eragileekiko lankidetzak

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak, bere ekintza-ildoen artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haur eta nerabeen eskubideak dibulgatuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden adingabeen sektoreentzat diren baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzak-harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan eta abar. COVID-19aren izarria kontrolatzeko hartutako neurriek nabarmenki baldintzatzen jarraitu dute bilerak eta bisitak egitea edo eztabaida-foroetan aurrez aurre parte hartzea. Hala ere, harremanetan egon gara erakunde hauekin:

- Haur eta nerabeen eskubideak babesteko erakundeekin: [Euskadiko Save the Children](#), [UNICEF](#)–Euskal Herriko Batzordea, [Haurren Erakunde Plataforma](#), Haur eta Nerabeen Soziologia Taldea –[GSIA](#)– eta [Eurochild](#).
- [Hirukide](#) Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkartearekin, familien elkartearen esparruan.
- [Babesten taldea](#), [IRSE](#) Euskadi, [Agintzari](#), [Grupo Urgatzi](#) eta Consulting Asistencial Sociosanitario elkarteekin, portaera-arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboetara egin diren bisiten esparruan.
- [Agiantza](#), [Harresiak Apurtuz](#) eta [SOS Arrazakeria Gipuzkoa](#)-rekin, familia-erreferenterik ez duten haur eta nerabe atzerritarrei dagozkien gaietarako.
- [AVIFES](#) eta [FEDEFESekin](#), buruko gaitza duten pertsonen lotutako erakundeak baitira.
- Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu sailburua.
- Eusko Jaurlaritzaren Migrazio eta Asilo Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Haurren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Gizarte Inklusioa Sustatzeko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazioarako eta Gizarte Sustapenerako Zuzendaritza.
- Hiru foru aldundien Gizarte Ekintza / Gizarte Politika / Gizarte Politiketako sailtako haurren zerbitzuetako arduradunak.
- Gasteizko Udala. Haurtzaro eta Senitate Zerbitzua.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, “Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza” izeneko graduondoko titulu propioan parte hartuz, eta Deustuko Unibertsitatea. Bi unibertsitate horietatik etortzen dira ikasleak praktikak egitera (Zuzenbide Fakultatekoak eta Psikologia eta Hezkuntza Fakultatekoak, hurrenez hurren).
- ACNUR-Comillaseko Unibertsitate Pontifikala, informazio emaile gisa elkarlanetan aritu gara honako proiektu honetan: *“La infancia no acompañada y separada con necesidades de protección internacional en España”*.

4. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzak

Halaber, aitzak dira erakunde instituzional eta/edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzan aritzeko espazioak eta uneak, nahiz eta 2021ean pandemiaren aurreko urteetan baino urriagoak izan diren, gizarte-erakundeekin bezalaxe. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

5. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren onarpena ospatzea

Nazio Batuen Batzorde [Orokorrak Umeen Eskubideei buruzko Hitzarmena](#) onartu zueneko 32. urteurrena zela-eta, Arartekoak nazioarteko bi aditu gonbidatu zituen haur eta nerabeen eskubideei buruz hitz egitera: Luis Pedernera, jurista, NBERen Haurren Eskubideen Batzordeko presidente ohia eta egungo kidea eta Susie ALEGRE, Doughty Street Chambers-en nazioarteko giza eskubideen arloko abokatu espezialista eta Freedom to Think liburuaren idazlea. Inguru digitalari, pentsamendu askatasunari eta umeen eskubideei buruz hitz egin zuten. Hemen entzun eta irudiak ikus daitezke: [Elkarrizketa ilustratua umeen eskubideei buruz inguru digitalean](#).





V.
kapitulua

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren
2021eko jarduketaren laburpena

V. kapitulua

HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN 2021EKO JARDUKETEN LABURPENA

Kapitulu honetan Arartekoak 2021ean aztertutako arazoan eta egindako ekintzen laburpen bat egin da.

2021ean, 454 kexa-espeditetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %16,4tan. Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditak (447): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditak (7).

Kexagileari dagokionez, aurten, jasotako kexetatik bat bakarrik egin du adingabe batek, nahiz eta beste batek Bizkaiko haurren partaidetza-organo baten kezka eta go-goetak helarazi dituen, Arartekoari beraien ikuspuntuak helaraztea erabaki baitzuen. Gainontzeko kexak helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik, hamaika gizarte-erakundeek egin dituzte; horiek azaldutako egoerek adin txikiak gehiagori eragiten diete.

Gaiei dagokienez, umeen bizi baldintza materialekin lotutako kontuak erreklamazioen ia erdietan azaldu dira (%47,4) eta ia hiru laudenera iristen dira hezkuntza sistemari buruzkoak gehituz gero (%28,0). Gainerako %25a familiei laguntzeko politikak (%7,4), babesgabe dauden umei laguntzeko gizarte zerbitzuek (%6,3), osasun sistemak (%5,8) eta beste arlo batzuk osatzen dute (kopuru oso txikiak dituzte justiziak, segurtasunak, kutsadura akustikoak, atzeritartasuna, eta abar).

Ofizios ireki ziren espediteteei dagokienez, 7tik 6 jokaera arazo larriak dituzten nerabeei arreta emateko programa intentsiboari buruzkoak izan ziren (aurrerago azalduko da) eta gainerakoak araudi prozeduretan umeenganako inpaktuaren ebaluazio txostenak eta politika publikoaren plangintza txostenak sartzeari buruzkoak izan ziren.

Umeen eta nerabeen eskubideen inguruan dauden arazoak eta emandako erantzunak aztertuta, honako gaiak nabarmendu behar dira:

1. Entzuna izateko eskubidea. Informazioa izateko eskubidea

Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

2021ean batzordearen ohiko lan dinamika baldintzatu zuten COVID-19aren pandemia dela-eta agintaritzek osasuna babesteko ezarri zituzten mugikortasun eta biltze murrizketak neurriek. Formatuak inguruabar horietara egokitu ziren (bileren iraupena luzatzea testuinguruak hala ahalbidetu duenean eta gainerakoetan online bilerak egitea) eta edonola ere, jardura mantendu egin da. Horri esker, urterako aurreikusitako gaia COVID-19aren pandemiak ume eta nerabeen eskubideetan izandako inpaktuari lotu zaio eta Arartekoa kide den Umeen Defendatzaileen Europako Sarearen (ENOC) ENYA proiektuan parte hartu dugu.

2. Bizi maila egokia izateko eskubidea

Maiatzean aurkeztu ziren 2020ko pobrezia-aren eta gizarte desberdintasunen inkestaren emaitza nagusiak. Horien artean nabarmentzekoa da gehitu egin dela umeen pobrezia-aren intzidentzia (%10,7ra iritsi da), baina, hala ere, gutxitu egin dira Euskadiko pobrezia errearen tasa orokorrak (%6,1 2018an eta %5,6 2020an):

Datu horiek koherenteak dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten bizikidetzak-unitateei buruz 2021erako eman dituen datuekin. Informazio horren arabera, 2020ko abenduaren 31n diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuten bizikidetzak-unitateen %28,57k adingabeak zituen beren kargu.

Bizikidetzaren unitate horietan dauden ume eta nerabeak 25.767 dira, hau da, Euskadin erroldatuta dauden 19 urte baino gutxiagoko 400.000³ biztanleetatik %6,45. Beste azterketa batzuetan adierazitako moduan, baldin eta diru sarrerak bermatzeko sistemak kanpoan uzten baditu pobrezia egoeran dauden familien heren bat inguru, zenbatetsi ahalko genuke Euskadiko 38.650 haur eta nerabe (%10 inguru) bizi direla prekaritate ekonomiko eta materialeko egoeran, eta arrisku handian dagoela beren garapenerako bizitza maila egoki bat izateko eskubidea.

Hainbat azterlanetan egiaztatu ahal izan denez, prekaritate egoerek epe labur, ertain eta luzeko eragina dute haurren bizi baldintzetan, beren bizi itxaropenetan eta garatu eta integratzeko aukeretan. Gure gizartean, gaur gaurkoz, oinordetza sozialak eragin oso handia du pertsona bakoitzaren aukeretan. Ondorioz, pertsonen bizi aukerak, funtsean, beren familiek haurrei beharrezko gaitasun ekonomiko, sozial, kultural, kognitibo eta harremanezko emateko duten gaitasunaren araberakoak dira. Gauzak horrela, egoera hori aldatzeko nolabait esku hartzen ez bada, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmitituko da, oinordetza txar baten antzera, haurren eta nerabeen eskubideak larriki kaltetuz.

Herritarrek diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin lotuta aurkeztutako erreklamazioei dagokienez (prestazio horiek norbanakoen oinarritzko beharrak betetzeko dira) eta euskal administrazioek emandako erantzuna kontuan hartuta, haurren eraginaren eraginarengatik azpimarratzekoa da kontuan hartu direla genero indarkeriaren biktima diren emakumeen inguruabar bereziak eta berrikusi egin dela prestazioen erreklamazioa (Lanbideren irizpideen dokumentuan aurreikusitako moduan guraso eta seme-alaben arteko neurrien betearazpen judiziala ez eskatzeagatik egindakoak edo gurasoetako batek elikagaiak jasotzeko eskubidea izateko egindako jarduketak egin, baina inguruabar eta egoera ezberdinengatik eskubide hori egikaritzea ez denean posible izan).

Hala ere, Lanbideri aurreko urteetan jakinarazitako kezka batzuk mantendu dira, gai hauei buruzkoak: Prozedura bermeak betetzearen garrantzia, hala nola DSBEren eskatzaileei eta titularrei edozein jakinarazpen egitea eta jakinarazpenen arloko administrazio prozedura betetzea; onuradunek DSBEren espedienteetan aurkeztu dituzten dokumentuak deskribatzea; eskubideak eta interesak mugatzen dituen edozein erabaki hartu aurretik entzunaldia egitea; betekizunak galdu dituztenaren edo betebeharrak betetzen ez dituztenaren zantzuak daudenean frogaldia irekitzea eta DSBEa ukatzen, eteten edo iraungitzen duten ebazpenak behar bezala arrazoitzea. Mailegu bat diru-sarreraren berezi gisa kontuan hartzeari, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkeztu beharri, ezkontidea berriz ez elkartzeko iraungitzeari edo atzerapenak konpentsatzeari buruzko desadostasunak ere mantendu egin dira, beste batzuen artean.

³ 0-19 urte bitarteko biztanleriaren pisua Euskadin %18,23koa da 2021eko urtarrilaren 1ean, eta 399.734 pertsona dira. [Eustatek](#) jasoa. Biztanleen udal estatistika.

Bizitzeko gutxieneko errentaren izapidetzeak atzerapen handiak izan ditu baita ere, euskal administrazio publikoen eta estatuko arteko elkarreragingarritasun akordio batzuk beharrezkoak izan direlako. Gainera, herritarrek udalei bizitzeko gutxieneko errentaren titular izateko betekizunei eragiten dieten inguruabar jakin batzuk egiaztatze eskatu beharreko informazioak zailtasun handiak sortzen dituzte laguntzak eman ahal izateko.

Etxebizitza duin eta egokia lortzeari dagokionez, erreklamazioak jasotzen jarraitu dugu aurreko urteetako gaien inguruan, eta berriz ere hauek azpimarratu behar dira: 1) etxebizitza duina, egokia eta ekonomikoki eskuragarria lortzeko arazoak etxebizitzak ez gaituztearren familia unitateko pertsona bakoitzeko 15m²-ko ratioa; 2) seme-alabak dituzten familiek eskatutako babes publikoko araubideko etxebizitzaren premiazotasuna. Horregatik, Arartekoak berriz eskatu nahi die euskal administrazio publikoei alokairu erregimenean eskura daitezkeen babes publikoko etxebizitzaren parkea zabaltzeko, Etxebizitzaren Legean ezarritako erroren behar bezala aurre egite aldera, eta, aldi berean, denbora pasa ahala, esleitutakoa baino etxebizitza handiago bat (edo konfigurazio desberdina duena) alokairuan hartu behar duten errentari publikoen eskaerei erantzute aldera.

3. Hezkuntzarako eskubidea

2021. urtea, jarraitutasun-urtea izan da, eta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-krisiak eragina izan du, berriz ere eta maila nabarmenean, gainera, hezkuntza jasotzeko eskubidea baliatzean. Auziaren egoeraren inguruko berrikuntzak etengabe iritsi dira. Horrek azaltzen du gizarte irekietan, gurea bezalakoetan, herritarrek keak aurkeztea eta kontsultak egitea; horrek, aldi berean, fenomenora gerturatzean pertsona bakoitzak dituen ikuspegiaren aniztasuna argi uzten du.

Adierazitako ikuspegitik, erakundera jotzen dute bai ezarritako neurriak permisiboegiak direla ulertzen dutenek, kontrol-mekanismoak tinkoagoak izatea eskatuz, bai neurriak zorrotzegiak eta gogorregiak direla uste dutenek, malgutzea planteatuz. Bi horiek izango lirake hezkuntzaren esparruan eztabaida-espazioa zedarritu dituzten mugak, eta argi uzten dute, esan bezala, inguruan daukagun aniztasuna.

Bestalde, 2021. urtean sortu diren zenbait egitasmoren kasuan, eztabaidetan parte-hartze zabala sustatzeko ahalegina egin da, egitasmo horiekin etorkizuneko Hezkuntza Legearen oinarriak ezarri nahi baitira. Eztabaida horietan aztertutako gaietako batzuk bereziki kezkarriak dira Ararteko erakundearen aburuz, keak eta jarduteko eskaerak behin eta berriz eragiten dituztelako, azken urteetako txostenetan jaso den moduan. Besteak beste, **eskola-segregazioa** da horietako bat.

Aurten Ordiziako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan ikasleak eskolatzea aztertu ondoren 2019an emandako gomendioari aurten egindako jarraipenetik, Arartekoak ondorioztatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, praktikan, ez dela hartutako plangintza-erabakien ebaluaziorik egin, eta ez

duela ikasleen banaketa orekatuagoa lortzen lagundu ahal duen neurri zuzentzailerik hartu. Hala ere, sustatutako egitasmo berrien ondorio gisa, Sailak estrategia berrien aldeko apustu tinkoa egitea espero du Arartekoak, nahitaez lotuta egon beharko dena hezkuntza-plangintzarekin eta ikasleak onartzeko arauekin, eskola-mailako segregazio eta/edo desorekaren egoerak iraultzea ahalbidetuko duena.

Ordiziako errealitateak beste ekimen bat ekarri du, oraindik abian dagoena, **ekimen pribatuko ikastetxeen ituntzearen inguruan**, goian aipatutako eztabaidetan sortutako beste gai bat.

Hirugarren gai bat **hizkuntza koofizialek** hezkuntza-sisteman duten **tratamenduari** eta hizkuntza-ereduen sistemaren beharrezko berrikuspenari buruzkoa da. Arartekoak, aurtan ere, A hizkuntza-ereduko hezkuntza-eskaintzarik ez dagoela salatzen etorri diren familien kexei erantzun behar izan die. Gainera, gaztelania irakaskuntza-hizkuntza gisa baztertu ezin dela adierazi duten azken adierazpen judizialek indartu egin dute aipatutako familien zilegatasuna.

Zalantzarik gabe garrantzitsuak diren gai horietaz gain (denboran zehar errepikatu diren erreklamazioen muina direnak), 2021ean erakunde honek beste gai batzuekin lotuta jardun du:

- Onarpeneko ohiko prozesutik kanpo ikasle bat familia harreraren onartzeagatik Arartekoak ikasleak onartzeko onetsitako araudiak dituen aukerei buruzko oharrak egin zituen, izan ere, aukera horiek ez ditu beti erabiltzen hezkuntza administrazioak.
- **Hezkuntza behar bereziak** dituen ume bat eskolatzeko baldintzen inguruko kexa bat zela-eta, erakunde honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari adierazi dio hausnartu egin beharra dagoela ikasle horientzako hezkuntza-eskaintzaren inguruan, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen adierazpenen argitan; izan ere, bertan, hezkuntza inklusiboaz aritzean, gogorarazi nahi izan da *“bazterkeriarik ez jasateko eskubidearen barruan dagoela segregaziorik ez jasatekoa”*, eta beraz, gomendatu da *“hezkuntzako segregazio oro ezabatzea, bai hezkuntza bereziko eskoletan bai eskola arruntetako unitate espezializatuetan ere”*.
- Arartekoak I. motako diabetesa duten ikasleei ematen zaien arretaren inguruan egiten duen esku-hartzearen esparruan eta Hezkuntza Sailak *Eskola eremuan I. motako diabetesa duten ikasleei arreta emateko protokoloa* onetsi ondoren, azpimarratu du beharrezkoa dela hobetzea **eskola jantokien** funtzionamenduari buruzko zirkularra eta zerbitzuaren lizitazio oinarri diren plegu teknikoak, eta hori guztia ikasle horiek dieta individual pertsonalizatua jasotzen dutela bermatzeko.

4. Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea

Beste urte batez ere azaldu behar dugu kexa kopurua eta kexen gaiak ez direla asko aldatu aurreko urteekin alderatuz. Aurtan ere ez da gomendiorik edo iradokizunik egin administrazio eskudunentzat eta erreklamazioetan aipatutakoentzat, baina, horrek ez du esan nahi ez direnik hainbat kudeaketa, kontsulta eta orientazioen muina izan.

Aurtan berriz ere zenbait kexa jaso ditugu desadostasuna adieraziz **beren seme-alaben babesgabetasuna aitor-tzearekin**, guraso-ahala etetearekin eta foru erakundeak tutoretza onartzearekin. Kasu horietan guztietan, kexagileek neurriaren kontra egiteko lege egoitzara jo edo horren asmoa azaldu zuten, eta beraz, Arartekoaren jardura saihesten zen eske nagusiari zegokionez.

Arlo honetan Arartekoan egiten diren kontsulten zio nagusietako bat oraindik ere hauxe da: foru zerbitzuek **seme-alaben babesgabetasuna baloratzeko espediente bat irekitzeak familietan sortzen dituen zalantzak eta ziurgabetasunak**. Arartekora jotzen duten familia askok hori egiten dute espediente bat ireki dela edo beraien kasuak udal gizarte zerbitzuetatik foru zerbitzuetara bideratu direla jakiten dutenean, eta oso kezkatuta etortzen dira, beldurtuta egoten direlako familia banatuko duten babes neurriak ezartzeko aukeraren aurrean.

Beste kexa batzuen muina **babesgabetasun balorazio prozesuaren garapenarekin ados ez egotea izan da**. Zehazki, babesgabetasuna baloratzeko lantaldeak ez onartzeagatik terapeuta pribatu batek gurasoetako batekin zuzenean parte hartzea balorazio bileretan, ez baitzegoen ados babesgabetasuna baloratzeko egindako gizarte txostenetan berari buruz egindako balorazioekin edo ez zegoelako ados kexagilearen ustetan balorazio teknikoak partzialki egin zituen profesional baten jardunarekin, izan ere, bere ustez, beste gurasoaren alde egiten ari zen. Horri lotuta, eta 2020an aipatu moduan, azken urteotan hazi egin dira babeseko gizarte zerbitzuen alorreko kontsultak eta kexak, atzean gurasoen banaketa gatazkatsua dutenak.

Beste herritar batzuk Arartekora jo zuten adierazteko **ez zedela ados familia esku-hartzea bukatzearekin** eta familiari ematen zitzaizkion laguntzak amaitzearekin. Beste kexa batzuk jaso ditugu babesgabetasun egoera baloratu ondoren **ezarritako babes neurrien garapenari edo eteteari** buruz. Kasu horietan herritarrei esan zaie Arartekoaren zeregina dela bermatzea zerbitzu publikoen jardunak legezketasuna betetzen duela, eta beraz, Arartekoaren eskumenetik eta esku hartzeko aukeretatik kanpo dago balorazio teknikoan bidezketasunari eta ezarritako hezkuntza erabakiei edo erabaki terapeutikoei buruzko iritziak ematea. Hori eskusiboki aztertutako egoeraren beharrei egokitutako balorazio judizioa egiteko informazioa, ezagutza eta trebezia dituen administrazioari dagokion administrazio erabakiaren parte bat

da. Erakunde honek egin dezakeen analisisa nagusiki juridikoa da eta ez dagokio Arartekoari baloratzea txosten psikosozialen edukia edo umeei eta familiei eskainitako esku-hartze programen edo laguntzen eta iraupenen baloraziorik egitea.

Familia harrerari dagokionez, zalantzan jarri da haurren zerbitzuek harrera familiei eskainitako laguntza ekonomikoak bukatu izana umeak adin nagusitasuna bete ondoren familia harrera bukatu delako eta ume horrek familiarekin bizitzen jarraitzen duen kasuetan. Edonola ere, gizarteratze zerbitzuak laguntzen jarraitzen zuenez, ez zegoen irregulartasuna egiaztatzeko arrazoirik. Bigarren kexa batean salatu zuten harreraren duten ume baten administrazio erregularizazioa gehiegi atzeratu zela eta zailtasun asko sortu zirela zaintza ardurak zuzen betetzeko. Kasu horretan azpimarratzen zen izapide batzuk egitea oso zaila dela hirugarren herrialdeei eragiten dietenean (eta kasu horren inguruabar bereziek egoera are gehiago areagotzen zuten), eta testuinguru horretan, Arartekoa eraginpeko administrazioarekin eta Ombudspersons-eko Europako sareen kide gisa lanean ari da umea dokumentatzeko bide eraginkorrenak bilatzeko.

Egoitza harreraren dauden ume eta nerabeei dagokionez, familia batzuen kexak jaso ditugu ez zeudelako ados beraien seme-alabekin egiten ari ziren bisitekin. Beste kexa bat egoitza harreraren zegoen nerabe batekin egindako esku-hartze multzoari buruzkoa zen, eta zehazki, harrera egoitzatik ihes egin zuenean ezarritako foru esku-hartzearekin. Jokaera arazo larriak dituzten nerabeentzako programa intentsiboetan ematen den arretarekin lotuta, Arartekoak aurten ofiziozko jarduketara bat gauzatu du eta beste ondorio positibo batzuen artean detektatu du beharrezkoa dela hausnarketa sakon bat egitea zentro horiek beharrei erantzuteko sisteman duten zereginen inguruan, eta bereziki, gai hauek jorratu behar direla:

- Programa horietan arreta jaso dezaketen/behar duten gazteen ezaugarriak eta horri estuki lotuta, beste baliabide batzuen beharra -osasan arloan, soziosanitarioan edo gizarte zerbitzuetan-, gazte horien beharrei erantzun egokiagoa ematen badiete.
- Esku-hartzearen izaera eta neurri "bereziak" (eustekoak, isolatzekoak), beharrezkoak direnak egoki analizatzeko arreta jasotzen duten gazteen oinarrizko askatasun eta eskubideen arrisku potentziala, eta ondorioz, zentro horiek jokaera arazoak lantzeko zentro espezifiko gisa sailkatzea (1/1996 Lege Organikoa) edo ez. Hortik sortuko da baita ere agintaritza judizialak derrigorrez parte hartzea edo ez egonaldien hasieraren eta esku-hartzearen kontrol eta jarraipenean.
- Babesik gabe dauden umeei zuzendutako gizarte zerbitzuen sisteman duten zeregina eta horrekin lotuta, egonaldietarako denbora egokienak, programa batzuetatik bestera igarotzea edo bestelako programa motetan aplikatu daitezkeen ikaskuntzak eta baliabideen dibertsifikazioa handitzeko aukera.
- Familiarekin lan sakona egitea (gazteekin egiten den bezainbeste), berriz ere elkartzeko helburuarekin eta hurrengo faseetan laguntzeko programak antolatzea; kasuaren koordinatzailearen, tutorearen eta bestelako profesionalen rola.

Adoptatutako ume eta nerabeei dagokienez, kexaren batean azaltzen zuten ez zeudela ados adopzio ondorengo jarraipenak derrigorrak izatearekin, eta beste batean azaltzen zuten balitekeela sexu orientazioagatiko diskriminazioa gertatu izana bi emakumeren kasuan. Arartekoak ondorioztatu zuten administrazioak zuzenbidearekin bat jardun zuela eta emaitza berbera izango litzatekeela bikotea heterosexuala izango balitz. Beraz, ezin zen diskriminaziorik ezaren printzipioa eskatu kexan azaltzen zena oinarritzeko.

Familia erreferenterik ez duten atzerritarrei ematen zaien arretarekin lotutako jarduketetan behin eta berriz errepikatzen den gaia izan da emantzipazioa, edo zehatzago esanda, gazte horiek adingabetasunetik bizitza heldu autonomo batera "igarotzean" dituzten zailtasunak edo laguntza urriak, izan ere, testuinguru ez da batere erraztailea. Birbideratu ziren kasuetan azpimarratzen zuten eskumena zein administrazioek duen erabakitzeko ez litzatekeela gizarte arretarik gabe geratu beharko pertsona zaurgarri bat. Zalantza horiek kudeatzaile publikoek ebatzi behar dituzte eta pertsona ez da derrigortu behar bere arretan eskudunak izan daitezkeen zerbitzuetara joatera, bereziki ez dagoenean ibilbiderik edo bideratzeko protokolo formalik. Horixe da, bestalde, arazo horri buruz Arartekoak 2021ean aurkeztu dituen bi azterketetan jasotako ondorioetako bat.

Apartatu honekin bukatzeko azpimarratu behar dugu 2021eko gomendio orokor batean aurkeztu genituela umeen eta nerabeen aurkako abusu eta esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideak. Hala, eraginpeko administrazio guztietako profesionalen laguntzarekin aurreko bi urteetan lanean jardun genuen. Jarraibide horiek jarduketara multzoa dira eta horiekin lortu nahi duguna da datuen detekzioa hobetzea eta tratatu txarren forma larri horren biktima diren ume eta nerabeenganako esku-hartzea eta tratamendua ere hobetzea. Jarraibideen ikuspegia ume eta nerabeen eskubideak dira eta hauek dira gainerako elementuak mugiarazten dituzten bi ideia nagusiak:

1. Jarduketara guztiak bigarren mailako biktimizazioa saihestera bideratzea eginbide errepikakorrek ekidinez, eta esku hartzerik txikieneko, azkartasuneko eta espezializazioko irizpideetara egokituz.
2. Ume eta nerabe biktima guztiek ahalik eta azkarren kaltea konpontzeko tratamendua jasotzea. Horretarako, bermatu behar da tratamendu horretarako zerbitzuak publikoak eta unibertsalak izatea eta eragile guztiek lan egitea beharrezkoak ez diren atzerapenik gabe tratamendu konpontzailea hastea errazteko.

5. Familia izateko eskubidea

Herritarrek familiei laguntzeko politikai buruz helarazitako gaiak egonkor mantentzen dira urteetan, eta, hain zuzen ere, 2021ean ere errepikatu dira: sarritan informazio osoa ez izatearen ondorioz, zailtasunak seme-alabengatikoa laguntza ekonomikoak izapidetzeko, zeinak subjektiboak izanik era automatizatuan eman ahalko liratekeen; laneko eta familiako bizitzen kontziliatorako neurri hobeak eta asmo handiagoak eskatzea, bereziki kontuan hartuko dituztenak familia zaurgarrien oztopoak; autonomia-legediak zaurgarritzat jotako familien barruan sartzan diren egoeren definiziorik eza eta, hortaz, estatus hori baliatu ezina beste eremu batzuetan edo beste politika batzuen laguntza partikularrak jasotzeko ezintasuna; legedi zaharkitua eta arrotza askotariko familien egoera berrientzat.

Arazoak behin eta berriz errepikatzen direnez, guk ere errepikatu egin behar ditugu, erakunde gisa, errealitateak beharrezkoak direla erakusten digun gomendioak. Lehenengo aipatu behar dugu ezinbestekotzat jotzen duena **familiei zuzendutako laguntza politika publiko guztietan aintzat hartzea**, laguntza hori egoera eta osaera desberdinen ondoriozko premia askotarikoetara egokituz eta gizarte eta ekonomia arloetako politika publiko desberdinek euskal familietan duten eragina ebaluatzeko aukera emango duen zeharkako ikuspegia sustatuz.

Hortik aurrera, goian adierazitako gaien aurrerakuntzarako proposamen zehatz gisa, beste urte batzuetan helarazitako batzuk aipatu ditugu berriz:

- **Seme-alabak dituzten familietan egindako inbertsio ekonomikoa** handitzen jarraitzea, batez ere neurri fiskalak ezarriz eta aukera berriak aztertuz.
- **Seme-alabengatikoa dirulaguntzen eta kontziliatorako laguntzen izapidetze administratiboa** argitzea, arintzea eta sinplifikatzea, irisgarriagoa izan dadin herritarrentzat eta laguntza horien izapidetzea ahalik eta automatizatuen egon dadin.
- **Guraso bakarreko familiei estatutu berezia aitortzea**, haien premia bereziei erantzun egokia emateko, eremu guztietan.
- **Banandutako gurasoak dituzten familien edo bereratatutako familien kasuan familia ugariaren tituluak kudeatzeko irizpideak** hobetzea, edo, hala badagokio, gai horri buruzko erregulazio autonomiko propioa egitea.
- Adinekoak, seme-alabak, edo gaixorik, ezinduta edo mendekotasun-egoeran dauden kideak dituzten **familiei laguntzeko zerbitzu publikoak eta baliabideak** areagotzea eta hobetzea.
- **Familia eta lana kontziliatzen eta familia-erantzukidetasuna sustatzen lagunduko duten neurriak bultzatzen jarraitzea**, laguntza ekonomikoan bidez ez ezik, era guztietako estimuluen bidez ere sustatuz balio-aldaketa eta egitura ekonomikoaren eta enplegu-egituren egokitzapena, bat etor dadin pertsonen zaintza-beharrekin.

6. Osasunerako eskubidea

2021ean alor horretan jasotako kexa eta kontsulta kopuru gehienak osasun egoerarekin eta COVID-19aren pandemia dela-eta herritarrei ezarritako betebeharrak eta murrizketekin lotuta daude. Horien artean azpimarratzekoak dira adingabeek maskara derrigorrez erabili beharra hezkuntza esparruan eta Euskadin COVID pasaportearen ezarri izana eta ez txertatzea erabaki zuten nerabeei (erabaki hori beraiek edo beren familiak hartuta) izandako oztopo guztiak ekipamendu publikoetako kirol, kultura eta aisialdi jardueretan parte hartzeko.

Horrez gain, zenbait erreklamazio jaso genituen aurretiaz programatutako hitzorduak ezeztatu zituztelako, bai arreta espezializatutako kontsultak, bai proba diagnostikoak. Horiek guztiak ezeztatu egin ziren osasun administrazioak pandemiari aurre egiteko ezarritako antolamendu neurriak zirela-eta. Kexa gehienak bideratuta geratu dira izapidetu diren bitartean edo erakunde honek esku hartu ondoren.

Kexak jasotzen jarraitu dugu hasiera batean arretarik jaso ez duten adingabeek osasun arreta jasotzeko izandako zailtasunekin lotuta. Ikusirik kezka gehienak osasun zentroetan osasun arreta eskaerak kudeatu zituzten pertsonen informazio faltarengatik zirela, guztiei irtenbidea eman zitzaizen modu partikularrean.

Osasun mentaleko arazoak dituzten ume eta nerabeei ematen zaien arreta ez da erakundearen lanean presente egon erreklamazio partikularrei dagokienez, baina, gai horri buruzko hausnarketa eta eztabaida foroetan parte hartu dugu horrekin kezkatuta eta okupatuta dauden gizarte erakundeekin batera.

7. Umeen eskubideak justiziaren arloan

Arartekoaren gomendioen oinarri izan diren bi erreklamazioetan aipatzen zituzten bi neskak (kasu bietan delitu sexualen biktimak) izandako zailtasunak egindako salaketaren testuinguruan eman zitzaielako arreta. Lehenengo kasuan guardiako abokatuak zabarkeriazko tratua eman zuen, eta ondorioz, deklarazioak eta adierazpenak abokatuaren aholkularitza eta laguntzarik gabe eman ziren, eta bigarren kasuan Ertzainetxe batean jasotako tratua ez zen egokia izan adingabearen zaurgarritasun egoera berezia kontuan hartuta, izan ere, adingabea izateaz gain, salatzen ari zen sexu erasoaren biktima ere bazen.

Arartekoak egindako jarduketan laburpena jaso dugu hemen ere, Euskadiko espetxe sistemaren arduradun berriei jakinarazteko (transferentzia egiten denean) zeintzuk diren kezka eta proposamen nagusiak. Horien artean nabarmentzekoa da gurasoak euskal espetxe sistemari dituzten haur eta nerabeei eskubideak aintzat hartzea, kontuan hartuta espetxean gurasoak dituzten adingabeei buruzko Europako Kontseiluaren CM/REC (2018)5 gomendioa. Gomendio hori Arartekoaren proposamenaren gidatzaletan erabil daiteke eta

Arartekoak termino guztietan partekatzen du, eta bere helburua da umeei eta nerabeek espetxean dagoen gurasoarekin harreman emozional jarraitua (lotura) izateko eskubidea eta beharra babestea. Era berean, guraso horrek bere guraso zereginak egikaritzeko eta seme-alaben esperientzia positiboak sustatzeko eskubidea eta betebeharra du. Eskubide hori, beraz, ez da bakarrik 0 eta 3 urte artean dituzten eta espetxean amarekin bizi ahal diren umeena, eta ezta ere bakarrik amena.

8. Jolasteko, atsedean hartzeko eta jarduera artistikoak eta kirol jarduerak egiteko eskubideak

Eskola kirolari buruzko ohiko erreklamazioez gain, aurten jaso ditugun beste batzuetan azaldu zuten ez zeudela ados COVID-19aren testuinguruan kirol jarduerak antolatu eta garatzeko ezarritako oztopo handiekin edo jarduera horiek bertan behera utzi izanarekin. Kexagileen ustez, eta guk ere hala pentsatzen dugu, kirola ezinbesteko jarduera da umeen eta nerabeen garapen fisiko eta psikikorako eta balioak erakusten dituen eskola da gainera. Beraz, kontu handiz baloratu beharko lirateke kirolak ez egiteko ezarritako mugak.

Umeen ikuspegia txertatzea eta indarkeriaren aurka umeak guztiz babesteko lege berriari jasotako manuak aplikatzea beharrezkoa da, eta halaber egin behar da arauak ume eta nerabeen eskubideetan sortzen duen inpaktuaren ebaluazioa, eta gai horiek guztiak ere erakunde honek gogorarazi zituen EAEko jarduera fisikoaren eta kirolaren lege proiektuaren izapidetzean.

